

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-11-07
EGUBAKOITZA
616. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM

"Esperientziarik gabeko aukera da Podemos"



Xabier Barandiaran | EA Jren GBBko kidea eta soziologoa | 9

Lau t'erdiko partidu bikainak

Xalak eta Retegi Bik Eskoriatzan jokatuko dute domekan | 28

Antonino Ibarondo musikaria omenduko dute domekan Oñatin | 19



Artisauen saltoki izango da Leintz Gatzaga azaroaren 16an | 11



Arrasateko Goikobalu abesbatza 25 urtez kantuan hemen eta atzerrian | 31



Lazpiur: aurrera segitzeko osasuntsu

Eredugarritzat eta sinbolotzat jarri dute Lazpiur enpresa hura bisitatu duten agintariek 100. urteurrenean | 6

Bakartxo Tejeria, Jaione Isazelaia, Miguel Lazpiur, Iñigo Urkullu eta Arantza Tapia, eguaztenean, Lazpiurren pabiloian.

IMANOL SORIANO

Bergarako kultura etxe berria izango dena ikusgai dago, aurreproiektu eran

Ondarearen errespetua, askotariko erabilera eta iraunkortasun ekonomikoa. Hiru ardatz horiek dituen kultura etxea diseinatu du Vaumm enpresak, Seminarioan eraikitzeko. Bertako elizan gura dute espazio berria egokitu. Aurreproiektua bi astez dago ikusgai udaletzeko lehen solairuan. | 18

SINADURAK



Museo horiek | 9
JUAN LUIS AZKARATE

40 | Batean kale, bestean bale
AINTZANE OIARBIDE



ASTEKO GAIA 3 | DEBAGOIENA 6 |
ELKARRIZKETA 9 | IRITZIA 10
HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31
ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36
EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38

ZURE BIGARREN

VARILUX®
LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI*

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENERIA
IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

* kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.



J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



(B)

**Diru (B)eltza,
enplegu (B)eltza**

**“A” gizartea
lortzeko**

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA
GARDENERA**

www.ekonomiagardena.net



 **Gipuzkoako**
BERRIA



Aitziber Aranburuzabala Goienako Kazetaria, Jakin-eko zuzendari Lorea Agirre, Ainhoa Beola politikaria eta Idurre Eskisabel EHUko irakaslea. | JAGOBA DOMINGO

Oztopoak gaindituz, eskutik helduta feminismoa eta euskaltzaletasuna

- ▶ Feminismoaz eta euskalgintzaz aritu dira hiru emakume euskaltzale eta feminista
- ▶ Bi mugimenduek komunean dituzten ezaugarriak identifikatu eta jendarteratu dituzte

MIREN ARREGI | ARRASATE

Feminismoa eta euskaltzaletasuna eskubide dira, justizia soziala dira. Ez hori bakarrik, bazterketa egoeran bizi dira biak eta egoera horretatik irteteko estrategiak partekatu beharko lituzkete. Horiexek dira hiru emakume feminista euskaltzalek bi mugimendu horien gainean egindako hausnarketatik ateratako ondorioetako batzuk. Lorea Agirre Jakin-eko zuzendaria, Ainhoa Beola Aralarako politikaria eta Idurre Eskisabel kazetaria eta EHUko irakaslea feminista euskaltzaleak dira, edo euskaltzale feministak, eta Arrasateko Emakume Txokoak, Emunek, Ekin Emakumeek eta Goienak elkarlanean antolatutako jardunaldira gonbidatuak izan dira joan den astean. Goienako kazetari Aitziber Aranburuzabalak egin ditu moderatzaile lanak.

Feminismoaz eta euskalgintzaz, euskalgintzaz eta feminismoaz aritu dira. Izan ere, *Izan zaitezke feminista euskaltzale izan daitek?* Izenburu horren bueltan –hori baitzen mahai-inguruaren goiburua–, ondorio antzerakoak atera dituzte Agirrek, Beolak eta Eskisabelek.

Egoera baztertua, biak

Ondorio nagusia da bi mugimenduek daudela baztertuak, gaur eta

hemen, bizi dugun testuinguru sozio-politikoan. Hizlarien esanetan, euskara dago hizkuntza politikak baztertua, gaztelarak baztertua eta feminismoa dago eredu heteropatriarkalaren menpean. Badira paralelismoak bi mugimenduen artean, baina baita desberdintasunak ere.

Antzerako ezaugarriak

Gaia planteatzeko modua da "atentzioa eman-zalea", Idurre Eskisabelen ustetan; izan ere, *Izan zaitezke feminista, euskaltzale izan gabe?* da erantzun beharreko galdera. Galderaren aurrean hiru hizlarien erantzuna da garbia: "Bai". Baina nabardurak badira. Hala, honakoa eranstean dio Eskisabelek bere baieztokari. "Mordoxka ezagutzen ditut feminista direnak eta euskaltzale ez direnak, baina ni euskaltzale naiz feminista naizelako eta feminista naiz euskaltzale naizelako. Nigan biak dira bat". Ainhoa Beolaren iritziz, "bistakoa da feminista izan zaitezkeela euskaltzale izan gabe". Haren ustez, baina, bai euskaltzaleek bai feministek aurre egin behar izaten diote eskubideen etengabeko zapalkuntzari. Horregatik, harrigarria deritza mugimendu feministatik eta euskaltzaletik elkarlan bat errotu ez izanari.

Lorea Agirreren esanetan, hizkuntzaren eta feminismoaren borroka justizia sozialaren markoan daude kokatuta: "Justizia sozialaren aldarri bat baino ez dira. Borroka guztiak dira kate bat", dio, eta gaineratu du: "Europa mendebaldeko gizartea gizarte geroz eta patriarkalagoa da hizkuntzari dagokionez, aniztasunari lekuri uzten ez dion gizarte honetan, horren kontrako edozein borroka ahizpak direla uste dut".

Europa mendebaldeko gizartea gizarte geroz eta patriarkalagoa da hizkuntzari dagokionez, aniztasunari lekuri uzten ez dion gizarte honetan, horren kontrako edozein borroka ahizpak direla uste dut".

Nazioarteko esperientziak

Bi mugimenduek komunean dituzten elementuen aztertzeak beste antzerako esperientziak Euskal Herrikoarekin alderatzea ere badakar eta bide horretan Eskisabel eta Beola dira nazioarteko esperientzietara garamatzatenak. Izan ere, "galdera bihurria" erantzuterakoan, Ameriketako Estatu Batuetara darama Eskisabelek entzulea, baieztatuz: "Angela Davis, behintzat, euskaltzalea da. Izan ere, Angela Davisek bere *Emakumea, arraza, klase soziala* liburuan genero zapalkuntzari gehitzen dizkio arrazarena eta klasea-

rena. Bada, gurera ekarrita, arrazarenarekin kultur, nazio, sentipenaren kategorizazio bat egin dezakegu. Euskal Herrian euskaldun izateak jartzen gaitu botere sarean toki menpeko baten, horregatik diot Angela Davis euskaltzalea dela". Eta gaineratu du: "Zergatik ez konparatu Ameriketako Estatu Batuetako beltzekin. Ez da nik asmatu dudun paralelismo bat, 60. hamarkadatik datorren euskal kulturaren susperraldian, gure eta beltzen arteko paralelismo hori behin eta berriz egin da".

Ainhoa Beolaren esanetan, "beste herrialde batzuetan, Latinoamerikan, esaterako, feminismoa eta indigenismoa oso batuta doaz. Koloniatik hasi eta Ertamerikaraino. Afrikan eta Asian ere, ekologismoa eta feminismoa elkarrekin datoz. Elikadura burujabea, ama lurra, pachamama...", dio.

Oinarrizko eskubideen zapalkuntza jasaten duten bi mugimenduen arteko elkarlana, feminismoarena eta euskalgintzarena, ezinbesteko ikusten dute hizlariak. Baina baieztapen horrek ere badi-tu zehaztu beharrekoak eta argitu beharrekoak ere.

Konpartitzea, "onerako"

Estrategiak konpartitzerakoan, batzuk konpartitu beharko dira eta beste batzuk ez, Ainhoa Beolaren esanetan. Izan ere, "nork bere bideei, bere espazioei eutsi behar die, betiere oinarrizko diagnostiko bat partekatuta", dio. Neurri horretan, eskubide apurketaren aurrean sare lana eta elkarlana azpimarratzen ditu Beolak, baina, haren ustez, "kolektiboaren borroka gauzatu beharko da estrategiak errebisatuz eta interes estrategikoen arabera aliantza puntualak edo egonkorak bilatuz".

Hartzeakoak feminismitik

Jakin-eko zuzendari Lorea Agirre ere bat dator "artikulazioa beharrezko" den horrekin. Uste du, gainera, hizkuntzaren berreskurapenaren diskurtsoak asko har dezakeela feminismitik: "Feminismoak praktikaz harago diskurtsoa egin du eta hori oso garrantzitsua da. Pertzepzioa hizkuntzaz gaizki hitz egitea zuzenagoa dela, feminismoaz gaizki hitz egitea baino, eta hori behar bada da feminismoaren borroka une honetan indartsuago edo bisibleago delako. Hizkuntzarena, behar bada, lekua galtzen ari da". Ez hori bakarrik; izan ere, Agirreren esanetan, >

> feminismitik ikas daitekeen beste lezio bat da ez dela egon behar zain gizarte osoaren kontzientzia lortzera, baizik eta gizartearen zati batek izan dezakeen kontzientzia hori praktika politikora eraman behar dela.

Garai estrategikoan

Idurre Eskisabelendako, momentu interesgarria bizitzen ari da Euskal Herria, uste baitu euskaltzaletasunaren sektore bat eta feminismoaren sektore bat, behintzat, ari direla dagoeneko estrategiak konpartitzen. "Truditzen zait feminismoak bizi duela loraldi bat, duela hamar urte pentsaezina zena; izan ere, alde askotatik hasi dira ekarpenak egiten". Feminismoak berak herri mugimendu gisa egin duen bidetari zor dio loraldia, Eskisabelen ustez, eta bestetik, haren esanetan, "akademiatik ere bada toz ekarpenak".

Hizkuntzaren eztabaidari dago-kionez, bestetik, "birpentsatze garai baten" dago euskalgintza. "Orain arteko formulazioak zalantzan jartzen ari dira. Euskalduna zer den, zer euskaltzale, abertzale, nazio, estatu... Kontzeptu berriak hasi zaizkigu etortzen eta dena birformulatu ari da", dio Eskisabelek. Alde horretatik iritzi dio puntu interesgarrian dagoela Euskal Herria. "Euskalgintzak diskurtsoa berrabiatu beharra ikusten dut eta alde horretatik feminismoaren diskurtsoa baliagarriagoa izan daiteke".

Jabekuntzarantz

Feminismoaren jabekuntza eskolek emakumeen jabekuntza bultzatzen dute. Emakume kolektiboaren autoestimua ukituta egonik, formazio eskolak jasotzea dute eskolek helburu. Euskararen jabekuntza eskola beharrik ikusten ote duten galdetuta, bat datoz Eskisabel, Beola eta Agirre. "Zalantza barrik, bai", diote. Izan ere, "empoderatu behar da euskara, empoderatu behar gara feministak", dio politikari Ainhoa Beolak. Eta gaineratu du: "Baldintzak aktibatu behar ditugu. Izan ere, empoderatuak egon gaitezke, makina bat zailtasunekin. Hainbat urte eman ditugu euskara ikasten, baina gero ez dugu nola aritu edo aritzen garenean eraso segituan etortzen zaigu. Berdin feminismoarekin. Baldintza objektiboak aktibatzen ez badira gure erabakitze gaitasuna gauzatzeko, makina bat arazorekin egingo dugu topo".

Idurre Eskisabel EHUko irakasleak honako hau dio proposamenaren aurrean: "Feminismoak proposatzen du ahalmentze eta boteretez prozesu bat eta horixe da euskaldunok egiten duguna. Jabetu, ahalmenu, boteretu eta eskubideak lortu".

Euskaltzalearen hautua

Lorea Agirrerren ustez, oxigenoa hartu ahal izateko lekua edukitzea beharrezkoa da. Izan ere, "euskal hiztunok jakin behar dugu beti izango garela gure bizialdian gutxienez, hiztun gisa ez normalizatuak, minorizatuak, menpekoak". Eta puntu honetan, hautua egitearen garrantzia nabarmentzen du: "Hautatu egin beharko dugu, euskaraz egitea hautatu, umeak



Goienako kamera, jardunaldia grabatzen. | JAGOBA DOMINGO

Mahai-ingurua Goiena telebistan

Emakume Txokoak, Emunek, Ekin Emakumeek eta Goienak elkarlanean antolatutako mahai-ingurua osorik grabatu zuen Goiena telebistak. Bada, hori ikusteko aukera egongo da datorren egubakoitzean eta zapatuan, azaroaren 15ean eta 16an, hain zuzen ere. Hala, feminismoaren eta euskalgintzaren uztartzearen gaineko iritzi guztiak entzun eta ikusi ahal izango dituzue datorren zapatuan, 16:00etan, eta domekan, berriz, 21:30ean.

euskaraz matrikulatzea hautatu; ekosistema ez baita euskalduna. Eta umeak kontzientziatu behar ditugu horretaz. Bigarren mailako izango zara euskal hiztun zaren heinean". Hizkuntzaren egoera minorizatu eta menpeko horrek zer ikusi handia du emakume izatearekin. Izan ere, Agirrerren hitzetan, "emakume izanda, bizitzako hainbat unetan egoera deserosoetan egongo zara".

Legeak, "hankamotz"

Interes politikorik ez dago gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna gauzatu ahal izateko. Berdintasun legea EAEn hankamotz eta euskararen legea erabat zaharkituta daude, Ainhoa Beolaren esanetan: "Baten eta bestean EAEn oinarri legal bat bada, baina maila horretan instituzioetan egin dena ez da inolaz ere

nahikoa". Hori horrela, gizarte eragileen egitekoaren garrantzia azpimarratzen du. "Gizarte eragileek presioa egin behar dute alde horretatik".

Lorea Agirrerren ustez, sarri beto bat dira legeak; izan ere, dio: "Legeak noraino? Eta izaten da adostasuneraino, ez gehiago. Hori sarritan beto bat da, injustizia bat". Eta gaineratu du: "Erakundeetan ere, hizkuntza eta genero berdintasuna ahizpa txikiak dira".

Idurre Eskisabelen hitzetan, politika instituzionalek berebiziko garrantzia dute eta hori nabarmena da, batez ere, berdintasunaren kasuan.

Egoeraren neurgailuak

"Euskararen erabilera neurtzeko baliabideak baditugu, euskararen aurkako erasoak salatze guneak ere bai, eta feminismoari dagoz-

kionak neurtzekoak ez ditugu", dio Ainhoa Beolak, termometroaren gainean galdetuta. Hala ere, unibertitate eta ikerketa alorretik egiten dira azterketak feminismoaren bilakaera neurtzen dutenak. "Egunerokoan neur daitezkeen gauzak dira, gainera. Este-reotipoena, esaterako, edo horien mantentzea bideojokoetan, iragarkietan, iritzi emileen artean eta iruditegi orokorrari dagokionez. Noizean behin egiten dira halako neurketak eta lagundu beharko ligukete neurri zuzentzaileak martxan ipintzeko". Feminismoaren neurgailuak bakarrik ez; izan ere, Beolaren hitzetan, neomatxismoak ere neurtu beharko lirarteke. "Horiei aurre egiteko estrategia eta diskurtsoak garatu behar ditugu eta horretarako garrantzitsua da neurketa horiek egitea".

Kuotak eta diskriminazio positiboa sistemaren kudeaketan

Kuoten gaia pil-pilean da gizartearen, bereziki emakumeen lanpostuekin lotuta datorrenean. Eztabaida eta kontrako iritzi asko eragiten dituen gai horretaz ere eman dituzte argibideak solasaldiko hiru emakume protagonistek. Galdera, baina, hizkuntza arloa bideratutakoa da. Hizkuntzaren alorrean kuotak ipini beharko lirarteke?

Kazetari eta EHUko irakasle Idurre Eskisabelek inposizioaren maltzurkeria hartu du berbagai. "Emakume bat hautatua denean kargu publiko baterako, berehala etortzen zaigu burura kuota. Emakume izateak eramango ote zuen horretara? Pentsatzen dugu. Gizonezkoekin, aldiz, ez zaigu inoiz horrelakorik gertatzen. Eta zer esanik ez kuoten kontua hizkuntzara eroaten dugunean. Sinistarazten digute euskal hiztunek bete beharko lituzketen postuak aldarrikatzen ditugunean inposatzen ari garela, euskara bera denean etengabe inposizioa jasaten dabilena.

Ainhoa Beolaren esanetan, kuotak ezinbestekoak dira "momentu jakin batzuetan presentzia batzuk bermatzeko". Haren ustez, baina, neurriak epe motzerakoak behar du izan, "bestela kontrako eragina izan dezake". Neurri horiek epe motzerakoak izango badira, baina, beste neurri batzuek lagunduak egon behar dute. Gaineratu du, kuoten kontu horretan, euskalduna izateak ez duela esan gura euskaltzale izango denik eta emakumei dagokienez berdin, emakume izateak ez duelako esan gura ezinbestez jarrera feminista bat izan behar duenik: "Hainbatetan kontrakoa da, gainera", dio.

"Kuotei dagokionez, egin ezin dena da ignorantziaren apologia", dio Lorea Agirrek. "Ni printzipioz kuoten aldekoa naiz" gaineratu du; izan ere, kuotek gutxienez balio dute paisaia aldatzeko. Edozelan ere, arazoa ez da zenbakia, baizik eta ideologia, bai hizkuntzaren kasuan eta baita feminismoarenean ere.

"Inposatzaile sentiarazten gaituzte, euskara bera denean inposizioa jasaten duena"

IDURRE ESKISABEL | KAZETARIA

"Kuotak beharrezkoak dira momentu jakin batzuetan presentzia batzuk bermatzeko"

AINHOA BEOLA | POLITIKARIA

"Printzipioz kuoten aldekoa naiz; balio dutelako, gutxienez, paisaia aldatzeko"

LOREA AGIRRE | JAKIN-EKO ZUZENDARIA

ESANAK



"Euskaltzale naiz feminista naizelako eta alderantziz"

"Euskara ere azpiratutako emakumeen tokian legoke"

IDURRE ESKISABEL | EHU-KO IRAKASLEA



"Harrigarria da nola ez dugun elkarlan bat errotu"

"Empoderatu behar dira euskara eta feminismoa"

AINHOA BEOLA | POLITIKARIA



"Justizia sozialaren aldarri dira borrokak"

"Hizkuntza eta genero berdintasuna ahizpak dira"

LOREA AGIRRE | JAKIN-EKO ZUZENDARIA

Oier Aldai | Etxe-Laneko gerentea

"Fagorren zerbitzu tekniko ofiziala izaten jarraitzen dugu"

Zerbitzu tekniko eta ostalaritzako instalazioak dira Etxe-Lan kooperatibaren lan jardunak: Fagor Etxetresnen itxierak aldaketak ekarri baditu ere, jarraitzen dute Fagorri zerbitzu tekniko ematen

Aurkeztu Etxe-Lan kooperatiba. Zertara dedikatzen zarete? Zenbat urtedaramazuelanean?

35 urtetik gora daromatza lanean Etxe-Lanek, bi zerbitzu mota eskaintzen. Batetik, eskaintzen du elektrotresnen zerbitzu tekniko bat bi arlotan: linea zuria delakoan –ontzi-garbigailuak, garbigailuak, hozkailuak...– eta konfort sailean –galdarak, ur bero-gailuak, aire girotua...–. Fagor Industrialeko banatzaile ofizialak gara. Bestetik, ostalaritzako instalazioak ere egiten ditugu.

Fagor Etxetresnen zerbitzu tekniko ofiziala izan zarete hasieratik. Nola eragin du lantegiaren itxierak zuen jarduneari?

Urte zaila izan da. Fagorren zerbitzu tekniko eskaini izan dugu eta horrekin lana bermatuta genuen. Egun batetik bestera aldatu zen dena. Ez genekien ezer, likidazioa egin behar zela bage-nekien, baina nola egingo ziren gauzak ez. Une hartan gure erabakia izan zen berdin jarraitzea; esan nahi dut, bermeak ematen, horiek gure gain hartzen, konponketak egiten, alegia, stockean zeuden piezekin gauzak aurrera ateratzen.

Gero, gauzak argitzen joan ziren.

Konkurto-administratzaileak argi zeukan Fagor marka likidatzeko beharreko zuela zerbitzu tekniko

bat atzean; marka bat saltzeko beharrezkoa baita zerbitzu tekniko izatea.

Gaur egun, nola daude gauzak?

Sareteknika sortu da orain. Lehen Fagor Etxetresnetako SAT zentralako langileek sortutako kooperatiba mistoa. Proiektu berri bat da eta CNA taldearekin akordio batera iritsi dira Fagor Etxetresnen zerbitzu tekniko kudeatzeko estatu mailan. Fagorretik independentea, MCCn integratua, kooperatiba misto bat da. Zerbitzu tekniko enpresa global bat da, Fagor markaren zerbitzu tekniko ofizialaren euskarria izango dena, eta ez hori bakarrik; izan ere, marka gehiago landuko ditu. Grupo CNArekin akordio batera iritsita, Sareteknikak orain arte bezala jarraituko du Fagorri zerbitzu tekniko ematen.

Eta Etxe-Lan, Sareteknika enpresa berriaren barruan legoke?

Estruktura horretan integratuta dago Etxe-Lan, Sareteknika barruan.

Hortaz, horrek esan gura du orain arte moduan jarraituko duzuela Fagor markaren zerbitzu tekniko eskaintzen.

Hori da ideia. Fagorreko zerbitzu tekniko ofiziala izaten jarraituko dugu, orain arteko jarduerarekin jarraituz. Dena dago berdin. Lehengo jende berdinak jarraituko du ematen zerbitzu hori. Betikoak

gara, era berdinean lan egingo dugu, erreminta berriekin. Deseatzen gaude Fagor berriz ere merkatura ateratzeko.

Beraz, etxean Fagor markako hozkailu bat duena lasai egoteko moduan da, arazoren bat izango balu, konpontzeko arazorik ez legokeelako.

Hori da. Bermeak izaten jarraitzen dugu eta matxura guztiak konpontzeko baliabideak ere baditugu. Azpiegiturak, ordezko piezak, guk dena dugu; beraz, duela hamar urte erositako Fagor etxetresna bat konpontzeko berme guztiak ditugu.

Beraz, mezua da asistentzia teknikoari dagokionez denak berdin jarraitzen duela.

Bai. Lehen bezala lanean jarraitzen dugula. 24 ordutan ematen dugu zerbitzua; azkarra eta profesionala izaten jarraitzen du Etxe-Lanek. **Zein eremu geografikotan lan egiten duzue?**

Gure eremua Gipuzkoa da. Batez ere, Debagoiengan, Debabarrenean eta Urolan lan egiten dugu.

Nola egingo dio aurre Etxe-Lanek etorkizunari? Bide berriak zabalduko ditu?

Egoerak bultzatuta, Fagorren itxierak-eta, konponketa zerbitzua beste marka batzuetara zabaldu behar izan dugu. Horrekin bilatzen duguna da Fagorren itxierarekin izan dugun galera beste marka batzuei zerbitzua emanez berreskuratzea.



Oier Aldai, Etxe-Lan kooperatibako gerentea.

Zein marka dira horiek?

Linea zuria delakoan, alegia, ontzi-garbigailuak, garbigailuak, hozkailuak...Fagor eta Candy markekin lan egingo dugu. Konfortean, berriz, Fagor nola iaz ez zen egon merkatuan eta aurtan ere ez –CNAk badu proiektu bat esku artean eta ikusi behar datoren urtean zer gertatzen den,

"Beste marka batzuetara zabaldu dugu zerbitzua"

"Sareteknika enpresan integratuta dago Etxe-Lan"

baina, hasiera baten, aurtan ez da merkatuan egongo-, apustua egin dugu beste bi markaren alde: Aristonen eta Grupo Ferroliren alde. Azken finean, Fagorrek utzi duen hutsune hori beteko dugu marka horiek. Marka askoren eskaerak izan ditugu, baina guk bi horien aldeko apustua egin dugu.

Garrantzitsua da esatea, baina, etxetresnei ez ezik, Fagor markako bero-gailuei ere zerbitzua ematen jarraituko duzuela.

Hori argi geldi dadila. Fagorrek ekoiztu duen eta ekoiztuko duen hori gure gain hartzeko ez dugu arazorik. Berdin-berdin jarraituko dugu konfortean ere Fagorri zerbitzua ematen, baina, une honetan berriak egiten ez dabilenez, guk ere zerbitzua zabaldu dugu. Aurrera begira, konfortean CNAREN proiektuak aurrera egiten badu, horrekin egingo dugu aurrera, baina bien bitartean aipatutako markekin jarraituko dugu lanean.

Etxe-Lan

ZERBITZU
TEKNIKO OFIZIALA
www.etxe-lan.com
943 79 89 97





Agintariak eta Lazpiur enpresako zuzendariak, talde argazkian. | IMANOL SORIANO



Lazpiur enpresako langile taldea. | I.S.

"Euskal enpresa txikien sinboloa da Lazpiur"

- ▶ Iñigo Urkullu lehendakariak eredugarritzat jarri du Bergarako Lazpiur
- ▶ Agintariekin, enpresariekin eta langileekin ospatu dituzte 100 urteak

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

"Munduan zehar zabaltzeko borrokan ari den enpresa txikien sinboloa da Lazpiur. Egun, bere ekoizpenaren bi heren baino gehiago kanpoan saltzen du. Sinboloa esan dut, eta eredu ere bada, euskal enpresa guztientzako eredu". Berba horiek erabili zituen Iñigo Urkullu lehendakariak Bergarako enpresaren 100. urteurrenaren harira bertara egindako bisitan, eguaztenean.

"Poztekoa da oso, bergarar guztiontzat, gaur ospatzera etorri garen urteurrena. Familia negozio batetik abiatuta, munduan



ALMACENES ARRASATE

MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabeteen interes barik.



BERME
2
URTE

1000 b/min
6 Kg

A⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA 3TS-853

275 €



BERME
2
URTE

1200 b/min
7 Kg

A⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA VTO-720

330 €



BERME
2
URTE

1200 b/min
7 Kg

A⁺⁺⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA WM12E467EE

360 €



BERME
2
URTE

1200 b/min
8 Kg

A⁺⁺⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA WM12Q468EE

425 €



BERME
2
URTE

1400 b/min
8 Kg

A⁺⁺⁺ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA L-73486FL

435 €



BERME
2
URTE

144
x
55
x
60

A⁺ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA SFES-2420

275 €



BERME
2
URTE

187
x
60
x
60

A⁺ Saikapen energetikoa

HOZKAILUA SFCNF 18520

399 €




BERME
2
URTE

A⁺ Saikapen energetikoa

ONTZI-GARBITZAILEA
ESF6521LOW

390 €



BERME
2
URTE

INDUKZIO PLAKA
EHH-6232FOK

360 €



LABE PIROLITIKOA
EEC2400BOX

360 €



BERME
2
URTE

INDUKZIO PLAKA
EH-631BL18E

375 €



LABE PIROLITIKOA
HB74AR521E

460 €

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3an.

Eskaintza baliagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Candyko arduradunak "gezurretan" ibili direla salatu dute langileek

Eusko Legebiltzarrera eramango dituzte gaur (egubakoitza) euren eskaerak eta protesta; eta etzi, berriz, Behobia-Donostia lasterketara

UBANE MADERA | BERGARA

Haserre. Amorratuta. Eta traizionatuta. Horrelaxe sentitzen dira Candyko langileak Bergarako planta itxiko dela jakin eta ondorengo egunetan. "Bost urte EREan ibili gara. Beti esan izan digute EREan egon bitartean hobera egingo duela egoerak. Eta hori sinistu egin dugu. Baina azken urte honetan gezurretan ibili dira. Batzuk zerbait susmatzen hasi ziren. Izan ere, urte normaletan ibili izan gara bi aste lanean eta beste bi aste EREan. Eta aurten, berriz, jarraian egin dugu lan. Eta orain konturatu gara euren helburua hori zela, makinak egin eta gero itxi. Eta orain gu, ba, gure adinarekin ja etxean geratu behar dugu", dio etsipenez Mertxe Arrietak, 40 urte pasa Candy lanean ibili denak.

"Fagorrena ere esan ziguten, hark utzitakoa guk hartzeko aukera zegoela... eta beti dago esperantza. Baina ez genuke sekula pentsatuko horrela bukatuko genuenik. Egun batetik bestera etxera, bizitza osoa bertan lanean ibili ostean. Gu etxean geratuko gara, erretiroa bertan dugu-eta. Baina gazteak...", gehitu du Mari Karmen Iburguren, hark ere 40 urte pasa bertan egindakoak.

Gazte horietako bat da Jon Gaztelu, 33 urteko bergararra. 15 urte eman ditu Candy. Hark ere salatu du Candyko ordezkariei jarrera: "Adarra jo digute. Azken egunera arte gezurrak esaten ibili dira. Guk beti izan dugu esperantza. Baina, Txinaren kontuarekin batez ere, azken urtera arte jo digute adarra. Hasieran, esan ziguten Asiarrak bakarrik zela; gero, gutxi batzuk egingo zituztela... eta begira... Ni gaztea naiz, eta egingo dut zerbait. Beste lankide batzuen egoerak kezkatzen nau gehiago. Kargak dituzte..."

Etorkizuna beltz ikusten duten horietako bat da, hain justu, Xabi Lopez, 43 urteko bergararra, Candy 16 urte egindakoa. "Inpotentzia" handia sentitzen duela aitortu du. Eta geroa beltz ikusten duela: "Egoerarengatik eta nire adinarengatik".

Gaur, baldintzen berri

"Amorratuta gaude. Haserre. Oraindik ez dugu sinesten lanea joan behar ez dugunik. Horrenbeste urteren ostean horrela bukatzea... Italiarrak etorri zirenetik esplotatu egin gaituzte. Urte mordoan soldatak izoztuta... 1992tik hona geroago eta okerrago ibili gara. Eta orain erretiratu egin behar dugu, baina ez dakigu baldintzak zeintzuk izango diren. Badiote negoziatzeko gertu daudela, baina, era berean, oso abokatu onekin



Egunero egin dituzte mobilizazioak; argazkian, Bergarako plazakoa. | U.M.



Ibarguren, Arrieta, Barrenetxea, Mendibil eta Otaño langile ohiak. | U.M.



Jon Gaztelu, lehendakariari komunikatua ematen. | MAIALEN TORRES

Lehendakariari babesa eskatu diote

Candyri jarraipena ematea, lanpostuak mantentzea eta irtenbidea bilatzeko "inplikazioa" eskatu diete Candyko langileek lehendakariari eta Tapia sailburuari, haiek Lazpiurri egin dioten bisita aprobetxatuz. Lehendakariak erantzun die eskumenak badituztela, baina ez "enpresa bateko jabeek erabakia hartzen dutenean". Hala ere, iristen diren tokiraino laguntzeko ahalegina egingo dutela ziurtatu diete.

etorri dira, eta horrek susmo txarra eragiten digu", laburbildu dituzte Mari Karmen Barrenetxeak eta Maria Jesus Mendibilek langileen kezka, jakinda gaur, egubakoitza, hitzordua dutela enpresa batzordeko ordezkariek Candyko ordezkariekin (11:30ean). Enpresa ixteko arrazoiak zeintzuk diren jakinaraziko dituzte. Eta langileek orduantxe jakingo dituzte, baita ere, zein baldintzatan geratzen diren.

Mobilizazio gehiago

Bestalde, gaur, egubakoitza, Gasteizen beste hitzordu bat dute: Legebiltzarrean industria politiken gaineko osoko bilkura egingo dute, eta bertan, besteak

beste, Candyrekin lotutako mozioa aztertu behar dute. Hala, horren bueltan bertaratuko da 15 bat laguneko ordezkaritza Legebiltzar kanpora, eta, besteak beste, Cablenorreko langileekin batera kale agerraldia egingo dute. Horrez gainera, Candyko beste hiru langile Legebiltzar barrura sartuko dira mozioa eztabaidatu bitartean. Hori guztia egingo dute Candy ez itxi dioten kamisetekin jantzita.

Eta hala jantzita ikusiko dituzte, baita ere, etzi, domeka, Donostian. Behobia-Donostia lasterketa baliatuko dute Bergarako fabrikaren itxiera salatzen. 08:30ean aterako dira udalerritik eta 15:00 aldera bueltatuko dira.



Bikuña, Gallastegi, Okina eta Iza. | I.S.



Miguel Lazpiur hitzaldian. | I.S.

zehir erreferente den enpresa bat sortzera iritsi zarete. Egoera zailtara egokitzeko eta berrikuntzarako grinarik ez duzue falta". Jaione Isazelaia Bergarako alka-teak ere ez zuen zalantzarik izan Bergarako enpresaren erreferentzia nabarmentzeko orduan.

Eta ildo beretik jo zuen Martin Garitanok, Gipuzkoako diputatu nagusiak: "Lazpiur eredu-garria dela esan daitekeela uste dut. Konpromisoa erosotasunaren aurretik daukaten eredu. Bada-kizue ni ere Bergarako naizela eta ondo ederki dakit Lazpiurrek 100 urte hauetan izan dituen gora-behera guztien gainetik, lurraldearekin eta gure giza ingurumenarekin konpromiso handia erakutsi duela". Diputatu nagusiak gaineratu zuen Lazpiur bezalako enpresei esker Gipuzkoa inguruko lurralderik lehiakorrena dela. Euren konpromisoa tokian tokiko garapena lortzeko bertako ekintzaile, sortzaile eta langileekin egiten dela.

"Segi aurrera"

Hain justu, azken horiendako, langileendako izan ziren Miguel Lazpiur ugazabak urteurreneko ospakizun ekitaldia irekitzeko erabilitako berbak. Zuzendariak orain arte bertan lan egin dutenak eta gaur egun lanean dihardutenak zoriondu zituen: "Zuei, gaur hemen lanean zaudeten guztioi, zorionak zuen lan onagatik. Zuei eta lehenengo lanean egon diren guztiei mila esker. Zuei esker gaude gaur hemen eta etorkizunean ere beste batzuek jarraituko dute Bergara, Euskadi eta mundu osorako aberastasuna lortzen. Segi aurrera!".

Lazpiur enpresako zuzendariak atzera begiratu eta gogora ekarri zuen, baita ere, zela familiaren enpresa hasi zen oinetakoak egiten, duela 100 urte; gero iltzeak egitera pasa zirela eta azken hamarkadetan goi mailako teknologiko eta forjako tresnen diseinu eta fabrikazioan dihardutela.

Agintari ugari

150 gonbidatu baino gehiago elkar-tu ziren Bergarako fabrikari urteurrena ospatzeko ekitaldian.

Iñigo Urkullu lehendakaria, Martin Garitano diputatu nagusia, Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko

presidentea, Bergarako alkate Jaione Isazelaia eta Arantza Tapia Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua, besteak beste.

Adegiko lehendakari Pello Gibelalde eta Jose Miguel Aiertza idazkaria eta Confebaskeko lehendakari ohi Baltasar Errasti eta Roman Knörr eta idazkari ohi izandako Jose Zubia eta Nuria Lopez de Gereñu ere bai.

Aurrekuarekin hasi zuten ekitaldia. Hitzaldien txanda etorri zen gero. Enpresaren gaineko bideoa ikusi zuten bertaratutakoek. Eta ekitaldia borobiltzeko, enpresaren instalazioak erakutsi zizkieten bisitariei.

Haiekin guztiekin batera, baina, gaur egun Lazpiur enpresan diharduten 112 langileek ere parte hartu zuten ospakizunetan. Hain justu, haiei eta haien senideei begira antolatu dute urteurrenari dagozkion ospakizunak borobiltzeko ekitaldia, bihar, zapatua, egingo dutena. Iragarri dute sorpresaz betetako eguna izango dela haiendako.

Poza batetik, etsipena bestetik

Bestalde, deigarria da eguztenak txanponaren bi aldeak erakutsi zituela Bergaran. Poza eta aurrera segitzeko ilusioa, betidanik Bergaran egon den eta bertan segituko duen Lazpiurreko langileen eta ugazaben artean. Tristura eta etsipena, berriz, multinazional baten esku geratu den eta deslokalizatu egingo dela iragarri duen Candy enpresako langileen artean.





Arizmendi Ikastolako neska-mutikoak Zuberoako ikastolari elkartasuna adierazten. | ARIZMENDI IKASTOLA

Debagoieneko ikastolak, Ziburuko ikastolarekin bat

Biharko manifestazioan parte hartzeaz gainera, kros solidario eta jendetsua antolatzen dihardute, bailaran

KOMUNITATEA | DEBAGOIENA

Aranzadi, Arizmendi eta Txantxiku ikastolek bihar, zapatua, Ziburuko Kaskarotenea ikastolaren alde egingo den manifestazioa joateko autobusa antolatu dute, eta elkartasuna adieraziz herritarrek animatu nahi dituzte bertara joan daitezen. Euskal Herri mailan deitu den manifestazioa 16:00etan izango da, Ziburun.

Kontrako neurriak gogortu

Bi aste hauetan manifestazioaren aldeko babes keinuak ari dira iristen zenbait lekutatik. Joan den ostiralean, esaterako, Ikastolaren Etxean hainbat euskal eragilek euren atxikimendua azaldu zuten.

Azken egunetan jakin da, gainera, neurri gogorragoak hartu dituztela Ipar Euskal Herriko

ikastolaren aurka. Hala nola lehenagotik ezarrita zuten eguneko 100 euroko isuna 400era handitu diote eta badira egun batzuk argindar eta ur zerbitzu barik utzi dituela bertako auzapezak.

Elkartasun ekintzak

Bestalde, irailean gatazka horren berri izan zutenetik, Arizmendi Ikastolakoak hainbat ekintza egi-

ten hasi ziren Zuberoako ikastolari elkartasuna adierazteko.

Gurasoen eta ikasleen ekimenez sortu izan dira horietako batzuk: Maritxu Kajoi egunean Arrasaten loreak saltzen ibili ziren neska-mutikoak, eta batutako dirua Kaskarotenea ikastolara bideratu zuten; Goikobalu erromeria egunean (Arrasaten) gozokiak saldu zituzten, San Migelako azokan parte hartu zuten...

Egin diren eta egingo diren beste ekimen batzuk, berriz, ikastolako forotik bertatik bideratu dituzte. Azken horien artean dago, esaterako, azaroaren 28ra begira antolatzen ari diren krosa, eskualde mailako kros solidarioa, hain zuzen ere.

Arizmendi Ikastolarekin batera Aranzadi eta Txantxiku ikastolak, ikasleekin lehenengo eta herritarrekin ondoren, herri lasterketa antolatuko dute bost herritan: Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin. Hala, krosean laguntzeko, herrietan batzordeak sortu dira.

Ziburutik Debagoienera

Bestetik, Debagoieneko ikastolako ikasleekin azaroan zehar Zuberoako Kaskarotenea ikastolaren gaia eskola orduetan landuko da, horretarako hainbat euskarri prestatu direlarik (Haur Hezkuntzako ikasleentzat ipuina, LHrako eta DBHrako Power Point aurkezpena...).

Eta horrez gainera, eguna girotzeko (azaroaren 28a) ikastoletako ikasle nagusiek txapak egingo dituzte, pegatinak... umeentzako jolasak eta tailerrak ere egongo dira, eta behin betiko egitaraua osatzear badago ere, Laida Muxika Zuberoako ikastolako zuzendaria eta bertan ikasten ari diren haurrak eta haien gurasoak Arrasatera etorririko dira kros solidarioan parte hartzera.

Bihar, "5.000 aterki baino gehiago" elkartuko dira Zurriolan

Eskualdeko ordezkari zabalak izango da bihar, zapatua, Donostiako Zurriola hondartzan egingo den mosaiko erraldoan. Autobusez zein auto partikularrez joango dira debagoiendarrak bertara. Berez, 12:00etan da Gure Esku Dago ekimenaren hitzordua, mosaikoa egitekoa. Baina 11:00etarako dena gertu izango dela uste dute, eta "horrela bada, ikusgarria izango da 5.000 aterki baino gehiago hondarretan sartuta ikustea", diote antolatzaileek. Behin mosaikoa eginda, 12:45erako aurreikusitako amaiera, Angel Oiarbideren hitzaldi motz batek lagunduta.

Asteburuan ere lanean segituko dute AP-1eko Lezarriko tunelean

Oraingo asteburuan eta datorren asteko egun gehienetan bypassarekin segituko du AP-1 autobideak Bergara eta Eibar arteko tartean. Bestela esanda, bide bakarretik bideratuko dute zirkulazioa, Lezarriko tunelak itxita segituko du-eta, asteburuan barne. Gipuzkoako Foru Aldunditik jakinarazitakoaren arabera, datorren astearen amaieran bukatuko dituzte tunela egonkortzeko lanak.

Astelehenaz geroztik itxita dago AP-1 autobideko tunel hori, lur-jausi bat gertatu zelako domeka goizaldean. Abuztuaren ere gauza bera gertatu zen puntu berean, eta astebetetz itxita egon zen.

Diputazioa, gizarte politikak nabarmendu guran

2015erako aurrekontu proiektuan 10 milioi euro gehiago bideratu gura ditu gizarte politiketara

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA


Gipuzkoako "herritarren beharrei egokitutako aurrekontu eragin-korra" aurkeztu du Foru Aldundiak. Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusiak aurkeztu duen aurrekontuaren ia erdia (%48) gizarte politiketara bideratuko da 2015ean. Bestetik, Foru Aldundiak aurrekontu proiektuaren bidez "ingurune emankorra sortu eta gipuzkoarren bizi kalitatea" hobetu nahi du.

Aurrekontu proposamen osoa 4.373,86 milioi euro da, baina Diputazioak kudeaketarako 705 milioi euro izango ditu. Horrez gain, zenbait inbertsio aurrekusi ditu, bere eskumenei lotuta, lurraldearen ekonomian "eragin positiboa" izango dutelakoan. Kudeaketako aurrekontu arrunta %5,08 handiagoa izango da.

Aurrekontua aurrera ateratzeko, hala ere, orain, Batzar Nagusietan ordezkari dagoen oposizioko beste indar politikoren batekin, gutxienez, negoziatu beharko du Bilduk, ez daukalako gehiengoa Batzar Nagusietan. Aralarrena bai, baina EAJren edo PSE-EEren babesak izan du aurreko urteetan. Negoziazio prozesua irekitzen da, hortaz, abendu inguruan, behin betiko, 2015ko foru aurrekontua onar dezaten Batzar Nagusiek.

Garraioa, "izarretako bat"

"Aurrekontu hauek lantzerakoan helburu garbi bat izan du foru gobernu honek: Gipuzkoaren eta bertako herritarren beharrei erantzuteko legealdiko aurrekonturik eraginkorrenak izan daitezela. Hori izan da gobernu honen



Aurrekontuaren banaketa, sailez sail. | GOIENA

konpromisoa", adierazi du Martin Garitano diputatu nagusiak 2015eko aurrekontu proiektuaren aurkezpenean.

Garraio publikoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiaren legealdiko azkeneko aurrekontuaren "izarretako bat". Mugikortasun "sostengarria" bultzatu

nahi du Diputazioak. 7 milioi euro gehiago bideratuko ditu horretarako. 56 herritan galdetu diete herritarrei ze garraio zerbitzu nahi duten eta hori aintzat hartuta hobetu nahi dute zerbitzua. %36ko inbertsio igoera planteatzen du horretarako Larraitz Ugarteren departamentuak. Gaur

egun Lurraldebusek 15 milioi kilometroko zerbitzua ematen du eta, aurrerantzean, 21 milioiokoa izatea proposatzen du.

Bestetik, Zarautzen saihesbidea egingo dute eta Deskargako obrari amaiera emango zaio 2015ean. Hori guztia, "bidegorri sarearen eta bizikletaren aldeko konpromisoa berretsiz".

Bestalde, izarte politiketarako 10 milioi euro gehiago izango dira aurrekontuan; horrenbestez, sailez sail, hazkunde handiena izan duena da. Mendekotasun arina duten 5.700 gipuzkoarri diru laguntza jasotzeko eskubidea aitortuko zaie, Ander Rodriguez diputatuak dioenez. Zerbitzuen sarean 106 plaza berri jarriko dituzte, itxaron-zerrenda murrizteko. Azkenik, Kabia erakunde autonomoa abian jarriko dute 2015ean, udal egoitzak kudeatzeko.

Ogasun Departamentuak, bestalde, %5eko hazkundea izango du, bereziki, "iruzurraren aurkako neurrietan sakontzeko".

Orokorrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontu proiektuaren bidez "ingurune emankorra sortu eta gipuzkoarren bizi kalitatea hobetu" nahi du.

Xabier Barandiaran | Soziologoa eta EAJren GBBko kidea

"Ez da ona herritarren haserrea aprobetxatzea mugimendu populistek edo totalitaristek"

- ▶ Gipuzko Buru Batzarreko kidea Eskoriatzan izan da egungo egoera politikoaz berbetan
- ▶ "Gizarte aurreratu demokratikoetan esperientziarik gabeko aukera da Podemos"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Ustelkeria kasuen, krisiaren eraginaren edota bistan dauden udal eta foru hauteskudeen gainean dihardu Xabier Barandiaran (Ataun, 1969) irakasle, soziologo eta EAJren Gipuzko Buru Batzarreko kidea. Eskoriatzan izan da asteon, egoera politikoaz berbetan.

Hauteskudeen atarian gaude, eta horrek egiten du berezia egoera. Bestetik, aurrekontuak onartzekotan dira une honetan erakundeetan, langabeziak gora egin du beste behin, krisia gordin-gordin, ustelkeria kasuak nonahi...

Giro nahasia. Halako trantsizio erraldoi baten aurrean egongo bagina bezala gaude. Krisi ekonomikoa ez da ohikoa; paradigma aldaketa baten aurrean gaude eta horrek aldatu egingo gaitu. Ekonomiaren joko zelaia eta egiteko moduak erabat aldatzen daude. Ez da ekonomia krisi soila, paradigma aldaketa baizik. Horrek gauzak birpentsatzera garamatza. **Euskal Herrian ez da azaleratu ustelkeria kasu nabarmenik, Madril, Valentzian edo beste hainbat tokitan ez bezala... Zergatik?**

Orokorrean, gizarteak eta komunitateak sistema politikoaren kontrol handiagoa daukatelako. Eta horrek eragina dauka herrigintzan dihardutenen jokabide indibidualan eta baita jokabide kolektiboetan ere. Gure kultura politikoa ezberdina dela uste dut. Halere, ezin dezakegu esan harrokeriaz hemen oso txintxoak garenik. Ikusi behar da ustelkeria kasuen arrazoiak zeintzuk diren. Uste dut Espainian herritarren eta politikarien artean alde handia dagoela. Klase politikoa endogamiko bihurtu da, herriarekin eta herritarrekin harremanik ez daukana. Horrek dakar jokabide indibidual ez oso etikoen ugaltzea. **Gizarte zibil indartsuagoa daukagu hemen?**

Bai, badaukagu, baina baita ere kultura politiko handiagoa, hain justu ere, autokontrol handiagoa eskatzen diogulako. Hori ikusten da alderdi politikoen jokabidean eta baita herritarren jokabidean ere. Baina ustelkeria kasuei aurre egiteko sakondu egin behar da kultura politiko horretan.

Klase politiko osoa dago auzitan? Ez dut uste. Jokabide ez etikoa izan dutenak baino askoz ere zabalagoa da klase politikoa. Herrigintzan, politikan, erakunde ezberdinetan diharduen jendeak, orokorrean, uste dut, zintzo jokatzen duela. Politikan daude herritarrei eta ondorengoei zerbitzu bat ematearren.

Gertatzen da ustelkeria kasu gehiegi eta aldi berean agertzen badira herritarren begietara, izugarriko kaltea egiten diola horrek klase politikoari. Horregatik, herritarren kultura politikoan sakontzea inportantea da. Eta sistema politikoak berak ere ozen, garden, garbi, erreakzionatu behar du eta neurriak hartu ustelkeria kasuak saihesteko. Sarritan ez da hala egin.

Ustelkeriaren aurrean gizarteak duen jarrera aldatu egin da?

Aldaketa ez dator egun batetik bestera. Aldaketa estetikoak bai. Herritarrak haserre daude. Eta, horrenbestez, haserre horren adierazpide politikoak sortzen dira. Horixe da Podemos. Baina uste dut horren aurrean, bi jarrera egin daitezkeela. Bata da haserre agertzea, baina besterik ez egitea. Eta mugimendu populistek edo totalitaristek aprobetxatzea haserre hori. Hori ez da ona. Nik, behintzat, ez nuke nahi nire herriarendako. Bestea da aztertzea zer gertatu den eta sakontzea kultura demokratikoa herritarren eta herri ordezkari eta erakundeen artean. Eta mekanismoak ezarri berriro gerta ez daitezen ustelkeria kasuak. Bigarrena bide zailagoa da, matizatuagoa. Baina eman korragoa. Ustelkeria kasuen aurrean ez dago, nire ustez, mugimendu totalitaristen esku utzerik haserre horren patrimonioa. Demokrazia gehiago da bidea.

Podemos da bide totalitario edo populista horren erakusle?

Podemosek egiten duen errealitatearen interpretazioan, hainbatean, bat nator. Haserre horrekin edo politikari egiten dion kritikarekin. Baina ez dut gustuko Podemosek herrigintzarako planteatzen duen eredua. Ez dut uste denik oinarri demokratiko sendoetan oinarritutako planteamenak. Gainera, mendebaldeko gizarte aurreratu demokratikoetan oinarritu gabeko esperientzia da Podemosena.

Gazteek eta politikara, herrigintzara, samurrago hurbil daitezke orain, egoera zein den ikusita?

Ezagutzen dugun politika klasikoarekiko oso urrun daude gazteak. Badaude modu klasikoan sozializatu izan direnak politikan. Berdin zait zein eremutan. Baina asko eta asko dago kanpo dagoena. Horrek ez du esan nahi gazte horiek ez dutela herrigintzarekiko edo gai sozialekiko kezkarik. Gaur, inoiz baino oportunitate handiagoak dituzte gazteek euren bitartekoen bidez herrigintzan aritzeko. Ez dira sakralizatu behar



Xabier Barandiaran oraingo astean Goienaren egoitzan. | JAGOBA DOMINGO

alderdi politikoak edo politikako jokamolde klasikoak. Belaunaldi bakoitzak bere moduak ditu. Inportanteena da parte hartzea. Jabetzea pertsonok ez garela subjektu indibidualak soilik, baizik eta elkarrean bizi garela. Eta elkarrean jarduten dugun neurrian, geure burua indartzen dugu, betiere, modu demokratikoetan oinarrituta. Eta irtenbiderik ez dut ikusten politikatik urrunduta. Politikaren bukaera da polisaren edo batzen gaituen herriaren bukaera. Ez dut horretan sinisten.

Udal eta foru hauteskudeak dira datorren urtean. Podemosek esan du ez dela aurkeztuko. Baina Ezker Anitzak, Ekuok eta ezkerreko beste alderdi batzuek irabazi aurkeztuko dute. Horiek izan daitezke Podemosen botoen jasotzaile?

Maila batean, bai. Baina ez da berdina Podemosek bere marka leku guztietara zabaltzea edo zati-tuta dagoen marka bat erabiltzea. **Aurreikusten duzu aldaketarik Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu, herri eta foru aldundietan?**

Uste dut aldaketa nabarmenak izango ditugula. Batetik, iruditzen zait, Gipuzkoan, ezker abertzalearen eta EAJren arteko lehia askoz ere estuagoa izango dela. Horrek egoera berria planteatzen du, batez ere aurrera begira erkidego osoan. Bizkaian ez zait iruditzen aldaketa handirik egongo denik eta Araban ere lehia handia egon daiteke.

Gipuzkoan eta Donostian irabazteko aukera garbiak ikusten dizkiozu EAJri?

Bai, zalantzarik gabe. Alde batetik, Eneko Goia erreferentzia garbia da eta Eizagirreren aurrean aukera erreal eta sendoa. Bestetik, EAJ azkeneko hauteskunde autonomikoetan oso gertu geratu zen ezker abertzalearengandik. EAJk aukera bat dauka, historikoa, ezker abertzalea ez dena biltzeko, batez ere ezker abertzalearekiko atsekabe nabarmen hori jasotzeko.

Nafarroan gerta daiteke oraingoan aldaketarik?

Bai. Baldintzak badaude. Bestelakoa da eragile politikoek zela erreakzionatuko duten. UPNk gidatutako Nafarroako eredu politikoak porrot egin du. Baina Yolanda Barcina animalia politikoa da eta ikusteko dago azken arnasa zela eman duen.

"Espainian herritarren eta politikarien artean alde handia dago"

"Irtenbidea ez da politikaren amaiera, politikan sakondu behar da"

"Barcina animalia politikoa da eta ikusteko dago azken arnasa eman duen"

"Jendeak ezker abertzalearekin duen atsekabea aprobetxa genezake"

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ZABALIK

JUAN LUIS AZKARATE
goiena.net/
komunitatea/



Museo horiek

Urriaren Azpeitiko Tren Museoan izan nintzen eta txundituta geratu nintzen han ikusitako altxorrarekin. Burnibidearen Euskal Museoaren Fundazioa 1992an sortu zen eta Europako tren bilduma hoberenetakoa du, mota guztietako ibilgailuekin, lurrun lokomotorak, dieselak, elektrikoak, automoto-reak eta mota guztietako bagoiak. Museoa, bai kalitatez bai kantitatez, oso oparoa da eta, ibilgailuez gain, Euskadiko makina-erreminta multzo hoberenetakoa eskaintzen du.


Arrasaten, La Cerrajerako instalazio zaharrak desarmatu zirenean, Industria Museo proiektuaren ideia indarra hartzen hasi zen. J.R. Garai eta beste arrasatear gogotsu batzuk buru-belarri ibili ziren asmo hau errealitate bihurtu guran. 2000. urtean, Arkeologia Industrialeko aditu bat ekarri zuten La Cerrajerako pabiloi esanguratsuenetako baten desmuntatze lanak koordinatzeko. Batzuek, agian, Gureleku tabernan zegoen zuri-beltzeko argazki handi bat gogoratuko dute. Horixe zen, desmuntatu ondoren, beste kokapen batean berriro eraiki behar zuten pabiloia, bertan Industria Museoa kokatzeko. Erakusketan bat ere egon zen Zaldibarren, erlojuaren eraikinean. Zertan geratu zen hori guztiori?

Azpeitiko Tren Museoak, bisitari amaiera goxoa emanez, lurrun tren zahar batean ibiltzeko parada eskaintzen dizu, antzinako abiaduraz bidaiatzeko aukera paregabea emanez. Azpeitia eta Lasao auzoaren arteko 5 kilometroak zeharkatzeko 40 minutu hartzen ditu, eta hantxe ibili ginen, traketeo mantsoan, burutazioen artean paisaiari patxadaz begiratuta.

Eskerrak nonbait arduratu diren historia gordetzeaz, betiko gal ez dadin. Bestela, akabo.

MARRAZKIZ

Honrozkeroako auzuan eten izena abizena XXXX | Kargua XXXX | goiena.eus/berrautsa'



GUTUNAK

Halako barririk!

Iñaki Idigoras
Oñati

Oñatiko Olabarrietan jaixo nintzan, ixa 40 urte badiala. Umetan kalera bizittera jeitsi giñan; asko ez dala beste ixa bost urte eman nittuan han.

Eta oin tartian bizi naiz, Ugarkalden.

Olabarrietan bizi ez naizen arren, bizi dot.

Han daku amaren jaixotetxia, Jurgiña, eta aittak darabil ortua.

Hara faten naiz, berdura freskuak batu eta hondakin organikuak bueltaittera, ziklua itxiz.

Nola fan baiña?

Kotxez, bizikletaz eta oiñez.

Danakin be arriskuak hartzen, bide motzena hartuz gero.

Bai, kotxiakin be bai, eta zer esanik ez bizikletaz eta oiñez!

Amak goguan dako gaztaruan kaltzada bat baeguala.

Kotxiaren kulturian sartu zanian, baiña, honek tapau eben, progresuaren izenian.

bariko eskaeria izan da kaltzadia (gaur egunian bidegorrria) berreskuraketia.

Ezezkorik sekula ez dogu jaso, baiña borondataz gain ezer gutxi.

Eta hara nun gaur (eguaztena), auzoko lokalian, auzo batzarrak eta Udalak proiektu bat ez, Diputaziñuak egindako hiru proiektu aurkeztu doskuen aspaldiko bihar honairi erantzuteko!

A zelako poza proiektuon nundik norakuak bertatik bertara jasotian.

Geuk amestu genittuan moduan, ixa-ixa.

Bejondeixela honen atzetik buru-belarri lan egin eta eragin dauein pertsonai, bai auzuan, eta baita Udalian eta Aldundixan be.

Auzotarroi ("kaltetutako" lurjabeiei batez be) tokaiten xaku orain eskuzabal jokaketia, ahalik eta trabarik gutxienez inñiaz.

Planotan ikusi doguna, egindako ekarpenakin, errealitate bihurtu daixen ahalik eta epe motzenian.

Auzotarrok, eta oñatiar danok be, merezi dogulako.

San Juan berriro profanatu

Juan Karlos Garitano
(Arrasateko EAJren Udala Taldea)
Arrasate

San Juan Bataiatzailearen irudia, arrasatearren zaindaria, berriro ere profanatu izan zelarik, EAJko ordezkariak alkate jaunari mozio hau helarazi diogu, udalbatzako alderdi politiko guztien elkartasuna eskatuz.

"Domu Santu eguneko goizaldean San Juanen irudia berriro profanatu izan zelarik, Arrasateko udalbatzak, osoko bilkuran batzarturik, zera adosten du:

1) Sortutako minarekin bat egin eta horrelako ekintzak gaitzestea,

-Herritarren sentimenduak mintzen dituztelako.

-Elkarbizitza eragozten dutelako.

-Oinarrizko printzipioa den errespetuaren aurka doazelako.

2) Neurriak hartzea berriro horrelakorik gertatu ez dadin".

Baina alkate jaunak, mozio hau udalbatzari aurkeztea eragotzi eta jarrera oportunistak batekin, osoko bilkurari aurreratu eta komunikabideetara EAJren mozioaren suzedaneo bat bidali du, EAJren ekimena aipatu ere egin gabe.

Alkate jaunarentzat, gertatutakoa ez da profanazio bat izan (San Juani errespetu falta), baizik eta kalteak, leihotako bidrierak puskatzea izan balitz bezala.

Aldi berean, ez du inolako neurririk hartu nahi horrelakorik berriro gertatu ez dadin.

Ahaztu egin ote zaio udaltzainen funtzioetariko bat gure kaleak zaintzea dela?

Konbentzitututa gaude gure mozia aldarrikatzeko arrazoi nahikoak dauzkagula.

Horrelako gertakari tamalgarrien aurrean, Bildu mobilizatzeke, behintzat, balio izan du.

Eskerrik asko!

Ane Aizpeurrutia Idigoras
Oñati

Egun batzuk badira gure aita Jenaro Aizpeurrutia hil zela.

Ohar xume honen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiegu Oñatiko anbulatorioan gure aita atenditu zuten profesionali, bai kontsultan eta, batez ere, bere indarrak gutxitu zirenean, etxean lagundu ziotenei.

Ez genuke inor ahaztu nahi, baina goraiatu gura genuke, bereziki, Txaro Martinez medikua, aitarekiko izan duen hurbiltasuna, maitasuna eta gizatasuna zaila egiten zaigu hitzetan azaltzea.

Ez ditugu aipatu gabe utzi nahi Isabel Arenaza eta Montse Perez erizainak, uneari, momentuari eta orduari begiratu gabe etxera etorri eta, gozotasunez, gure aita Jenarori emandako arreta inoiz ez dugulako ahaztuko.

Mila esker.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Ezingo dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun, gutun bakararekin baizik. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñatiaren Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatibea Elkarte
Oñatiaren Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Oñatiaren Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Oñatiaren Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Oñatiaren Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

HERRIAK

LEINTZ GATZAGA

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Arnas-bidetxo bat. Hori gura die- te eskaini artisauei Gatzagako San Milixan azokan, udalerriko plaza egun batez euren lanen erakustoki eta saltoki bilakatuta. "22. edizioa da aurtengoa; ez da erraza. Esango nuke Gatzagan beti egin dela azoka horren aldeko apustua. Ez bakarrik udalerrinari begira, baita artisauei eurei begira ere. Egiten ari garen hau bultzada bat da artisa- su profesionalendako. Herri txi- kia gara, eta, hala ere, azoka dui- na egiten ahalegintzen gara, non, besteak beste, dieta ordaintzen zaien... ", esplikatu du Iñaki Agirreurretak, Kultura zinegotziak.

Hego Euskal Herritik

Domekan zortzi, azaroaren 16an, da hitzordua. San Milixan zaind- riaren egunetik (azaroaren 12a) gertuen dagoen domekan, alegia. Eta egun horren bueltan bat egin- go dute 15 artisauk, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroatik etorritakoak. Bitxiak, oihalak, narruarekin landutakoak... eskai- niko dituzte Gatzagako pilotale- kuan, 10:00etatik 14:30era bitartean. Horien artean izango da gertuko- rik; adibidez, Angiozartik bertar- atuko da narrugintzan jarduten duen E-Mendi.

Eta Leintz Gatzagako bertako ordezkaritza ere izango da, zila- rrearekin landutako bitxiak egiten dituen Iker Zilart-en bitartez.

Babesaren garrantzia

Azken horrek, adibidez, argi eta garbi salatu du artisauen egoera "penagarria" dela. Eta Agirre- rretak azpimarratutako babesaren behararekin bat egin du: "Esku- langintza tradizionala galtzen dabil. Ez bakarrik gurea [artisauea], baita nekazariena ere. Jende gehi- go animatu beharko litzateke hala- ko azoketan ibiltzen eta dirua gastatzen. Neure kasuan, adibidez, 13 bat urtez artisautzan ibili ostean, azoketan ibiltzeari laga egin nion ilusioa galdu nuelako, eta artisa- utzan jarduteko ilusio handia behar da, ordu asko, lotura handia... eskatzen dituelako ogibide horrek. Horregatik behar dira artisautzak baloratu eta babesten dituzten konplizeak, bertako produktuak



Bitxiak, narruarekin egindako lanak, taloak, musika herrikoia.... izango dira San Milixan azokan. | GOIENA

Azoka baino gehiago

Beste urte batez, Leintz Gatzaga artisauen eta bestelako proiektuen erakusleho bilakatuko da San Milixan azokaren bueltan, azaroaren 16an

erosiko dituztenak, bertatik bertara egindakoa baloratzen dutenak", esplikatu du.

Zailtasunak zailtasun, San Milixan azokan egoteari baietz esan dio. "Lehen aldia da. Proba moduan egingo dut", aitortu du. Eta erakutsi ditu bertan salgai jarriko dituen bitxiak, zilarrez egindakoak. "Intsektuak dira nire bereizgarri", kontatu du tertziopelo gainean jarritako armiarmak, tximeletak... seinalatuta. Haien ondoan ditu, baita ere, bitxi "ohikoagoak": belarritakoak, lepokoak... Urtetan bere kabuz ikasitako zein bestelako artisauek erakutsitako teknikekin edo jakintzekin landutakoak.

"Munduko talorik onena"

Baina, jakina, artisauek Gatzaga plaza garrantzitsua bada, udal- lerrindako ere aparteko garrantzia du San Milixanek. "Pentsa, herri erdi dago inplikaturik azokan",



Neska-mutikoak eskola txikiaren aldeko marrazkiak egiten ludotekan. | GUREL

Eskola txikiaren aldeko sinadura bilketa

San Milixan azokan postu berezia izango da aurten: Leintz Gatzagan gauzatu gura duten eskola txikiaren proiektuaren gainekoa. Gurel gurasoen elkarteak eta Udalak bideratuta, azokan esplikatu dute datorren ikasturtean Gatzagan eskola txikia izan gura dutela, Angiozarren antzera. Besteak beste, proiektu horren alde sinadurak batuko dituzte, gero Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean euren eskaerarekin batera aurkezteko. Iragarri dute, baita ere, azaroaren 22an herri argazkia atera gura dutela.

esan du Agirreurretak. Eta Sor- ginak elkarteko emakumeak jarri ditu adibide moduan, eurek prestatzen dituzte-eta artisauek Tuki Eder elkartearen "babak sakramentuekin", adibidez.

Baina baita ere SorGINEK egin- go dutelako Gatzagako azokak dituen hiru elementu erakargarri- enetako bat: "Munduko talorik onena (...)" Arto-irina Goierri alde- tik ekartzen dugu. Ez dago horre- lako talorik bailara osoan", dio Agirreurretak.

Bestalde, Dorleta Txirindula- ri Elkarteak ere parte hartuko du azokan, urtero moduan. Eta azo- karen bestelako eskaintzen artean berria izango da Ander Arana Esteban gazte gatzagarrak 2-3 urte- tan egindako marrazkiekin kultu- ra etxean jarriko duen erakuske- ta. Tinta txinatarrez egindako mendi eta itsasoan oinarritutako paisaien gaineko marrazkiak dira.

Hala, horrekin guztiarekin, Kultura zinegotziak aprobetxatu du tartea bisitariak erakartzeko gatzaren udalerrira, San Milixan azoka baliatuta: "Bigarren [elemen- tu erakargarriena], artisauek dira; kalitatezkoak dira, dudarik gabe. Eta hirugarren elementua da gatzak; Gatz Museoa; gatzagarrak... Adi- bidez, gatzarekin xaboi prestatze- ko hiru tailer egingo dira, 11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan. Doan eta euskaraz. Eta gero, egindako xaboi pusketak eraman ahal izango dira etxera (...). Etor daitezela bisita- riak. Ez dago halakorik bailaran. Eguna pasatzeko elementu mordo- eskaintzen ditugu. Dena uzartu daiteke: azoka, talo batzuk, men- dia... inguruak oso polit daude sasoi honetan", gonbidatu ditu Agirreurretak.

Autobusa doan

Eta hori guztia nahikoa ez bada, erraztasunak ere ematen dizkiete bisitariak Gatzagara joateko: auto- bus zerbitzua, maiztasunez eta doan. 10:00etan irtengo da Esko- riatzatik; bi lekutan geratuko da: Akeita parean eta gasolindegia parean. 15-20 minutuan behin egin- go du joan-etorria. "Autobusez etortzea komeni da, Gatzagan ez dago-eta autoendako leku larregi", bukatu du Agirreurretak.

OMEGA
Urban
Service

24h

945 290 308

www.igogailuak.com

debagoiena@omegaurban.com

Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak

Igogailuen
Mantentze-lanak



Martitzeneko osoko bilkura. | IRATI GOITIA

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra onartu dute, aho batez

Hasierako agiriaren onarpena izan da; orain, jendaurrean jarriko dute, interesa dutenek alegazioak egin ditzaten urtarrilaren 27ra arte

IRATI GOITIA | ARRASATE

Hiri Antolamenduaren Plan Orokorren –HAPO– hasierako agiria onartu zuten martitzenean osoko bilkuran. Aho batez onartu ere.

Plan horrek herri antolamendurako proiektuak batzen ditu, eta herriaren itxuran berebiziko garrantzia izaten du, adibidez. Martitzenean onartu zuten hasierako agiri horretan proiektu gehiago sartu baino gehiago, aurreko planean zeuden beste batzuk kendu direla zehaztu du Joxe Etxeberriak, Hirigintza zinegotziak. "Aurreko planean, Garagartzan etxeak egiteko aukera jasotzen zen, adibidez. Hori dena desagertu egiten da oraingo honetan. Udalara bidean ere bazen urbanizazio plan bat, hori ere aldatu egin da. Azken batean, planteamendua arrazionalizatu da pixka bat. Garai batean hedakorra zena herrira bildu da", esan du Etxeberriak. Bestalde, hirugarren sektorea bultzatzeko eta ingurumena babesteko aldaketak ere batu direla gaineratu du. Hirigintza zinegotziak nabarmendu du herritarren alegazioak eta aholku kontseiluak eginiko txostena oso kontuan izan dituztela udal teknikariek agiria prestatzeko –aurrerapen agiria ere jendaurrean izan zen.

Herritarren parte-hartzea

Bada, martitzenean onartutako planaren hasierako agiria ere

jendaurrean jarriko dute, interesa duten pertsona eta elkarteek hura aztertu eta alegazio idatziak aurkez ditzaten. Alegazioak BAZen egin ahal izango dira 2015eko urtarrilaren 27ra arte. Bestalde, nahi duenak ikusgai izango du agiria udaletxeko Hirigintza Sailean eta Udalaren webgunean. Horretaz gain, urtarrilean plan orokorraren erakusketa egingo da Kulturaten (urtarrilaren 8tik 22ra).

Aholku kontseiluak ere aztertu du dokumentua; hainbat arlotako pertsonen osatuta dago hura. Horrela, berriz elkartzeko dei egingo dute Udaletik.

Etetea

Hasierako onarpenak berarekin dakar edozein eratako onarpen, baimen eta lizentziak emateko aukera etetea, agirian proposatzen diren aldaketa eremuetan. Etete horren gehieneko epea bi urtekoa izango da. Hala ere, etete hori bukatu egingo da plan orokorra behin betiko onartutakoan.

Egiteko falta den bidea

Oraindik bidea egin behar da plan orokorra behin betiko onartu eta indarrean sartzeko. Laburbilduz, pausoak honako hauek dira: jendaurreko epea igaro ondoren, aurkezturiko alegazioentzako erantzunak prestatuko ditu Udalak, eta behin-behinean onartuko du plana. Ondoren, Euskal

Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari eskatuko dio txostena. Hori jaso ondoren, hala badagokio, udabatzak behin betiko onartu ahal izango du plan orokorra.

San Juanen irudia

Osoko bilkuran eztabaida handien sortu zuen puntua, baina, San Juan Bataiatzailearen irudia berriro kaltetu izana izan zen. EAJk azken uneko mozio bat sartu nahi izan zuen, baina gainerako taldeek ez zuten onartu. Ondorioz, galde-erreguetan atera zuten gaia berriro jeltzaleek eta hor sortu zen eztabaida. San Juanen irudia berriro "profanatu" ez dadin neurriak hartzeko eskatu zioten EAJkoek Udalari. Sozialistak egindako kaltearen aurka azaldu ziren, baina neurriak jabeak, hau da, parrokiak hartu behar dituela gaineratu zuten. Aralarko Etxeberriak gogora ekarri zuen agiri instituzional bateratu bat kale-ratu zutela martitzen goizean bertan alderdi politiko guztiek, EAJk izan ezik, erasoa gaitzetsiz. Hainbat herritarrek ere hartu zuten berba, eta, tartean, San Juanen irudia herritar guztiena dela esan zuten eta alderdiei neurriak hartzeko eskatu zuten Arrasate Zientzia Elkartetik. Inazio Azkarragaurizar alkateak erantzun zuen sortutako "minaz" bat egiten dutela eta Udala bere lana egiten ari dela.

Hasi dugu Zahar-Berriko ikasturte berria, afariaz

KOMUNITATEA GOIENA | MAITENA ARANA
ZAHAR-BERRI | ARRASATE

Egubakoitz arratsaldean AEDn elkartu ginen afari-merienda goxo baten bueltan. Aurten, guztira, 20 berba-lagun zahar eta berri etorri dira eta teknikari oso ondo pasa dutela esan diote. Zahar-Berriko lehen ekintza hau lagun berriak ezagutzeko, mintzapraktika egiteko, kantuan aritzeko eta barre algarak askatzeko aproposa egin zitzaigun. Ekintza gastronomiko hauetan harreman onak eta sanoak sortzen dira!

Bestalde, azarorako mintzapraktika programatik hainbat ekintza prestatu ditugu. Lehenengo, euskaltegiko ekintza, ikasleentzat izango da: Zerb

garagardo aurkezpena eta dastaketa. Azaroaren 19an izango da. Bigarren ekintza hilaren 29an izango da eta edozein herritarrentzako da egokia: Ikerketa eta Berrikuntza Zentrora eta ekonomatura bisita gidatua. Aramaixo Baserri Berri proiektua ezagutuko dugu. Azaroaren 26a baino lehen eman izena.

Oraindik Zahar-Berrin izena eman nahi duzuenentzat bada bidelagun bat libre asteazkenetan arratsaldeko seietatik aurrera. Eta bigarren aukera bat ere baduzue, boluntario bat ere prest agertu da egunero 30 minutuz bere denbora partekatzeke. Izena emateko deitu AEDra edo idatzi zaharberri@aedelkartea.com-era.



Zahar-Berrikoen afaria. | MAITENA

Energiaren erabilerari buruzko ikastaroa, Arizmendik antolatuta

Energiaren erabilera eraginkorra sustatzea. Horixe da Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketak antolatutako ikastaroaren izenburua. Azaroaren 18tik abenduaren 3ra egingo da, Arizmendi Ikastolako Ferixaleku gunean. Berrogei orduko ikastaroa izango da, eta doakoa. Lanbideko zerbitzu planen bitartez eskainiko da. Eraikinen eraginkortasun energetikoaren gaitasun ziurtagiriak lortzeko baliagarria da ikastaroa, hain zuzen ere. Interesa dutenek Lanbiden eman behar dute izena azaroaren 13a baino lehen. Edozelan ere, langabeek izango dute lehentasuna, eta hama-bi plaza daude.

Udal langileek mobilizazioak egingo dituzte datorren astean

"Urte honetan zehar gure lan baldintzak zehazten dituen lan hitzarmena negoziatzeko saiakerak egin arren, Arrasateko Udalaren aldetik ez dugu erantzunik jaso, 2014ko martxoan Negoziazio Mahaia eratzeko lehen eskaera egin bagenuen ere", adierazi dute Udaleko enpresa batzordetik. Horrela, udal langileen batzarren gehiengo zabal batek mobilizazioetara jotzea erabaki du, Udal Gobernuak duen jarrera "immobilista" ikusita eta langile orok bere lan baldintzak negoziatzeko eskubidea duela aldarrikatzeko. Mobilizazioak egingo dituzte azaroaren 10ean eta 11n, Herriko Plaza Nagusian, 12:00etan.

TRANSIT GAMA BERRIA
5.700€-tik aurrera



MUGARRI AUTOAK

Arrasate
Araba etorbidea z/g
tel.: 943790744

Bergara
Amillaga 5
tel.: 670827186

Ford Transit gama; batez besteko kontsumo konbinatua 3,8-8,0 l/100 km. CO2 emisioa 100-184 g/km.

Ford Transit Courier Ambiente 1.0 Ecoobost 100 ZP. Eskaintzaren barne dago deskontua FCE Bank PLC SRekin finantzazearren Vente a Ford Credit Courier kanpainaren bidez (24 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoa). Ez ditu barne hartzen: BEZA, matrikulazio zerga eta garraioa. Gobernuaren Pive planaren ekarpenaren menpe. Penintsulan eta Balear uharterean baliagarria hilabetea bukatu arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Ikusten den modelook ez dauka zertan eskaintakoa izan. Ford.es

OHARRAK

1963AN JAIOTAKOAK

1963an jaiotakoan kintadan parte hartzeko izen-emate epea luzatu egin dute: interesatuek hilaren 15era arte eman dezakete izena 3035 0001 58 0011156156 kontu zenbakian 65 euro sartuta.

1959AN JAIOTAKOAK

1959an jaiotakoek kintada egingo dute hilaren 22an. Interesatuek hilaren 14a baino lehen eman behar dute izena 3035 0047 10 0471085548 kontu zenbakian 60 euro sartuta. 11:30ean Kajoi tabernan elkar-tu eta ardo dastatzea egingo dute. Ostean, poteoa eta 14:00etan argazkia Herriko Plazan. 14:30ean bazkalduko dute Uarkape frontoiko jate-xean.

1973AN JAIOTAKOAK

Zapatuan, hilaren 8an, egingo dute kintada, Bergarako Tar-tufo jatetxean. 12:30ean Herri-ko Plazan elkartuko dira poteatzeko, eta bazkaldu ostean DJ batekin dantza egiteko aukera izango dute. 20:00 alde-ra itzuliko dira Bergaratik Arrasatera.

1955EAN JAIOTAKOAK

Añanako gatz haranera eta Harora irteera egingo dute 1955ean jaiotakoek bihar, zapa-tua, 09:30ean.

Santamasetako azokarako eskaerak, hilaren 22ra arte

2014ko Santamasetako artisau azokan parte hartu gura duten herritarrek eskaera-orriak bete behar dituzte. Horretarako azken eguna hilaren 22a da. Eskaera horiek *Santamasa.com* atarian bete daitezke. Era berean, atarian bertan irakur daitezke zeintzuk diren eskaerak onartzeko antolatzailerik zehaztutako irizpideak. Komisiñoko kideak abendu hasieran ipiniko dira harremanetan azokan parte hartzeko aukeratuak izan diren artisauetara.

Bidezko merkataritza dendarako boluntario bila dabilta

Hiper Eroskin dagoen bidezko merkataritza dendan lanerako gertu dauden boluntario bila dabil denda kudeatzen duen gobernu kanpoko erakundea. Bi aste behin hiru orduko txandak bete beharko dituzte boluntarioek: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Dena den, egutegia boluntarioen artean trukatzeko edo aldatzeko aukera egongo da. Interesatuek 628 51 22 78 (Gorka Martinez) telefonora deitu beharko dute izena emateko.

Arrasatek Hezi ekimeneko lehen saioan 35 ordezkari

Hezkuntza formaleko eragileei zuzendutako saioa egin zuten martitzenean: lehenengoa izan zen

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arrasateko Udalak, Txatxilipurdik eta Bagara elkarteak bultzatuta, Arrasatek Hezi izeneko ekimena jarri dute martxan. Arrasate ikuspegi hezitzailetik hobetzea da ekimen horren helburua. Bada, martitzenean egin zuten lehen saioa, eta, hezkuntza formaleko eragileei zuzendutako lehen batzarrean, 35 ordezkari egon ziren. Hain justu ere, Arrasate Helduen Eskolako, Arrasate Herri Eskolako, Arizmendi Ikastolako, Arrasateko Institutuko, Eskola Politeknikoko eta Lanbide Hastapeneko langileak eta gurasoak elkartu ziren.

Balorazio "positiboa"

Martitzeneko saioan, Arrasatek Hezi ekimenaren oinarrietaraino hurbilketa egin zuten: zer den, zertarako, zein helburu, zenbat ekimen... Gainera, aurreko asteetan egindako aurkezpen bileretan antolatzaileek jasotako ekarpen eta informazioa elkarbanatu zuten guztien artean.



Arrasatek Hezi ekimenaren lehen saioa. | TXOMIN MADINA

Bateratuta egindako saioaren ostean, 35 ordezkariak talde txikitik banatu eta hausnarketa prozesua hasi zuten. Aurretik azaldutakoaren inguruan sakondu eta ikuspegi hezitzailetik Arrasatek izan ditzakeen kezak eta erronkak identifikatzen ahalegindu ziren. Saioan parte hartu zuten ordezkariak "positiboki"

baloratu zuten Arrasatek Hezi ekimena martxan jartzea eta lehen saioaren edukia. "Herri moduan heziketari buruzko hausnarketa egiten hastea ona dela esango nuke. Elkarrekin zer nahi dugun pentsatu eta adostu, balioak, ekin-tzak...", esan zuen Maite Lasak, Arrasateko Institutuko zuzendaria. Iritzi berekoa zen Arimen-

di Ikastolako irakasle Arkaitz Garmendia: "Eragile ezberdinekin partekatzea eta hartu-emana izatea oso ona da. Ea, bada, etekinik ateratzen diogun".

Gainerako saioak

Hezkuntza formaleko eragileen ostean, hezkuntza ez formaleko eta asmo eraldatzaileko eragileen txanda izango da. Hezkuntza ez formaleko eragileen saioak azaroaren 12an eta abenduaren 10ean egingo dituzte Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 11:00etan. Aldiz, asmo eraldatzaileko eragileak azaroaren 19an eta abenduaren 17an elkartuko dira, Kulturateko Loramendi gelan, 18:00etan. Bestalde, hezkuntza formaleko eragileek beste saio bat izango dute abenduaren 10ean Jokin Zaitegi aretoan, 18:00etan.

Saio horiek guztiak bukatu ostean, 2015eko urtarrilean edo otsailean bateratze saioa egingo dute. "Orduan, zer arlo landu gura dugun zehaztu beharko dugu, saio hauetatik ateratako ekarpenak aintzat hartuta", esan zuen Blanka Jauregik, Arrasateko Udaleko Gazteria teknikaria.

Galdetegia

Herritarren parte-hartzea bultzatzeko, galdetegiak prestatu dituzte. Azaroaren 4a ezker sarean eta herriko hainbat gunetan daude eskuragarri: BAZEN, Udal Biblioteketan, gazte txokoetan zein ludoteketan, Gazte Bulegoan eta erretratuaren etxeetan. Abenduaren 10a baino lehen bete beharko da.

2015erako TAO txartelak berriak egin behar dira

Urtarrilaren 2tik aurrera aparkatzeko txartel berriak eduki beharko dituzte egoiliarrek

M.B. | ARRASATE

2015erako TAO txartel berriak prestatzen dihardu Udalak. Urtarrilaren 2tik aurrera, Uribarri-Loramendi gunean aparkatu ahal izateko txartel berriak beharko dituzte egoiliarrek. Hain zuzen ere, 1.1 eta 1.2 azpi-guneetako bizilagunek txartel berriak eskatu beharko dituzte BAZen.

TAOren udal ordenantzak zehazten du urtero aldatu behar direla aparkatzeko txartelak eta urtea bukatu aurreko azken hiruhilekoan eska daitezkeela baimenak.

Gainera, ordenantzan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte gune horietako bizilagunek txartelak eskatzeko. Hiru txartel mota banatuko dira egoiliarren artean: ohikoa bizilagunen artean, merkataritzako lehen mota (ibilgailua dendan erroldatuta duten merkataria) eta merkataritzako bigarren mota (dendako ibilgailuak errotulazioa duenean).

2015erako aparkatzeko txartelak eskatzeko orduan 10 euro ordaindu beharko da. Aurten ordaindu den kopuru berbera. Igoera barik.

Aurten txartelak ez

Uribarri-Loramendi guneko hainbat kaletako bizilagunek ez dute txartelak izan aurretik. Bada, 2015erako bai eska ditzakete aparkatzeko baimenak. Hain justu ere, Uriburu kaleko 14, 16 eta 18. atariak eta Uribarri etorbideko 2A eta 2C atarietako bizilagunek TAO txartelak eskatzeko aukera izango dute.

Lehen aldia izan arren, gainerako egoiliarren baldintzak bete eta dagokien tasa ordaindu beharko dute.

Ibai Artek 1.500 euro banatuko ditu azaroan bezeroen artean

M.B. | OÑATI

Ibai-Arte merkatarien elkarteak bezeroen fidelitasuna eskertu eta saritu gura du, beste behin. Gabonen atarian, beste kanpaina bat ipini du martxan: 1.500 euro banatuko ditu elkarte kide diren 32 komertzioetaren baten erosketara egiten duten bezeroen artean. Guztira, 3.500 txartel-erabiltzaile ditu Arrasateko merkatarien elkarteak.

Azaroaren 30era arte

Azaroaren 3an hasi eta 30era arte saltokietan trukatzeko erosketak -txekek oparitu dituzte. 10 eurotik gorako erosketak Ibai-Arte txartelarekin ordaintzen dituz-

ten bezeroen artean 10, 50 eta 100 euroko erosketak txekak banatuko dituzte. Guztira, esandako moduan, 1.500 euro zozketatuko dituzte.

Sariak, momentuan

Ibai-Arte txartelarekin hamar eurotik gorako erosketara egiten duten bezeroak ordaintzeko unean jakingo du saria irabazi duen edo ez. Saria lortzen badu, dagokion diru kopurua duen erosketak txekak jasoko du merkataria eskutik.

Txeke horiek pilotzen joan daitezke, baina Ibai-Arteko dendetan trukatu beharko dira abenduaren 31 baino lehen.



**SUKALDEAK
BAINUAK
ARMAIRUAK**

**ZEURE NEURRIRA
ZEURE GUSTURA**



Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

Bolada onari jarraipena emateko gogor lan egin behar du Mondrak

Gotzon Urzelaren taldeak domekan jokatu du Mojategin Zestoaren aurka, 16:30ean; puntu bakarreko aldea dute bi taldeek sailkapenean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Etiket kanpora partidua irabaztetik dator Mondra. Hiru puntu ekarri zituzten Soroluzetik (0-2 irabazita). Gainera, azkeneko bi partidua irabazi dituzte; hala ere, Gotzon Urzelai entrenatzaileak ez du baikorregi izan gura eta partiduz partidu joan behar dela azaldu du.

Mondrak Mojategin jokatu du domekan, 16:30ean, Zestoaren aurka.

Talde veteranoa aurrean

"Egia esan, aurten ez dugu jarraitu Zestoa. Iazko taldea talde veteranoa zen, fisikoki indartsuak. Horrelako taldeek ez dute jokatzeko uzten", azaldu du Urzelai aurkaria nolako taldea den galdetuta. Mojategira bisitan etorriko diren talde gehien moduan, atzean sartu eta itxaron egingo duen taldea izango dela uste du Urzelai: "Atzean sartzen dira, eta kontraerasoan irten. Partidu zailak izaten dira horiek", gaineratu du. Orain arteko partidu guztiak ere zailak izan direla azaldu du entrenatzaileak.

Urzelai argi dauka Mondrak ondo egin behar dituela gauzak. Hasieratik indartsu eta intentsitatearekin irten behar dute; izan ere, gauzak gaizki eginez gero galtzea samurra dela ikusi dute: "Aktibo eta bizi irten behar dugu hasieratik".

Azkeneko biak irabazi

Ligako lehenengo bost partiduetan garaipen bakarra lortu zuen Mondrak; azkeneko biak, aldiz, irabazi egin ditu, Lazkaoen eta Soroluzeren aurkakoak. "Bi partidu irabazi ditugu, baina ez dira



Jon Zabaleta, Mondrak jokalaria. | GOIENA

partidu onak izan. Gainera, ezin dugu irabazitako partiduei begira egon", dio. "Puntu beharrean geunden. Soroluzen soltura handiagoarekin jokatu genuen. Zelai estua da, eta partidu ona jokatu

genuen, alde guztietatik begiratu", azaldu du Urzelai. Horregatik, dinamika onean sartu behar dutela gaineratu du entrenatzaileak: "Taldea bat gara eta horrela jokatu behar dugu".

ESANAK

"Momentu zailtan jakin egin behar da egoten, baina baita momentuak onak direnean"

GOITZON URZELAI | ENTRENATZAILEA

"Momentu zailtan jakin egin behar da egoten, baina onetan ere bai", gaineratu du. Hau da, bolada onari eustea da helburua, baina gehiegizko konfiantza izan barik.

Taldearen egoera sailkapenean

Erregional Preferenteko bigarren multzoan dago Mondra, sailkapen orokorrean zazpigarren postuan. Zazpi partidu jokatu dituzte eta horietatik hiru irabazi, bi berdindu eta beste bi galdu dituzte. Hala, 11 puntu lortu dituzte dagoeneko. Mojategin aurkari izango duten Zestoa ere sailkapeneko erdialdean dago. Mondrak baino puntu bat gutxiagorekin (10), sailkapeneko bederatzigarren postuan daude: zazpi partiduetatik hiru irabazi, beste hiru galdu eta bakarra berdindu dute.

Arrasatearrek Aretxabaletaren aurkako derbia jokatu dute datorren aste bukaeran Ibarren; eta, ondoren, sailkapeneko bigarren tokian dagoen Getariaren bisita izango dute Mojategiko zelaian.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Dribling 2.0 - Jibaros F.C.	7-0
Aldatz - Haizea's Weah	5-3
Kantzerlauten - Iluntz	4-0
Alytis F.K. 2.0 - Arrasate Taberna	12-1
Betrayer - Drink Team	7-8
Sonografos - Lasagabaster	2-1
Abokajarro - Ostantz	8-4

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1. Alytis FK 2.0.	3	1
2. Dribling 2.0.	3	1
3. Abokajarro	3	1
4. Kantzerlauten	3	1
5. Aldatz	3	1
6. Drink team	3	1
7. Sonografos	3	1
8. Betrayer	0	1
9. Lasagabaster	0	1
10. Haizea's weah	0	1
11. Iluntz	0	1
12. Ostantz	0	1
13. Jibaros F.C.	0	1
14. Arrasate Taberna	0	1

PARTIDUAK

AZAROAK 8. ZAPATUA
10:00 Aldatz - Drink team / Sonografos
11:00 Sonografos - Abokajarro / Drink T.
12:00 Lasagabaster - Iluntz / Abokaja
13:00 Dribling 2.0 - Haizea's W / Lasagabaster
AZAROAK 9. DOMEKA
11:00 Ostantz - Betrayer / Arrasate ta.
12:00 Jibaros F.C. - Arrasate T. / Ostantz
13:00 Alytis - Kantzerlauten / Jibaros

Antolatzaileen hainbat ohar

Arrasate Tabernako jokalaria bati partidu bateko zigorra ezarri diote epailea iraintzeagatik. Bestalde, azaroaren 22ko eta 23ko aste bukaerarako talde guztiek jokalarien zerrenda bete ta eduki beharko dute; hala ere, Eguberriak arte jokalaria berriak apuntatzeko aukera egongo da. Gainera, aipatutako datarako izen-ematea ordainduta eduki beharko dute. Ordainduta ez duen taldeari 3 puntu kenduko dizkiote eta hurrengoan kaleratu egingo dute. Azken oharra dio txapelketan zehar bi ordu eskaera eta partidu baten atzerapena eskatzeko aukera izango dutela.

Ondo hasi dute liga talde berriek

Alytis FK 2.0 eta Kantzerlauten taldeek ezin hobeto hasi dute Zaldibarko ibilbidea. Alytis taldeak egundoko garaipena lortu zuen Arrasate Tabernari 12-1 irabazita. Kantzerlautenek ere garaipen sendoa lortu zuen Iluntzi 4-0 irabazita. Bi partidu horiez gainera, baina, beste guztietan ere gol festa izugarriak izan ziren. Lehia estuena Sonografos eta Lasagabaster taldeek izan zuten (2-1).

Ford Mugarrik Atarrabiara egingo du bisita zapatuan

A.E. | ARRASATE

Nazional mailako eskubaloit taldeak Atarrabian jokatu du bihar, zapatua, 18:00etan, Indurain Anaiak kiroldegian.

Etxeko taldea bolada on bateetik dator, eta bolada horri eustea izango da Pablo Gartziaeren helburua. Sailkapenean 11. postuan dagoen Beti Onak taldearen aurka jokatu dute. Nafarrak Santonaren aurka 28-28 berdintzetik datoz; hortaz, puntu gosez egongo dira. Arrasatearrak, aldiz, zazpigarren jardunaldian sailkapeneko laugarren postuan daude, 11 punturekin.

Azkena, garaipen estua

Azkeneko jardunaldian 25-23 irabazi zuen Ford Mugarrik Uharteren aurka Iturripe kiroldegian. Lehia estua izan zen; horren adibide dira partiduan zehar izan ziren berdinketa guztiak. Atsedenera, 11-12 atzetik joan ziren Gartziaeren mutilak. Bigarren zatian, Ford Mugarrik jokatzeneko modua aldatu zuen; eta, modu horretan, markagailuan aurretik jarri zen. Azkeneko minutuetan etxeko atezainak egindako geldiketak erabakigarriak izan ziren garaipena lortzeko. Puntu garrantzitsuak batu zituzten.

Errugbi taldeak sendo jarraitzen du lidergoan

A.E. | ARRASATE

Ezin hobeto hasi du denboraldia Arrasateko Errugbi taldeak. Dagoeneko denboraldiko bosgarren garaipena lortu dute. Emaizta horiekin, sailkapeneko liderrak dira 25 punturekin. Joan den astean Uni Bilbo B-ren aurka 5-58 nagusitu ziren Bilboko El Fango zelaian.

Aste bukaera honetan, baina, ez dute liga partidurik izango. Datorren astean ekingo diote berriro ere lehiari; etxeko taldeak Arratiko Zekorrak taldearen aurka neurtuko ditu indarrak.

Arrasateko pilotarietxan jokatu dute

A.E. | ARRASATE

Uarkape pilotalekuan hainbat pilota partidu jokatu dituzte aste bukaera honetan. Egubakoitzean, 20:30ean, 2. urteko alebinak lehiatuko dira. Hiru partidu jokatu dituzte, guztira. Zapatuan, 17:30ean hasita, lau partidu jokatu dituzte bigarren urteko alebinen. Domekan izango dira azkeneko hiru partidua. Bigarren urteko alebinak lehiatuko dira lehenengo, 11:30ean; eta, ondoren, bigarren urteko infantilek bi partidu jokatu dituzte Uarkape pilotalekuan.

Sugeak eta sugegorriak salbatzeko asmoz, argazki erakusketa Kulturaten

Aranzadi Zientzia Elkartek sentsibilizazio kanpaina bat egin nahi izan dute erakusketarekin

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Sugeak eta sugegorriak: gu gara haien beldur edo haiek dira gure beldur? Aranzadi Zientzia Elkar-teak dioenez, ezagutzarik ezak eta fundamenturik gabeko kon-dairek dakarte narrasti horieki-ko gehiegizko beldur hori.

Betidanik mehatxatuak izan diren animaliak dira sugeak eta sugegorriak. Mitologiak eta erli-jioak gaiztotzat hartu izan dituz-te beti; izan ere, horiek lehengo kontuak dira. Kontuak kontu, baina, arrazoi barik edo euren ospe txarragatik, animalia horiek akabatzen segitzen dugula diote Aranzadi Zientzia Elkartetik.

Hori horrela, sentsibilizazio kanpaina bat jarri dute martxan Aranzadikoek, animalia horiek jasaten dituzten aurreiritzi eta mitoak ezeztatzeko. Bide batez, haien ezaugarri berezien ezagu-tza handitu egin nahi dute, eta, batez ere, haienganako lilura sortu, Gipuzkoako ondare natu-ralaren parte garrantzitsu beza-la baloratzeko. Aranzadiko kide Jon Garinek honela azaldu du proiektuaren helburua: "Gure egitasmoan barneratzen diren ekintzak jendeak bizidun horiek hobeto ezagut ditzan egiten dira, urteetan gizarteak barneratu dituen uste oker eta kondairak gezurtatuz, eta, aldi berean, iku-serrazak ez diren bizidun horiek jendeari gerturatzea du xede".

Erakusketaz gain, hitzaldia

Argazki erakusketak, lau panelek eta hamazortzi argazkik osatuko



Suge gorbata duna. | JAVIER ALVAREZ

dute. Paneletan sugeen inguruko informazioa egongo da; argazkie-tan, aldiz, Euskal Herrian dauden hamaika suge espezieen argazkiak eta testu labur batzuetan espezie horien berezitasunak agertzen dira, jendeak hobeto bereiz ditzan. Erakusketa zaintzen Aranzadi Zientzia Elkarteko kide bat egongo denez, taldeka joango diren pertsonak gidatuko ditu. Argazki erakusketaz gain, jende hel-duari zuzendutako hitzaldi bat ere egongo da, eta, amaiera ema-teko, hilaren 15ean, zapatuan, gurasoei eta haurrei zuzenduta-ko tailer familiar bat izango da.

Bada, hitzaldian, erakusketan azaltzen diren gauzez gain, sugeen inguruko bitxikeriak eta beste-lakoak ere landuko dira; jendeak animalia horiek hobeto ezagu-tzeko asmoz, hemengo sugeak nolakoak diren, non bizi diren eta haien gaurko egoera zein den azalduko dute.

Horrez gain, interakzioa ere egongo dela azpimarratu du Garinek: hitzaldian zehar jendeak galderak egin ahal izango ditu, euren esperientziak aditzera eman, eta, gainera, jendea proiektuaren parte izan dadin azalpen batzuk emango dira.

'Todo saldrá bien' nobela aurkeztu dute Kulturaten

Eguaztenean egin zuten Marian Porcel arrasatearraren *Todo saldrá bien* izeneko lehen eleberraren aurkezpen ekitaldia, Kulturaten. Aurkezle lanetan Jon Andueza idazlea (erdian) aritu zen eta EC.O-ko Isa Gonzalezek editorial berezi horren lanari buruz jardun zuten. Ezkerrean, Porcel ageri da eleberria aurkezten.



ANDER LARRAÑAGA



Iaz *La taberna del puerto* lana taularatu zuten. | IMANOL SORIANO

'La rosa del azafrán', taularatzeko prest

Hilaren 22an, 23an, 28an eta 29an eskainiko dute zarzuela, eta sarrerak salgai daude

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Izaskun Murgia Elkarte Liri-koko kideak aurtengo zarzuela emanaldia egiteko azkeneko entseguetan murgilduta daude. Jacinto Guerreroren musika eta Federico Romeroren eta Guillermo Fernandez-Shawren libretoa duen *La rosa del azafrán* lana taularatuko dute oraingoan. Urtarrilean hil zen David Artzamedi Arasateko musikariari eskaini gura diote aurtengoa.

Bi asteburutan banatuta, lau emanaldi egingo dituzte Amaia antzokian: azaroaren 22an, 23an eta 29an, 19:30ean; eta azaroaren 28an, 20:00etan. Asteon jarri dituzte sarrerak salgai: Amaia antzokiko leiha-tilan eskura daitezke, eta, beste, *on line*, honako helbide hauetan: *Arrasate-mondragon.net* eta *Ticket.kutxabank.es*.

Ezinezko maitasunaz

Zarzuela gehienetan moduan, maitasun istorioak ditu *La rosa del azafrán*-en kontakizunak oinarri, eta gizarte klase ezber-dinetako amoranteak dira orain-goan protagonistak.

Izaskun Murgia Elkarte Liri-koko abesbatzarekin batera, honako hauek izango dira Amaia antzokiko taularen gainean kantuan: Ruth Osinaga, Igor Ganboa, Cristina Cubillo, Mikel Izurrategi, Arkaitz Garrido, Mertxe Salaberri, Luis Okina eta Enrike Altuna.

Aurrekoetan moduan, Tere Gonzalezek du, oraingoan ere, Arrasateko zarzuela zuzentzeko pisurik handiena. Eszenarataz-earen eta orkestraren ardura, berriz, Javi Burgosk eta Iker Olazabalek dute, hurrenez hurren.

Arrasateko ikasleak izango dira protagonistak Kulturateko 'Itsaspeko bihotzak' areto literarioetan

Galtzagorri elkartekoei dagoeneko egin dituzte *Itsaspeko bihotzak* areto literarioen lehen lau saioak. Hilaren 14ra arte bi saio eguneko antolatu dituzte. Kulturateko klaustroan egiten dituzte berdintasunaren gaia jorratzen duten jolas literarioak, eta, hain zuzen ere, Santa Teresako, Gazteluondoko, Arimazubiko eta Herri Eskolako ikasleek hartuko dute parte.

Bi urtetako lanaren ondoren, Ain_1 laukoteak hilaren 28an kaleratuko du bigarren diskoa

Azpeitiko Elekrika estudioan grabatu dute azken bi urteetan Ain_1-eko neskek *Badoa, badirau* diskoa. Hamar abestiz osatuta dago euren bigarren lana: Jon Miranderren eta Jon Olanoren hitzak daude bertan. Bestetik, aipatzekoa da dagoeneko hamar abesti horietatik bi abesti dituztela euren Bandcamp webgunean (*ain1.bandcamp.com*): hain zuzen ere, *Sentitze berdinetik* eta *Biziraun* dira kantuen izenak.

'Loreak' filmeko zuzendaria, aktore bat eta gidoilaria izango dira zapatuan egingo den proiektzioan

Zinemaldian izugarrizko arrakasta izan zuen Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga zuzendarien *Loreak* filma emango dute aste-buruan Amaia Udal Antzokian. Bihar, bi proiektzio egongo dira, 19:30ean eta 22:00etan; etzi, domekan, 19:30ean; eta amaitzeko, astelehenean, 20:30ean. Zapatuko lehen proiektzioan, Aitor Arre-gi gidoilaria eta Mariasun Pagoaga aktorea izango dira, eta hori amaitu ostean egingo den solasaldian Goenaga ere egongo da.

Indartzeko bidean, bazkide bila dihardu Bedelkarrek

Gehiago izanda, ekintza ikusgarriagoak egin ahal izango dituzte; abenduan izotz pista jarriko dute

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

"Azken urteko ibilbideak argi utzi du komertziook elkarlanean hainbat gauza lor ditzakegula. Bedelkartik, Udalarekin elkarlanean, hausnarketa-prozesu bati ekin diogu. Hausnarketa horretatik ondorioztatu da Bedelkar indartu beharra dugula, horrekin herriko merkataritza indartzen delako. Horregatik, Bedelkarren funtzionamenduan aldaketa batzuk egitea onartu da". Halaxe azaldu zuen Bibi Anduezak, Bedelkarko lehendakariak, Bedelkarrek abiatu duen prozesu berria.

Egingo dituzten aldaketan berri ere eman zuen: Bergara Bizi ekimena Bedelkarren eta Udalaren eskura pasatzea, esaterako: "Orain arte Bedelkarrek antolatutako ekintzak bertako bazkideengana mugatu izan dira; hemendik aurrera, berriz, urtean zehar, Bergara Bizi plataformaren bitartez, komertzio guztientzat zabalik egongo dira", azaldu zuen Anduezak. Hala, bazkide ez diren kasuan, Bergara Bizi plataformaren posta elektronikotik zabalduko zaie informazioa, eta, interesa izanez gero, izena eman eta parte hartu ahal izango dute, kanpainari dagokion kuota ordainduta. Horrela egin zuten, esaterako, maiatzeko moda desfilea, eta, Anduezak azpimarratu zuenez, aurrerantzean ere hala egingo



Bedelkarko eta Udaleko ordezkariak astelehenerako aurkezpenean. | A.T.

dute: "Bedelkarko bazkideen kasuan ez dute kuota ordainduko; bazkide ez diren artean, berriz, kuota bat egongo da".

Bedelkarrek datorren urterako dituen helburuak ere azaldu zituzten: herriaren kontsumitzaile buruzko sentibilizazio-kanpainak bultzatzea; bezeroen fidelizazioa lortzea; komertzioek dituzten beharretarako formazioa eskaintzea, berrikuntzan oinarrituz; eta herria dinamizatzea eta duten eskaintza ezagutzera ematea.

Bazkide berriak lortu nahian

Baina helburua bazkide berriak lortzea dela azpimarratu zuen Anduezak: "Zenbat eta bazkide gehiago izan, orduan eta aukera

gehiago izango ditugu, bai diru laguntzak lortzeko, bai ekintza ikusgarriagoak antolatzeko".

Eta bide horretan, Gabonetarako antolatu duten kanpaina handiaren berri ere eman zuen.

Izotz pista, Seminarioko karpan

Abenduaren 4tik urtarrilaren 6ra izotz pista sintetikoa jarriko dute Seminarioko karpan. Kanpaina parte hartuko duten komertzioei 100 sarrera oparituko zaizkie bezeroen artean banatzeko erosketak egiterakoan. Bestetik, dendak kanpoaldetik argiekin jantziko dituzte eta ordutegi berezia izango dute zenbait egunean. Abenduaren 13rako, bestalde, egun osoko egitaraua prestatu dute.

Bizikletendako gune berriak jartzen ari dira

Bizikleten erabilera errazteko helburuarekin jarriko dituzte herriko bederatzita gunetan

M.B. | BERGARA

Udalak herritar aktiboen kopurua handitzeko helburua du eta urtean barrena kirola sustatzeko ekintza ugari egiten ari dira, hala nola *Kirola kalera* egunak, bizikleta jardunaldiak, ikastaroak, eta abar.

2014. urterako -herritarrekin egindako kirol kontseiluan azaldutako moduan-, bizikletaren eta patinen erabilera errazteko hainbat ekimen egiteko konpromisoa hartu zuten udal ordezkariak; urtea amaitu aurre-

tik herriko zenbait gunetan bizikletak eta patineteak apartatzeko guneak prestatzea, besteak beste. Bada, dagoeneko Ipintza futbol zelaian, Martinez de Irala ikastetxean, Espoloian eta Udal Pilotalekuan, bizikletak lagatzeko egiturak jarri dituzte, eta, Udaletik aurreratu dutenez, egun gutxi barru Seminarioko jolaslekuan, Labegarietan, San Martin plazan, Oxirondo azokan eta Errekalde jauregian jarriko dituzte euskarriok.



Espoloian egokitu duten gunea. | UDALAKO KIROL ZERBITZUA

OHARRAK

1943AN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN

Azaroaren 8an, zapatua, egingo dute, 14:30ean, Azpeitxi jate-txean.

1939AN JAIOTAKOEN BAZKARIA BATZOKIAN

Azaroaren 15an egingo dute, 14:30ean. Izena 943-76 13 30 edo 943-76 28 58 telefono zenbakian eman behar da, azaroaren 10a baino lehen.

1947AN JAIOTAKOEN BAZKARIA TARTUFON

Azaroaren 15an egingo dute. 14:30ean azokako autobus geltokian elkartuko dira. Bazkalostean, gainera, DJa egongo da. Joan nahi dutenek Laboral

Kutzako 0091144632 kontuan 45 euro sartu behar dituzte, azaroaren 13a baino lehen.

1945EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30etan. Izena emateko 30 euro aurreratu behar dira jate-txean bertan, azaroaren 17a baino lehen.

1933AN JAIOTAKOEN KINTO BAZKARIA AZPEITXIN

Azaroaren 16an egingo dute ospakizuna. Santa Marinaran 12:30ean meza izango dute eta 14:30ean bazkaria. Bazkarira joan nahi dutenek Intxorta tabernan 6 euro aurreratu beharko dituzte.

Paul Riosek berbaldia egingo du hilaren 12an osoko bilkuren aretoan

Bergarako Lokarrik antolatuta, Paul Riosek, Lokarriko koordinatzaileak, berbaldia egingo du datorren eguaztenean, hilaren 12an, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan. *Bake prozesuaren egoera* izenburuko berbaldia egingo du eta Lokarritik herritarrek solasaldian parte hartzea gonbidatzen dituzte.

Jon Arretzek '11 bidaia, 11 ipuin' dokumentala aurkeztuko du

Jardun euskara elkarteak gonbidatuta, Jon Arretxe idazleak *11 bidaia, 11 ipuin* izeneko ikus-entzunezkoa aurkeztuko du hilaren 12an, eguaztana, 19:00etan, Irizar jauregiko areto nagusian. Egindako bidaia guztien errepaso egiten du dokumentalean.

Bergarako Equok antolatuta berbaldia egingo da hilaren 13an

Bergarako Equok berbaldia antolatu du datorren egunerako, hilaren 13rako, 19:30ean, kultura etxean. Besteak beste, arituko dira gaixotasunak ikeritzeko orduan lehen munduaren eta hirugarren munduaren artean dagoen ezberdintasunaz, Fiare banka etikoaz eta kooperatiba energetikoaz.

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Kayak Taberna

Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

'Azaroa gaztañatan' ekintza sorta herrikoia hasiko da domekan Osintxun

Laugarren urtez, txikien gozamenerako, Poxpolin Eta Konpainia etorriko dira

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Gaztainondoak gaztainak ematen hasi diren egun hauetan, Osintxun gaztainak baino gehiago izango dituzte. Domekan hasi eta azaroa bukatu arte, *Azaroa gaztañatan* ospatuko dute. "Bizilagunak batzeko aukera polita da", gogoratu du Osintxuko alkate Jon Olivaresek.

Ekitaldi oparoa

Laugarren urtez, Poxpolo Eta Konpainia taldeak etxeko txikiak alaituko ditu domeka honetan frontoian. Horrez gainera, azaroaren 23an, gaztetxoek tailerrak izango dituzte.

Nagusiagoek, aldiz, Maribel Salasen *monoloko*-ekin gogotik egingo dute barre Txuringo tabernan. Bizilagun guztiek, ardo edo gaztaina dastatzea izateaz gain, arimetako afaria ere izango dute.

Ohiturak agintzen duen moduan, erretiratuaren bazkariarekin itxiko dute hilabete hau. Txuringo tabernan izango da bazkaria, eta txartelak Euskalduna eta Txuringo tabernetan eros daitezke. Bapo bazkaldu eta gero, opariaren zozketa egongo dela iragarri du Olivaresek. Dirudieenez, azaroan zehar Osintxun ez da indigaztainerik egongo.



Azken urteetan bezala, Poxpolo Eta Konpainia Osintxun egongo dira. | GOIENA

'AZAROA GAZTAÑATAN'

AZAROA 9

17:30 Poxpolo Eta Konpainia.

AZAROA 12

19:30 Ardo eta txakolin dastatzea.

AZAROA 15

22:15 Maribel Salasen *Monolokoak*.

AZAROA 17

19:00 Gaztainak eta sagardoa.

21:00 Arimetako afaria.

AZAROA 23

12:00 Umeentzako tailerrak.

AZAROA 30

14:00 Erretiratuaren bazkaria.



XABALOTE GAZTELEKUA

'Paintball'-eko irteeran primeran pasa genuen

Zapatuan, 09:00etan irtenda, 49 lagun joan ginen Lasturrera, *paintball*-ean jolastera. Goiza bertan igaro eta gero, Lasturren bazkaldu, eta jarraian Zarautzera joan ginen arratsalde-pasa. 20:00etarako etxean geunden. Dena primeran irten zen, umorea eta eguraldia lagun izan genituen. A, bihar argazki panela berrituko dugu!

KOMUNITATEA GOIENA | BERGARA
XABALOTE GAZTELEKUA | BERGARA

Diariovasco pilota txapelketaren binakakoak final-laurdenetara iritsiko dira gaur, 19:30ean

Emozioz beteriko ligaxkaren ostean, Diariovasco txapelketaren binakako final-laurdenak gaur arratsaldean jokatuko dira. Promesen mailan, Arteaga-Etxebarria eta Elordi-Martinez lehiatuko dira. Horien ostean, nagusien mailako Arrese-K. Galartza eta Santxo-A. Imaz jokalarien txanda izango da. Partidu guztiak Udal Pilotalekuan jokatuko dira.

Lehen postuetan jarraitzeko moduko partidua jokatuko dute herriko saskibaloitoki jokalariek Legazpin

Joan den astean postu dezente aurreratu ostean, aste honetan aurreneko postuetan egonkortzeko moduko partidua jokatuko dute bihar, 16:00etan, Legazpiko Bikuña kiroldegian. Soraluez BKEk Andraitz taldea izango du parean, eta, sailkapenean begiratuta partidua erraza izango dela ematen duen arren, herriko mutilak onena ematera irtengo dira.

Joan den astean zulotik irteteko ekindako bidari utsi nahi diote eskubaloitoki taldeko mutilek

Etxean erakutsitako maila ameskeria ez zela izan frogatzeko hitzordua dute Bergara KE taldeko jokalariek. Bihar 20:15ean K2 Corazonistas taldearen kontra jokatuko dute, Gasteizen. Arabarrek puntu gehiago lortu dituzte, eta, sailkapenean gorago dauden arren, herriko mutilek joan den asteko mailari eusten badiote partidua irabazteko aukera izango dute.

Laino skate parkeak bost urte betetzen dituela eta, egun osoko musika eta skate festa egingo dute bihar

Laino festa egingo dute bihar, bosgarren urteurrena ospatzeko. 14:00etan, parrillada egingo dute. 16:00etan, Miniramp txapelketa egingo dute eta sari potoloak egongo dira. 22:30ean, The Soulbreaker Company eta Pow Pow Pows taldeek kontzertua eskainiko dute eta 01:00etan, DJ festa egongo da.

Abenduaren 21ean, 22an eta 23an egingo den Tattoo Circus topaketaren aurkezpena gaur

Gaur aurkeztuko dute Tattoo Circus topaketa kartzela zaharrean. 20:30ean, afari beganoa egingo dute eta ondoren, aurreko edizioaren bideoa ikusteko aukera egongo da. 22:00etan, berri, kontzertua egingo dute Perlak eta Pobresiak taldeek. Sarrerak Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan eros daitezke.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



IXAUN Jatetxea

Elosu auzoa 6 - Bergara
Tel.: 680 77 69 33

Gosariak
Bazkariak
Afariak
Sagardotegiko menua
Eguneko menua
Plater konbinatuak
Karta
Ogitartekoak
Pintxoak
Enkarguak

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak


Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

ANTIA


HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*


Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Agertoki ezberdinak izateko aukera emango du. | VAUMM ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA



Aretoa, eserleku guztiak erabilgarri dituela. | VAUMM ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA



Eserlekuak gordeta, erakusketarako ere balioko du. | VAUMM ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA



Zine emanaldiak ere egin ahal izango dira. | VAUMM ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA



Martitzenean aurkeztu zuten eliza eraberritzeko proiektua. | IMANOL GALLEGO

Askotariko erabilerak izango dituen kultura aretoa Seminarioan

Bi astez, aurreproiektua udaletxeko lehen solairuan ikusgai egongo da

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Martitzenean Seminarioko elizak atek zabaldu zituen, etorkizunean eraikinak barruan hartuko duen aretoa eraberritzeko aurreproiektua bertan aurkeztu zuten eta. Vaumm enpresako Jon Muniategiandikoetxea arkitektoak azaldu zuenez, euren proposame-

nak hiru ardatz ditu: ondarearen errespetua, askotariko erabilerak izango dituen areto bat sortzea eta jasangarritasun ekonomikoa, hain zuzen ere.

Hurrengo pausoak

Datozen asteetan Udaleko Kulturaren arduradunak herriko kultura

eragileekin batuko dira. "Euren iritzi eta ekarpenak batu nahi ditugu", dio Kultura zinegotzi Leire Iruinek.

Zinegotziak argi dauka areto hori ez dela herritarrek askotan eskatu izan duten antzokia izango, baina herriak dituen behar asko aseko ditu: zinea, ikuskizun txi-

kiak... "Orain arte bezala, ikuskizun handiak frontoian egingo dira", argitu du Kultura arduradunak. Herritarrek udaletxeko lehen solairuan ikus dezakete aurreproiektua.

Lanaren epeak

Aurreproiektua aurkeztuta, eta kultura taldeekin egingo den

MARIA PILAR LARRAÑAGA



"Eliza itxita egon beharrean, beste erabilpen bat ematea oso ona dela iruditzen zait. Proiektua gustatu zait eta eraikin honen kokalekua ezin da aproposagoa izan".

XABIER ZABALA



"Proiektu polita eta originala dela iruditzen zait; ikusle kopuruaren eta askotariko erabileraren gainera, ondarearen babesari eman zaio garrantzia".

ROSA MARI LARRAÑAGA



"Lekua zoragarria da eta urteetan itxita egon ostean beste erabilerara bat emango diote. Arkitektoa zoragarria da eta ziur probetxu handia aterako diola eliza honi".

GOTZON BIKUÑA



"Bergarak honelako areto baten beharra zuen. Argazki eta proiektuari usain ona hartzen diot, baina lanak, burutu eta gero ikusten dira".

MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA



"Proiektua ona da, eta lekua primerakoa. Ez da areto handia, baina gauza askotariko erabili ahal izango da. Onena izango litzateke aretoari erabilpen handia ematea".

prozesuaren ostean, otsailerako proiektua idatzita izatea espero dute. "Apirilerako lanak hastera da gure asmoa", esan du Iruinek.

MIZPILDI
OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

TELEIXA
BILTEGIAK
Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Antoninoren seme-alabak eta bandako eta Udaleko ordezkariak egueneko aurkezpenean. | IMANOL GALLEGO

Ibarrondo gogoan, liburua, diskoa eta kontzertuak

Domekan da haren omenezko lehen kontzertua; Felix Ibarrondo semearen piezak entzungo dira parrokan

IMANOL GALLEGO | OÑATI

Antonino Ibarrondo zena gogoan antolatu dituzte 36. Musikegunak, jaio zela 100 urte bete direla aitzakia hartuta, hain zuzen. Hala, haren omenezko liburu bat eta disko bat kaleratu dute aste honetan bertan, eta hiru kontzertu antolatu dituzte hilabete honetarako, azarorako.

'Aitaren etxea'

San Migel parrokan izango dira hiru kontzertuak eta lehenengoa asteburu honetan bertan izango da, domekan, 19:00etan.

Haren seme Felix Ibarrondoren piezak entzungo dira kontzertu horretan. "Gure aita gizon arrunta baina berezia zen. Pozik

nago aitak merezi duen aitortpena jaso duelako eta omenduko dutelako. Domekako kontzertua, esaterako, berezia izango da, lehen aldiz entzungo da bere lehen obra, *Aitaren etxea*. Horrez gain, baina, nire ibilbidea zein izan den ere ikusiko da kontzertuan entzungo diren piezen bitartez", azaldu du Felix Ibarrondok.

Datorren domekan, Antonino Ibarrondok zuzendu zuen Bilboko Bandak egingo du emanaldia eta hilaren 23an, Oñatiko Udal Musika Bandarekin batera, herriko abesbatzek kontzertu bateratua egingo dute. Azken kontzertu horretan ere Antonino Ibarrondoren oñatiar sena nabaritutako dute entzuleek. "Gure

aitak ia 400 pieza egin zituen, baina denak dira oñatiarrak. Horretan pena dut nik, larregiko oñatiarra izan zela. Pieza horiek ezin ditut hemendik kanpora atera, ezta Legazpira, Bergarara edo Arrasatera ere, esaterako", azaldu zuen Iñaxio Ibarrondok atzo prentsaren aurrean.

Liburua eta diskoa

Antonino Ibarrondo musikariari buruzko liburua Xabier Ugartek eta Jose Antonio Ibarrondok egin dute. "Bere bizitza osoan ez zuen besterik egin: musika bizi, neurri batean musikatik bizi, eta musika hau beste batzuen eskuetan jarri. Musika bizi eta partekatze hori batez ere banda bidez egin

KONTZERTUEN EGITARAUA

AZAROAK 9

19:00 Ensemble Sinkro. San Migel parrokan.

AZAROAK 16

19:00 Bilboko banda. San Migel parrokan.

AZAROAK 23

19:00 Antonino Ibarrondo gogoan. Oñatiko musika taldeek Antonino Ibarrondori omenaldia. Parte-hartzaileak: Ganbara, Oñati eta parrokiako abesbatzak; udal txistulariak; Udal Musika Bandak. San Migel parrokan.

zuen: banda zuzendari, musika irakasle eta bandarako musika konposatzailea izan zen", azaldu zuen Azpiatzuk egueneko aurkezpenean. Musika sortzaile eta ekoizle kontuak ez ezik, hark bizitako anekdotak ere jasotzen ditu liburua.

Diskoan, Oñatiko Udal Musika Bandak eta herriko hainbat abesbatzak parte hartu dute. Bi produktuak Txokolateixian eta Turismo Bulegoan daude salgai, sei eurotan. Azaroko emanaldietan, berriz, bost eurotan.

Hermansaloñarako dirua

Musikegunen barruan egongo diren musika emanaldietan, bestalde, dirua batzeko mahaiak jarriko ditu Hermansaloña elkar-teak. Bertako kide Jose Antonio Urteagak adierazi duenez, Argentinako Nazareth proiekturako dirua izango da batuko dutena: "Tailer bat egiteko prozesua bukatzeko erabiliko dugu dirua. 2015eko bigarren zatian jarri gura da martxan tailer hori. Eraikina eginda dago, baina inbertsio batzuk falta dira egiteko egitasmoa osatzeko, eta horretarako erabiliko dugu dirua".

Kataluniako galdeketa inguruko mozioa aurrera

O.E. | OÑATI

Udalbatzak aho batez onartu zuen, urriko osoko bilkuran, Auzitegi Konstituzionalak Kataluniako kontsulta behin-behinekoz bertan behera uzteko hartu zuen erabakiari buruzko mozioa. Bilduk aurkeztu zuen, eta, EAJk proposatuta, Batzar Nagusietan onartutakoarekin osatu zen.

Herriek eta pertsonen beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna defenditzen zen lehen puntuan, etorkizuna inposizioekin ezin dela eraiki zehaztuta. Era berean, Oñatiko Udalak bere desadostasuna azaltzen du Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsioarekin eta Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakiarekin. Eta ondorioz, Auzitegi Konstituzionalari bere erabakian atzera egiteko eskatzen dio. Azkenik, Udalaren erabakia, Espainiako Gobernuari, Auzitegi Konstituzionalari eta Generalitateari bidaltzea proposatzen zen. Generalitateak, debekuen gainetik, galdeketa eusten dio.

Dantzaldi berezia egingo dute domekan kontzejupean

Domekan, 18:30ean, dantzaldi berezia egingo dute udaletxe-ko arkupeetan, kontzejupean. Txistulariekin, Jose de Azpiatzu musika eskolako akordeoi-larien laguntzarekin eta Oñatz dantza taldeko haurrekin izango da dantzaldia eta helburua da euskal folklorea suspertzea. Musika eskolako musikariak ere egongo dira.

Erretiratuen Ibilbidea antolatzen lagundu diguzuenoi, eskerrik asko

KOMUNITATEA GOIENA | PAKE LEKU ELKARTEA | OÑATI

Gipuzkoako Erretiratuen Ibilaldia antolatu genuen joan den urriaren 25erako Oñatin eta eskerrak eman gura dizkiegu egun hori prestatzen lagundu digutenei. Gipuzkoako 73 erretiratu elkartetatik etorri ziren hona, 600 lagun baino gehiago, eta pozik joan ziren Oñatitik. Horixe zen guk gura genuena. Batetik, kanpotik etorritakoei Oñati erakustea eta bestetik, pozik joatea, gustura ibili ziren sentazioarekin bueltatzea etxera. Eta lortu genuen.

Hori, baina, ez genuen Pake Lekuko lagunok bakarrik lortu,

gurekin batera egun hori antolatzen ibili ziren herriko merkataria, ostalari, enpresa, komunikabide, zerbitzu, erakunde eta baita oñatiar guztiek ere. Eta eskerrak eman gura dizkiegu. Eskerrik asko denoi.



Erretiratuen Ibilaldia. | IMANOL SORIANO

Laster zabalduko dute aisialdiko ortuetan izena emateko epea eta zozketa abenduan egingo dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Aisialdirako ortuen araudia behin betiko onartu zuten urriaren 30eko osoko bilkuran. Egunean bertan bidali zuen Udaleko idazkariak Gipuzkoako buletinera, eta, behin han publikatuta, zozketarako deialdia egin dezake alkateak. Zozketa jendaurrekoa izango da eta abenduan egingo dute, ziurrenik.

Zozketaren deialdia egin ostean, herritarrek 10 egun naturaleko epea izango dute izena emateko. Interesa duten guztiek eman behar dute izena, baita uda aurretik eman zutenek ere. Haiei,

gainera, gutun bidez jakinaraziko zaie zozketa noiz den, eta betetzeko instantzia ere bidaliko zaie gutun berean.

Izen-emate epea bukatutakoan, onartutakoan behin-behineko zerrenda aterako du Udalak eta 10 laneguneko epea egongo da gero alegazioetarako. Behin betiko zerrenda kaleratzearekin batera jakinaraziko da zozketaren eguna zein izango den.

Ortuak egongo diren lursaila goldatuta dago eta pasilloak egin da. Sailaren zati bateko lurra jaso barik dago oraindik, eta, beraz, oraindik ezin da zehaztu



Ortuen lursaila. | IRATI GOITIA

zenbat ortu egokituko diren. Denak, hori bai, 30 metro koadro ingurukoak izango dira. Lanabesak uzteko eta aldagela moduan erabiliko diren etxolak ere jarritzeko daude oraindik.

Parte hartzeko prest dagoen jende gehiago gura dute Ortuzabala kontsumo taldekoek

Lau neskek hartu dute Iban Telleriaren lekukoa, eta beste hamar lagun lortu eta 25 izan nahi dute

JULEN IRIONDO | OÑATI

Hiru urte egin ditu Iban Telleriak Ortuzabala kontsumo taldeko ekoizle gisa, eta, orain, hark utzi eta lau lagunek hartu diote lekukoa, arreba Arianek eta beste hiru neskek: Rebeka Maestrok, Arantzazu Sagarzazuk eta Ane Anduagak.

Lanerako ere jende gehiago izanda, eurek ekoiztutako produktuak jasotzen dituztenen taldea ere handitu nahi dute: Iban Telleriak zituenei gehituko zaizkien dozena erdi bat lagunetz gain, beste hamar bat gura dituzte, 25 ingurura iristeko. Horientzako guztientzako barazkiak ekoizteko ahalmena badutela diote, eta euren asmoa da taldea handitu ahala ortukoa denen ogibide bilakatzea, lanerako baldintza eta soldata duinekin.

"Kontsumo taldekoa ez da harreman komertzial hutsa"; hori

ere argi uzten dute ekoizle lanetan dihardutenek. Horrela, aste-roko otarra jasotzen dutenek parte hartzen dute, horrez gain, ortuaren planifikazioan –zer erein edo landatu erabakitzen–, eta auzolanetan jarduteko konpromisoa ere hartzen dute.

Bi hilean behin-edo egiten dituzte auzolanak, eta izaten dira denbora luzea eskatzen duten lan errazak: kipula sartzea, patata jasotzea...

70 euro hilean

Otarreak jasotzerakoan, berriz, bi aukera daude: osoa edo erdia. Osoagatik 70 euro ordaintzen dira hilean, eta orain, adibidez, dakar: lau porru, kilo bat kalabaza, kilo erdi kipula, kilo erdi espinaka, aza bat, azalore bat, brokoli bat, hiru erremolatxa, errefautxo sorta (rabanilloa), eskarola, letxuga eta kilo bat patata.



Rebeka Maestro eta Ariane Telleria, Murgia auzoko ortuan. | JULEN IRIONDO

Saskiaren erdia horren erdia litzateke kopuruz, eta prezioa 40 euro. Astean behingo otarre osoek, beraz, 17,5 euro balio dute: produktuei ematen diete 15 euroko balioa, eta gainerako 2,5 euroak dira "proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko", diotenez. Aipatutako produktuez gain, taldeko kideek beste ekoizle batzuen produktuak ere ekartzen dituzte tarteka kanpotik, marmelada, ogia edo pasta, adibidez, saskia osatzeko, betiere salmenta zuzenaren bitartez.

Otarreak uzten dituzte Ortuzabala kontsumo taldeak ETEOn duen lokalean, martitzenetan, 17:00etan, eta ordutik aurrera dagokiona jasotzera edozein unetan joan daiteke taldeko kidea, nor bere giltza du-eta.

Izena emateko

Ortuzabalak hektarea eta erdiko ortua du Murgia auzoan, eta era ekologikoan egiten dute lan bertan. Orain ekoizpenaren ardura hartu duten neskek aurretik ere ortuko lanetan ibilitakoak dira,

nahiz eta era apalagoan eta euren zako. Orain, neurria ere handitu denez eta taldekideekiko konpromisoa dutenez, formazio saioetan parte hartzekoak ere badira, euren ezagutza handitzeko.

Kontsumo taldeko kide izan nahi luketentzat horren berri emateko bi bide jarri dituzte: ortuzabala@gmail.com helbide elektronikoa eta 670 56 62 51 telefono zenbakia. Horrez gain, informazio bilerak ere deitu dute datorren eguenerako, hilak 13: 19:00etan ETEOn.

Oñatiko Elur enpresak egin da Zubikoako tenis pistako estalkia

Egitura funtzionala izateaz gain, ikusgarria izan zedin ere nahi izan dute

JULEN IRIONDO | OÑATI

Abenduan inauguratu nahi dute tenis pista eraberritua, estalkidun pista, euriarekin ere bertan ari-zeko aukera emango duena; lanak aurrera doaz poliki-poliki. Egurrezko egitura berezia da Zubikoako bi pistetako baten jartzen ari direna, eta are bereziago egiten du Oñatin bertan diseinatu-takoa izateak: Lana Taldeko Elur enpresan, hain zuzen ere.

"Normalizat jotzen dugunarekiko desberdina da. Ohituta gaude metalezko edo hormigoizko pilareak ikusten; gero habe zuzen batzuk, edo goian formaren bat dutenak estalki gisa. Honek, berriz, egurrezko pilareak ditu, kurbadun forma, habeak... Bere zailtasuna du, eta deigarria da duen forma bereziagatik", dio Elurreko zuzendari tekniko Pol Zearrak.

Egurra ezaugarri

Egurra bera da, formaz gain, egituraren ezaugarri nagusietakoa: "Egurra da elementu bat duela 20-30 urtera arte Espainian ez zena erabiltzen, dena zen hormigoia eta metala. European urte gehiagoko tradizioa du, eta



Tenis pistan estalkia jartzen. | POL ZEARRA

hemen hasi gara poliki-poliki egurra gehiago erabiltzen. Arkitektoak gero eta gehiago ari dira material hau ezagutzen egituretarako material modura, ez soilik dekorazio modura, eta, egia esan, gero eta gehiago ikusten da", dio Zearrak. Horrela, egurrezko egiturak bi baldintzak betetzen ditu, funtzionala izatea eta, aldi berean, erakargarria.

Krisiak eragin du Elur enpresak egiten dituen lanen antzerakoak egiten zituzten beste batzuk desagertzen joatea, eta gaur egun bakarrak dira inguruan. Obra kopurua jaitsi egin den arren, enpresak ere gutxiago izanda, aukera gehiago ei dituzte. 2014. urtea ona izaten ari omen da eurentzako, eta aurreikuspen politikak dituzte 2015erako ere.

Biharko mosaikorako izena eman ahal izango da gaur; domekan, elkarretaratzea Foruen plazan

Gure Esku Dagok mosaiko erraldoia egingo du –aterkiekin inoiz egin den handiena– zapatuan Donostiako Zurriolako hondartzan, eta oraindik badago aukera ekitaldi horretarako izena emateko. Gaur, egubakoitza, plazan egongo da Oñatiko taldearen mahaia (19:00-21:00).

Mosaikoa 11:00etan izango da, eta ekintza horrekin esko-

ziarrak zoriontzea nahi da, eta kataluniarrei elkartasuna adieraztea. Hain justu ere, domekan, Kataluniako kontsultaren egunean, bilkura egingo dugu plazan, 13:00etan, *Katalunia: urrats bat, erabaki bat; hauxe da bidea, ara es l'hora* leloarekin.

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | OÑATI

Astehenera arteko ehiza postuak erabakiko dituzte gaur iluntzean egingo duten azken zozketan

Gaur, egubakoitza, egingo dituzte ehiza postuen azken zozketak. Zapatuko, domekako eta astehenerako postuak zozkatuko dituzte. Aizkorri-Aratz lerroan dauden postuen azken zozketak izango dira. Betiko moduan, Oñati tabernan izango dira. 19:30ean hasiko dira izenak hartzen eta zozketa 20:00etan hasiko da. Ehiztari bakoitzak txartel bakarra aurkeztu ahal izango du.

Domekatik aurrera neguko ordutegia izango du Arantzazu eta Oñati lotzen duen autobus lineak

Azaroaren 9tik aurrera neguko ordutegia izango dute Arantzazu eta Oñati lotzen duten autobusek. Hala, Oñatin 07:30ean hasiko da zerbitzua eta Arantzazutik azken autobusa 18:00etan jaitsiko da. Eguerdian, 14:00etatik 16:30ak arte, etenaldia izango du zerbitzuak. Bada, neguko ordutegia datorren martxoaren 29ra arte egongo da indarrean.



Vivir en Villa Titiritaina antzezlan, iaz Santa Ana antzokian egin zuten emanaldian. | GOIENA

'Novedades en Villa Titiritaina' antzezlan Ikusi Makusikoen eskutik

Horrekin amaituko dute aste kulturala Pake Lekuko erretiratuek; beste hainbat ekintza ere izan dituzte

IRATI GOITIA | OÑATI

Aste kulturala ospatu dute Pake Lekuko erretiratuek asteen. Hala, astelehenean hasita, hainbat ekintza izan dituzte: Pake Lekuko Aloña abesbatzaren eta Hernaniko Goiz Eguzki abesbatzaren kontzertua; Jose Antonio Azpiauren hitzaldia eta bingo berezia. Gaur emango diote amaiera, *Novedades en Villa Titiritaina* antzezlanean.

Ligatze kontuak

Como *ligaban nuestros mayores* izeneko hitzaldia egin zuen Jose

Antonio Azpiazu historialariak martitzenean. Hala, Francoren garaian ligatzeko izaten ziren zailtasunen gainean jardun zuen, adibidez. "Orduan, zinematik eta dantzaldiak izaten ziren ligatzeko aukerak", esan zuen. Bestalde, XVI-XVII. mendeetan askoz askatasun handiagoa zegoela aipatu zuen. "Aurreratuagoak ziren. XV. mendean, esaterako, abadeek eurek ere ez zuten zelibaturik. Neurri zorrotzak geroagoko kontuak izan ziren". Sifilia ere hartu zuen berabagai, besteak beste, historialari oñatiarrak.

Antzerkia gaur 17:30ean

Pake Lekuko Ikusi Makusi antzerki taldekoek *Novedades en Villa Titiritaina* antzezlan estreinatuko dute gaur Santa Ana antzokian, 17:30ean. Horrekin emango diote amaiera aste kulturalari, hain zuzen ere. Saioa erretiratuendako bakarrik izango da –sarrerak dagoeneko banatuta dituzte–.

Iaz egin zuten *Vivir en Villa Titiritaina* antzezlanean jarripena da. Hala, orduko kuadrilla protagonistaren nobedadeak kontatuko dituzte.

Euskadiko Karate Txapelketan, bi domina

Euskadiko Karate Txapelketak jokatu ziren zapatuan Gasteizko Arriaga kiroldegian. Aloña Mendiko karate sailekoek bi domina eskuratu zituzten: Oier Alberdik bigarren egin zuen kumitean junior mailan (76 kilotik gorakoetan) eta Imanol Astudillo hirugarren izan zen kumitean kadete mailan (52 kilotik beherakoetan).



ALOÑA MENDI KARATE SAILA

Kamerak eskuan, film laburrak grabatuko dituzte bihar, OLRn

I.G. | OÑATI

Bihar, zapatua, egingo dute Oñatiko Laburmetrai Rallyaren V. aldia. Hala, plato erraldoi bilakatuko dute herria parte-hartzaileek.

Hamaika ordu

Parte-hartzaileek hamaika ordu izango dituzte euren lanak aurkezteko. Goizeko zortzietan hasiko dute eguna. Orduan jakinaraziko dizkiete antolatzaileek film laburrean erabili beharreko generoa eta objektua. Horretaz gain, zehaztutako herriko hamar tokitatik bik agertu beharko dute euren ikus-entzuzkoetan. Gosaria eskainiko zaie, eguna ondo hasteko, gaztelekuan, 08:00etan. Eta 19:00eta-

rako entregatu beharko dituzte eginiko film laburrak. Bada, egun osoko lanaren ostean, luntxa izango dute gaztelekuan.

Sari bereziak

21:30ean egingo dute lan guztien proiektzioa Santa Anan. Aurretik, baina, parte-hartzaileen *photocall*-a egingo dute antzokian bertan.

Talde irabazleak 300 euroko saria jasoko du, bigarren gertzen denak 150 eurokoa eta hirugarrenak 100 eurokoa. Publikoaren saria jasotzen duenak 100 euroko saria izango du. Aurten, lehendabizikoz, bi sari berezi ere emango dituzte: emakumezko eta gizonezko aktore onenen sariak.



Neska talde bat film laburra grabatzen, iazko edizioan. | IRATI GOITIA

'Zumba' eta 'ziklon' saioak egingo dituzte bihar Zubikoa kiroldegian

I.G. | OÑATI

Zumba eta spinning ikasleentzako zirkuituak antolatu dituzte eta lehenengo saioak bihar izango dira Zubikoa kiroldegian. "Ikasleen topaketak izango dira. Hein batean, eskola bereziak izango dira eta parte-hartzaileek aukera izango dute hainbat herritako instalazioak eta monitorea ezagutzeko. Horrela, aste barruan egiten duten horri beste ikuspegi bat emango diogu", esan du Asier Agirre monitorea.

Bi zirkuitu edo erronka antolatu dituzte: *zumba* erronka eta areto bizikleta erronka. *Zumba*-ko eskolak izango dira Oñatin (azaroak 8), Eskoriatzan (urtarrilak 24), Arrasaten (otsailak 7) eta Antzuolan (martxoak

7). Areto bizikleta erronkaren dinamika ere bera izango da. Kasu horretan, baina, sei herritan egingo dira spinning saioak: aipatutako lauretan, gehi Zumarragan (azaroak 29) eta Legazpin (azaroak 21) –gainerakoak *zumba*-ko saioen egun beretan dira–. Bi erronkei amaiera emateko, maratoiak egingo dituzte martxoaren 28an. Saiotan parte hartzeko aurretiaz eman behar da izena. "Interesa dutenek nahi duten eskolan eman dezakete izena. Nork bere kiroldegian egin beharko du, bost euroko fidantza jarrita", azaldu du Agirrek.

Zapatu honetan Oñatin egingo den *Zumba Day* delakoa aerobik gelan izango da eta *Ziklon Day* izenekoa, fite-bike gelan.

Kirol elkarteentzat oinarrizko prestakuntza eskainiko dute Eskoriatzan hilaren 14an eta 21ean

Kirol hastapeneko ikaste-irakaste prozesuen azterketa landuko dute kirol elkartei zuzendutako ikastaroan. Hein batean, oinarrizko prestakuntza jasoko dute parte-hartzaileek. Ikastaroa doakoa da eta Debagoieneko Mankomunitateak antolatu du. Ibarraundi museoa egingo dute azaroaren 14an eta 21ean. Interesa dutenek azaroaren 12ra arte dute izena emateko. Horretarako, 943-71 53 28 telefonora deitu behar da, edo *kirolak@eskoriatza.net* helbidera idatzi.

'Azaro iraultzailia', gazteen topagune izango den ekimena

- ▶ Hitzaldiak, dokumentalak eta tailerrak izango dituzte gaur hasita, eta 29an Gazte Eguna
- ▶ Elkarrengandik ikasi eta janzteko tarteak hartu gura dituzte abian jarritako prozesuarekin

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA
Aretxabaletako Gazte Ekimenak *Azaro iraultzailia* egitaraua aurkeztu du. Ekintzaz betetako azaroa iragarri dute, eta, besteak beste, hitzaldiak, dokumentalak eta tailerrak izango dituzte; eta azaroaren 29an, ekimena bukatzeko, Gazte Eguna.

Etorkezun beltzaren aurrean, "desadostasuna adierazi eta alternatibak eraikitzeke ordua" dela diote. Hala, ikasteko eta eztabaidatzeko uneak hartuko dituzte, eta herri boterea, herri mugimendua, elikadura burujabetza, genero desberdintasuna eta beste hainbat gai landu.

"Bidean gaude, eta, ilusioa bidelagun edukita, aldaketan pausoak ematen gabiltza", esan dute, eta gaineratu: "Burujabetza oinarritzat izanda, elkarlanean egingo dugu aurrera". Eta zera aldarrikatu dute guztiek: "Ideia ebatu, ekintzarako antolatu, bizi eredia eraldatu!".



Gazte Topaguneko kideak azaroko egitasmoa aurkezten. | MIRARI ALTUBE

IDOIA SANCHEZ | GAZTE EKIMENEN KIDEA

"Sistemaren soka eteteko modu bakarra egunerokotasunean burujabe izatea da"

Burujabetzan eta elkarlanean oinarritutako egitarauaren berri eman dute Gazte Ekimeneko kideek; horien artean dago Idoia Sanchez. **Abiapuntua izan zen udaberri inguruan egindako Elkartu, hausnartu, ekin egitasmoa. Zer ikasi zenuen orduan?**

Gazteok kolektibo bat osatzen dugula konturatu ginen, ilusioa zein arazo berdinak partekatzen ditugun kolektiboa. Horren aurrean, problema kolektiboari eran-

tzun kolektibo batekin aurre egin behar zaiola argi ikusi genuen. Gaur egungo krisi sistematikoak gazteak dituzte jomugan, eta, horren aurrean, elkartzea da daukagun hauturik onena. Langabezia gora doa, gazteon egoera gero eta prekarioagoa da... Hala eta guztiz, eraldaketarako aukerak hazi egin direla ikusi dugu.

Jairako baino gehiago, lanerako ekimena da deitu duzuen Azaro iraultzailia, ezta?

Lanerako baino gehiago, lanerako prestakuntza moduan ikusten dugu. Azaroko ekimenak gazteon topagune izatea da gure helburua, elkarrengandik ikasiz, gure burua jantzi eta aurrera begira etorriko diren lanei etekina ateratzeko. Hala ere, aldarrikapena eta festa uztartuko ditugu.

Burujabetza eta elkarlana azpimarratu gura izan dituzue, zergatik?

Gazteok ez gara gure buruaren jabe eta sistemak hori

erabiltzen du gu zapaltzeko. Sistema horren sokari lotuta bizi gara eta soka hori eteteko modu bakarra egunerokotasunean burujabe izatea da, norbanako zein kolektibo moduan. Elkarlanean soilik lortuko da egoerari buelta ematea.

Gazteendako ekimena da, baina gainerako herritarrek ere gonbidatu gura dituzue, ezta?

Gazteon kolektiboari buruz egin dugu berba, baina herria bera ere kolektiboki ikusten dugu, eta hainbat arazo partekatzen ditugu. Hori horrela izanda, nor bere esparruan eraldaketako subjektu izatea ezinbesteko ikusten dugu.

Bozkatu dute neska-mutikoen eta orain herritarrek dute aukera

Gernika plazako jolasparkea aukeratzeko botoa eman ahal izango da gaur eta bihar Arkupen

M.A. | ARETXABALETA
Aretxabaletako Lehen Hezkuntzako neska-mutikoen, 6 eta 11 urte artekoek, dagoeneko bozkatu dute Gernika plazako jolasparkerako zein proiektu gura duten. Hain zuzen ere, Arizmendi Ikastolako Almeneko 225 bat neska-mutikok martitzenean egin zuten bozketa eta Kurtzebarri Eskolako 285 gaztetxok eguazten goizean.

Orain, herritarrek daukate bozkatzeko aukera. Argibideak gura izan dituenarendako batzarrak egin zuten eguaztenean, eta proiektuak Arkupeko harrerandaude ikusgai oraindik. Hautetsontzia Arkupen egongo da gaur, 09:00etatik 12:00etara eta 16:30etik

19:00etara, eta bihar, zapatua, 10:00etatik 13:00etara.

Bozketa prozesua

Herriko neska-mutikoen ere bozkatzeko zer den jakiteko aukera izan dute astean. Hautetsontziak jarri dituzte bi ikastetxeetan, eta, izen-abizenak esan ondoren, banan-banan eman dute botoa. Gero, ikusi egin beharko da norberak aukeratutako hori izango den azkenean hautatua.

Herritarren erabakiak 15 puntu

Hiru enpresak aurkeztu dituzte proiektuak, eta, hirurek antzeko elementuak izan arren, besteak beste txirristak eta kulunkak, oso ezberdinak dira.



Gaztetxo bat botoa hautetsontzian sartzen. | M.A.

Herritarren erabakiak 15 puntu balioko du eta gainontzeko 37ak Udaleko Hirigintza Sailak emango dizkio, hainbat ezaugarri kontuan hartuta; besteak beste, segurtasuna, mugikortasuna, berrikuntza eta inguruarekiko integrazioa.

Gabon ingururako bukatuta


Bada, boto kontaketa egin eta gero, irabazlearen berri datorren eguaztenean emango dute, azaroaren 12an. Ondoren, lanak hasiko dituzte, eta asmoa da Gabon ingururako bukatuta egoera jolasparerako gunea.

ALAITZ URTZELAI
ARIZMENDI
IKASTOLA



"Niri bigarren proposamena gustatu zait, sei metro ditu eta politena dela uste dut, eta nire lagunak ere horixe esan dute. Irakasleek esan digute Gernika plazako jolasparkea berrikuntzako dutela eta hiru proposamen daudela, eta ondo iruditu zait guri ere iritzia eskatzea".

DANEL GOMEZ
KURTZEBARRI
ESKOLA



"Bigarren proposamena aukeratu dut, altuera handiena duelako. Niri politena iruditu zait, eta dibertigarriena. Lagun batzuek ere bigarrena aukeratu dute eta beste batzuek hirugarrena. Gelan azaldu digute eta etxean amarekin ere egin dut berba; jolasparkea aldatzea ondo dagoela esan dit".

Ademgi elkarteko lagunak irriak sortzeko jaialdia azaroaren 16an

Iriren Lagunen jaia da, esklerosi anizkoitza dutenen elkarteari laguntzeko

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ane pirata eta haren lagun piratak hurbilduko dira Ibarra kiroldegira azaroaren 16an, domeka (17:00). Elkartasuna helburu, Iriren Lagunek dantzan jarriko dituzte umeak, helduak eta nagusiak, baita herriko elkarteetako kideak ere: "Aretxabaleta elkartasunean murgilduko dugu", jakinarazi du Ane piratak, Anabel Arraizak. Sarrerak astelehenean jarriko dituzte salgai 5 eurotan, Arkupeko harreran.



Ademgi kideak, Iriren Lagunekoak eta Udaleko Kultura ordezkariak. | M.A.

Errehabilitaziorako dirua

Ademgi Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkartearendako izango da jasotako diru guztia (lagundu gura duenarendako kontu korrontea: ES56 2095 5002 57 10 61134275). Aurten 20. urteurrena bete du eta gaixotasuna jasaten duten gipuzkoarrei, 700 lagun inguru (Euskadin, 2.200), izugarriko laguntza ematen die. Nerbio sistema zentrolean gertatzen den gaixotasun neurologikoa da esklerosi anizkoitza, eta sintomarik ohikoenetako batzuk dira: sentimen, oreka eta hitz egiterakoan arazoak; gorputz ahulezia; eta ikusmen eta gernu sisteman alterazioak.

Jon Barriolak, Ademgi gizar-te laguntzaileak, jaialdien helburua jakinarazi du: "Batetik, garrantzitsua iruditzen zaigu gaixotasunaren berri ematea eta gizar-tea sensibilizatzea, bazterketa saihestu eta integrazioa bultzatzeko. Eta bestetik, errehabilitazio zerbitzua emateko dirua jasoko dugu". Izan ere, Ademgi Donostian du zentroa, eta bertan hartzen dituzte, esklerosi anizkoitza dutenak ez ezik, alboko esklerosi amiotrofikoa, gaixotasun neuromuskularrak eta lesio medularrak dituztenak. Esklerosi anizkoitza gaixotasun kronikoa da eta erreha-

bilitazioak zeresan handia du jasaten dutenen bizi kalitatean.

Parte hartzerantz animatu

"Elkartasun ekimen gehienak Donostia inguruan geratzen dira, eta zabaltzea gura genuen. Hala, Aretxabaletako Udalarengana jo eta baiezkoa jasotzea bat", argitu du Ane piratak, Iriren Lagunak gizar-tegintza elkarteko kideak.

Zigor Quintanilla Kultura zinegotzia pozik azaldu da: "Eske- rrik asko jaialdia gurera ekar- tzearen, gurekin gogoratzearen. Herriarrak eta inguruko guztiak animatzen ditut orain, etortzera".

Argazkizkiak helduen literatura lehiaketa deitu du Loramendi elkarteak hirugarrenez

M.A. | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak Argazkizkiak helduendako literatura lehiaketa deitu du. Dagoeneko hirugarren edizioa da, eta argazki bat eta testua aurkeztu behar dira; azken eguna abenduaren 8a da, astelehena.

Lehiaketaren aurtengo gaia da: ametsa. Testua edozein generotako izan daiteke (bertsoa, poesia, ipuina...), baina aurkeztutako argazkiarekin zerikusia izan behar du. Testua A-4 tamainako orrian eraman behar da, eta argazkiak 30x40 neurrian.

Elkar-en erabiltzeko txartelak

Lanak Durana kaleko Loramendiren bulegoan aurkeztu behar dira kartazal batean, ezizenarekin. Barruan, beste kartazal baten, egilearen datuak zehaztuko dira: izen-abizenak; helbide elektronikoa; eta telefonoa.

Epaimahaia osatuko du Loramendiren kultura taldeak eta sari banaketa ekitaldia abenduaren 19an izango da. Sariak dira Elkar-en erabiltzeko txartelak: lehenengoarendako, 100 euro; bigarrenarendako, 60 euro; eta hirugarrenarendako 40 euro.

Marrazki lehiaketa deitu du liburutegiak irakur puntua egiteko

Lehiaketa bidez hautatuko du Udal Liburutegiak 2015eko irakur puntua, eta 14 urtetik gorako aretxabaletarrei egin diete dei. Saria 250 euro da.

Hona marrazkiak izan beharko dituen baldintzak: 20 zentimetroko altuera eta 5,5 zentimetroko zabalera. Gaia eta teknika, ostera, libreak dira (marrazkiak argitaratu gabea izan behar du). Lanak Udal Liburutegira eraman behar dira azaroaren 28a baino lehen, bi gutun-azaletan. Bietan, kanpoaldean, ezizena jarrita; batean, marrazkia sartu beharko da (tolestu gabe), eta bestean, egilearen datuak.



GAZTELEKUA

"Gaztelekua martxan da, etorri!"

Joan den asteburuan, *Gaba baltza* ospatzeaz gain, beldurrezko sukaldaritza eta Otxandioko Hontza Xtrem-era irteera egin ditugu. Hurrengoan, gaztelekuaren itxura aldatzen hasiko gara! Eta ikasturtea martxan jarri den bezala, gure bloga ere martxan jarri dugu. Datorren astera arte!

OMUNITATEA GOIENA | GAZTELEKUA | ARETXABALETA

'Up' umeendako antzezlan izango da domekan, 11:30ean, Xabi Larrea protagonista duela

Up antzezlan izango dute neska-mutikoei Arkupe kultur etxean domekan, 11:30ean. Xabi Larrea protagonista duen ikuskizunak bateratuko ditu umorea, antzerkia, zirkuko jolasak, inprobisatze kontuak eta publikoarekin hartu-emana. Jakinarazi dute saio zirrargarria, parte hartzailea, harrigarria eta publikoari irribarrea eta euforia eragiteko gai dena eskainiko duela Larreak.

Joskintza ikastaroa antolatu du Loramendi eta lau egunetan izango dira saioak

Eskuz josteko oinarriko teknikak eta josteko makina erabiltzeko pausoak irakatsiko ditu Uxue Eraña aretxabaletarrak, Loramendiren eskutik. Atzo hasi zuten ikastaroa eta lau saio egingo dituzte egunetan (18:30-20:00). Izena eman gura duenak Loramendira jo dezala: loramendielkartea@gmail.com eta 943-77 09 70 eta 685 75 67 29. Bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte; gainerakoek, 12.

OHARRAK

'EL NIÑO' FILMA ASTE BUKAERAN

El niño (Espainia, 2014) filma (130 min.) emango dute gaur eta bihar (22:00); domekan (19:30); eta astelehenean (16:00). Umeek, oster, *Maia erlea* izango dute bihar eta etzi (17:00).

'IPUIN LOTSATIAK' KONTAKETA BIHAR

Odei Arregi ipuin kontalariak *Ipuin lotsatiak* saioa eskainiko diete neska-mutikoei bihar, 11:30ean, Udal Liburutegian. Sarrera deialde da.

ABADEEN URREZKO EZTEIETARAKO IZEN-EMATEA

Angel Elortza eta Jabier Egaña abadeen urrezko ezteiak ospatuko dituzte Pastoral Barrutiko kideek azaroaren 16an: 12:30ean, meza Eskoriatzako parrokian; eta 14:30ean, bazkaria, Aretxabaletako Hirusta jatetxean. Izena aurrez eman behar da sakristian edo Hirustan (40 euro).

BAINETXEKOEN BAZKARIA

Bainetxe kalean jaiotakoak bazkaltzeko elkartuko dira bihar, Atseden tabernan.

30 urte baino gehiago zure zerbitzura

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4, Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

EGUZKIGRAF inprimategia

KOOP. E.

Energia kontsumoaren gaineko hausnarketa

'Krisiaren aurrean, zer?' galderari erantzungo diote, hitzaldi bi eginda eta aholkularitza zerbitzua eskainita

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Etxeko kontsumoa, autoen gas isurpenak, eredu energetikoa... Ingurumena da kezka iturri Eskoriatzan, eta, horren gainean hausnartzeko, *Eta krisiaren aurrean, zer?* zikloa antolatu dute. Hitzaldi bi izango dira, eta aholkularitza zerbitzua ere bai, debalde, Ibarraundi museoa.

Aholkularitza lau egunean

Batetik, etxeko energia kontsumoa aurrezteko pausoak erakutsiko dituzte Eider Roa aholku-

lariak eta Gotzon Beitia argiketariak astelehenean, hilaren 10ean, egingo duten hitzaldian (18:30): *Etxeko kontsumoa aurrezteko egin beharrekoak*.

Eta bestetik, eredu energetikoaren gainean hausnartzeko dute Goiener-ko kide Diego Egizabalekin azaroaren 24an, 19:00etan. Hitzaldia izango da: *Eredu energetikoaren aldaketarako alternatibak*. Hain zuzen, Goiener kooperatibaren esperientziaren berri emango du hark.

Etxeko kontsumoan aurrez-

teko, aholkularitza zerbitzua eskainiko dute lau egunean: azaroaren 17an eta 24an arratsalde (17:00-19:00) eta azaroaren 12an eta 19an goizez (10:00-12:00).

Lantegira autoan

Bestalde, lantegira autoan joaten direnei eskuorria banatu diete, jakinarazteko zenbat CO2 isurtzen duten lantegirako joan-etorrian; baita zenbat euro gastatzen duten ere. Horren helburua da hausnarketa eragitea eta ohiturak aldatzera bultzatzea.

AUTOA ERABILTZEAREN ONDORIOAK

ESKORIATZARA NONDIK	DISTANTZIA (KM)	JOAN-ETORRIA (KM)	EUROAK		CO2 ISURPENAK	
			HILEKO	URTEKO	AUTOBUSA	AUTOA
Aretxabaleta	3	6	15	180	0,2	1,1
Arrasate	7	14	34	408	0,4	2,5
Oñati	18	36	73,2	878,4	0,9	6,4
Bergara	18	36	73,2	878,4	0,9	6,4
Antzuola	19	38	78	936	1	6,7
Elgeta	25	50	100	1.200	1,3	8,9
Elorrio	22	44	80,4	964,8	1,1	7,8
Durango	44	88	155,6	1.867,2	2,2	15,7
Gasteiz	30	60	107,2	1.286,4	1,5	10,7

OHARRA: CO2 ISURPENAK EGUNEKO.



Spinning zirkuituko saio bat Oñatin. | JOSETXO ARANTZABAL

Kirol eskaintzak osasuntsu hasi du denboraldia

Oraindik eman daiteke izena, eta bi saiotan probatu

M.A. | ESKORIATZA

Urrian abian jarritako kirol eskaintzak erantzun paregabea izan du eskoriatzarren aldetik. Hala, sekula baino talde gehiago sortu direla iragarri dute kirol ordezkariak, eta beste batzuk sortzekotan daudela.

Goizetan pilates eta *zumba* talde bana daude lanean, eta beste hainbat jardueraren gaineko argibide eske ere jende asko gerturatu dela diote; besteak beste, spinningak, body balanceak eta gluteo eta abdominalen gimnasiak sortu dute jakin-mina.

Arratsaldeetan talde gehiago daude eta jende askorekin, gainera. Hala ere, oraindik plaza batzuk badaudela iragarri dute.

Bestalde, kiroldegiko abonatuendako ezarri duten osasun fitness zerbitzuak baditu lehen erabiltzaileak; martitzenetan eta eguenean dago zabalik, 10:15etik 11:15era eta 18:30etik 20:30era. Zerbitzu horri esker, norberaren osasun egoeraren azterketa egiten dute, eta aholkatu zelako ariketa fisikoa egitea komeni zaion bakoitzari. Gainera, Eskoriatzako osasun zentroak eta Udaleko Gizarte eta Kirol zerbitzuek elkarlanean dihardute herritarrei "kirol errezeta medikoa" eskaintzeko.

Eta gogorarazi dute ikasturtea martxan egon arren oraindik badagoela izena emateko aukera. Gainera, gura duenak bi saio debalde egin ditzake proba moduan.

Ekintza osagarriak

Ekintza osagarriak ere egingo dituzte. Spinning eta *zumba* zirkuituetan sartu da kiroldegia, eta Eskoriatzan urtarrilaren 24an egingo dituzte *ziklon day* eta *zumba day* saioak.

Herritarren iritzia jasoko dute biharko EskoHitzan

M.A. | ESKORIATZA

Iritzi, iradokizun, kexa eta ideiak aurkezteko aukera dute bihar herritarrek, gero udal ordezkariari helarazteko. Laugarren EskoHitza ekimena egingo dute, *Denona delako* lelopean. Manuel Muñoz kiroldegian elkartuko dira, 10:00etatik 13:00etara.

Egin dena eta ez dena

Eskoriatzarrendako ez da ekimen berria, lehenengoa 2011n egin zuten-eta *Hartu hitza!* leloarekin. Orduan berba egin zuten hobetu beharreko gaien eta sortu beharreko zerbitzuen gainean. 150 lagun elkartu ziren,

eta han jasotakoa gidari izan da hiru urteotako Udalaren kudeaketan.

Biharkoa, ostera, orain arte herrian egin dena eta egin ez dena aztertzeke bilera izango da. Iaz nork bere katilua eraman zuen kafe baten bueltan elkartzeko, eta oraingoan ere halaxe egingo dute. Gero, taldetan banatuko dira hainbat gairen gainean jarduteko.

EskoHitza gaztea, 16an

Bestalde, aurten, EskoHitza gaztea ere egingo dute, gazteen iritzia jasotzeko. Azaroaren 16an izango da hori.

Telebista kateak berriro sintonizatzeko aldaketak

M.A. | ESKORIATZA

Udalak iragarri die herritarrei Telesko telebanaketa sarean hainbat aldaketa egin behar dituztela, seinalea aldatu egingo dutelako telebista kateak. Aldaketa horiek astelehenean, azaroaren 10ean, egingo dituzte. Ondorioz, egun horretan udal telebista sarea jasotzen dutenek mozketak jasango dituzte. Udal sarean egin beharreko aldaketa guztiak egindakoan, erabiltzaile bakoitzak bere etxeko telebista berriro sintonizatu behar du.

Aldaketok Telesko telebanaketa sarea dutenengan bakarrik izango dutela eragina jakinarazi dute; gainontzekoek euren telebista zerbitzariarekin konpondu beharko dute.

Pirritx eta Porrotxen ikuskizunerako sarrerak

M.A. | ESKORIATZA

Azaroaren 22an, zapatua, aurkeztuko dute Eskoriatzan Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunek azken ikuskizuna: *Txo, mikmak txikia*. Urtero legez, sarrerak aurrez esku-ratu beharko dira; batetik, herriko ikastetxeetan eskainiko dituzte, eta bestetik, azaroaren 14an Manuel Muñoz kiroldegiko leihatilan izango dituzte edonork erosteko. Sarrerak sei euro balio du, eta jakinarazi dute adin guztietakoek beharko dutela sartzeko.

Oraingoan, Txo mikmak indiarra aurkeztuko dute pailazoei. Harekin eta Roke aitaitarekin batera, *San Juan* baleontzi berria eraiki eta munduari txiri-buelta ematera joango dira.



DEBAGOIENENKO EAJ

Xabier Barandiaran, batzokian

Xabier Barandiaran soziologoa izan zen martitzenean batzokian eta egungo egoera politikoaren gainean jardun zuen: "Kudeaketa politikoak gardena izan behar du, politikariak kontrolatzeko mekanismoak beharrezkoak dira, eta, bereziki, politikariak herritarrak entzun behar dituzte, herritarren arazoei irtenbide eman", esan zuen, besteak beste. Han izan zen Puri Regidor alkategaia ere.

Xebax Christy | Euskoaren erabiltzailea eta hizlaria

"Euskoaren erabiltzaile direnek komertzio txikietan erosten dute"

Xebax Christy hitzaldia egin zuen Antzuolan, Iparraldean erabiltzen den moneta sozialari buruz

M.B. | ANTZUOLA

Antzuolaren eta Aiherraren arteko senidetzearen 30. urteurreneko ekitaldietan, hitzaldia egin zuen Xebax Christy Antzuolan. Euskoaz jardun zuen antzuolarraren aurrean. Tokiko moneta sozialaren jatorriaz eta erabileraz egin zuen berba.

Zer da euskoa?

Euskoa tokiko moneta bat da, Ipar Euskal Herrian erabiltzen dena. Bi helburu nagusi ditu: ekonomiaren bertokiratzeta eta komertzio alorrean euskara sustatzea.

Euskoa gune mugatu baten erabiltzen denez, tokiko enpresen arteko harremanak azkartzen ditu: euskoak dituen enpresa batek, derrigorrez, Iparraldeko beste enpresa batekin lan egin behar du euskoak erabili ahal izateko. Bestalde, banatzaile handiek ez dutenez euskoa erabiltzen, tokiko moneta komertzio txikiaren defentsarako tresna bat dela esan beharra dago.

Nik, kontsumitzaile bezala, euskoa erabiltzen badut, ez naiz supermerkatuetara joaten. Komertzio txikietan erosten dut.

Enpresek bat egin dute moneta sozialarekin?

Enpresa batek euskoa erabiltzen hasi gura badu, bi baldintza ipintzen zaizkio: tokiko produktuen erabilera eta euskoaren erabilera. Azken horretan, baldintza betetzeko bi bide ditu: bezeroarekin hartu-emanetan dagoen langile bat euskara ikasten hastea, eta horretarako partaidetza dugu AEKrekin; edo enpresan dauden seinaleak elebidunak izatea. Azken horretarako, partaidetza zuzena dauka



Xebax Christy. | ARGAZKILARIA XXX

gu Euskoaren Erakunde Publikoarekin (EEP).

Herritarrek erabiltzen dute?

Euskoaren erabiltzaileak Euskal Moneta Elkarteko kideak dira, izan herritarrek edo enpresak, komertzioak edo elkarteak. Egun, 2.700 pertsona eta 560 enpresa, komertzio eta elkarte dira Euskal Moneta Elkarteko kideak.

Gure helburu nagusia kopuru hori handitzen joatea da: erabilera handituz, ekonomia bertokiratzuz eta euskara sustatuz. Lan handia daukagu aurretik.

Noiztik erabiltzen duzue euskoa Iparraldean?

2013ko urtarrilaren 31n hasi ginen. Ordutik, euroarekin partekatzen dugu. Eusko batek euro bat balio du. Euskoak euroekin trukatzeko dira, gero erabili ahal izateko.

"2013ko urtarrilaren 31n hasi ginen euskoa erabiltzen"

'Etzak lo hartu' antzerki-foruma egingo dute hilaren 14an, berdintasunari buruz hausnartzeko

Antzuolako Udalak antolatuta, *Etzak lo hartu* antzerki-foruma egingo dute hilaren 14an Olararen, 18:00etan. Emanaldiak bi zati izango ditu: lehenengoan, 30 minutu irauten duen *Etzak lo hartu* antzezpene egingo dute, eta bigarrenetan, ordu eta erdiko solasaldia. Bigarren zati horretan, ikusleak talde txikitan banatuko dira, antzezpenean ikusi eta entzun diren alderdiei buruzko hausnarketa egiteko. Maskulinitasunaren gizarte eraikuntza, genero indarkeria, bikote-harremanak eta homofobia landuko dituzte, besteak beste.

Landatxope erretiratuen elkartekoek Cementos Rezola enpresara bisita gidatua egingo dute gaur

Landatxope erretiratuen elkarteko kideek irteera egingo dute gaur, egubakoitza: Añorgako Cementos Rezola enpresara egingo dute bisita. Autobusa 09:45ean irtengo da geltokitik. 13:00etarako itzuliko dira Antzuolara. Bestalde, Landatxope elkartean hilaren 12an egitekoa zen batzarra atzeratu egin dela jakinarazi dute. Hilaren 17an batzartuko dira Debagoieneko erretiratuen elkarteko ordezkariak, 16:00etan, Landatxopen. Askotariko gaiak izango dituzte hizpide eta aztergai Antzuolako batzarrean.

2015erako ordenantza fiskalak izoztea onartu zuten osoko bilkuran

- Bilduren aldeko botoekin onartu zuten
- EAJk hainbat desadostasun azaldu zituen

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Udal zerga eta tasek ez dute igoerarik izango 2015ean. Martitzenean egindako osoko bilkuran, ordenantza fiskalak izoztea, daudenetan mantentzea erabaki zuten. Bilduren aldeko botoekin onartu zen proposamena. EAJk kontra bozkatu zuen.

Etxe hutsei errekarua

Gizarteak egun bizi duen egoera aintzat hartuta ordenantza fiskaletan igoerarik ez aplikatzea proposatu zuen Bilduk. "Egoera ez da ona, eta hori kontuan hartu dugu proposamena egiteko orduan. Egia da zerga batzuk asko igota daudela, baina datoren urterako zergak eta tasak izoztea pentsatu dugu", esan zuen Ima Beristain alkatea.

"Topera igota" egotea baliatu zuen EAJk, Bilduk egindako proposamenari ezezkoa emateko. "Diote ordenantza fiskalak bere horretan mantentzen dituztela, baina ez da zaila: zerga eta tasa guztiak topera dituzte. Azken urteetan igotzen joan dira eta dagoeneko ez daukate marjinarik. Bestalde, KPIa zerotik azpira joan da. Hori horrela, ordenantza mantentzean, igo egiten direla esan gura du", azpimarratu zuen Maria Eugenia Arribalaga EAJko bozeramaileak.

Etxebizitza hutsei IBIaren errekaruaren bikoitza aplikatzea ere jasotzen da ordenantzetan, eta horren kontra ere egin zuen EAJk. "Ez gaudes ados, gure ustez ez duelako betetzen alokairua bultzatzeko duen helburua. Antzuolan bigarren etxe bat hutsik duenak errekaru bikoitza ordaindu behar du, baina, aldiz, bigarren etxe hori Katalunian, Landetan edo Jakan baldin badu, ez du gehiago ordaindu behar. Ikus-



Alkatea eta zinegotziak Antzuolako osoko bilkuran. | MIREIA BIKUÑA

ten dugu neurri hori antzuolarrendako kaltegarria dela", esan zuen Arribalagak.

Horri ere erantzuna eman zion alkatea: "Guk Antzuolako etxeen kontrola egiteko baliabideak ditugu. Hemendik kanporako etxeak ezin ditugu kontrolatu. Ideala hori izango litzateke. Bigarren etxea alokatuta duten herritarrek euren kontratuak ekartzen dituzte errekaru hori ez ordaintzeko. Alde horretatik, pozik gaude".

%25eko hobaria zaborrean

Ordenantza fiskalei ezezkoa ematearen hirugarren arrazoiak zabor biltzea izan zen. "Ordenantzetan ez dauka eragina %100ean, baina bai aurrekontuetan. Kostu handia dauka", esan zuen Arribalagak.

2015erako ordenantza fiskaletan jasota eta onartuta dago auzo-konposta egiten duten antzuolarrek %25eko hobaria izango dutela hurrengo urteko zaborrearen tasan.

Udal armaria aldatzeko onarpena

Azaroko osoko bilkuran, Antzuolako udal armaria aldatzeko proposamena aho batez onartu zuten Bilduk eta EAJk. Hori horrela, armarrin dauden kanoiak kendu eta eremu berean Gipuzkoako hiru zuhaitzak (haginak) ipiniko dituzte. Duela sei urte hasitako prozesuak, beraz, amaiera aldera heltzen dihardu. Hori horrela, armaria aldatu egingo dute eta aurrerantzean armari berria erabiliko dute udal agiritan.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA


**MUJKA
HARATEGIA**



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR
taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32



Gure lurra, gure etorkizuna erakusketa. Hilaren 11ra arte bitartean egongo da ikusgai, Sastiñan. | ARAMAILUR

Elikadura burujabetzaren ereduak ezagutzeko astea

Erakusketa, dokumentala, mahai-ingurua eta hitzaldia Sastiñan hilaren 13ra bitartean; Amaia Diaz de Monasterioguren gonbidatu dute, besteak beste

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Udalak, Aramailur kontsumo taldeak, Alaiak erretiratu elkar-teak, EHNE Bizkaiak eta Bizilur lankidetzarako eta herrien garapenerako erakundeak antolatuta, elikadura burujabetzaren gaineko askotariko ekintzak izango dira datozen egunotan. Atzo ireki zuten *Gure lurra, gure etorkizuna* izeneko erakusketa Sastiñan: gaur (17:30-19:30), bihar (11:30-14:00), etzi (11:30-14:00) eta hilaren 11n (17:00) egongo da zabalik.

Erakusketak, antolatzaileen arabera, gaur egungo eredu agro-industrialak sortzen dituen "kalteak" islatzen ditu: "Gizakian zein naturan dituen ondorio kaltegarriak erakusten ditu: gosea,

injustizia, kutsadura... Horrez gain, elikadura burujabetzaren alde munduan dauden borrokak ezagutzeko aukera egongo da".

Euskal Herriko esperientziak
Era berean, *Bide berriak* dokumentalean, Euskal Herrian mar txan dauden elikadura burujabetzaren aldeko esperientziak "oso era pedagogikoan" adierazten dira: "Protagonisten eskutik bidaia bat eginez, eta eguneroko esperientzia eta alternatiben borroketatik, landa mundu justuagoaren, duintagoaren eta jasangarriagoaren alde", diote. Astelehenean ikusi ahal izango da Sastiñan, 18:30ean. Dokumentalaren egilea den Bizilur erakundeak kide bat egon-

go dela aprobetxatuta, mahai-ingurua egongo da gero.

Etxeko elikadura orekatu guran
Amaitzeko, hilaren 13an, Amaia Diaz de Monasterioguren dietista oñatiarrak *Gure etxeko elikadura orekatzen* hitzaldia egingo du Sastiñan, 19:00etan: "Ekonomatuko lagun batek gomendatu digulako gonbidatu dugu, eta gertukoa izateak ere lagundu du", argitu dute Aramailur taldekoek. Adinaren, sexuaren, lan motaren eta askotariko beharren arabera elikaduraz ariko da aditu oñatiarra, eta garaiko produktuen arabera menua ere izango du hizpide. Saio irekia izango da, galderendako tartearrekin.

Sanmelixenak ospatuko dituzte Gantzaga auzoan

J.B. | ARAMAIO

Badatoz Gantzagako jaiak, badatoz sanmelixenak. Urtero moduan, haur, gazte zein helduendako egitarau zabal antolatu dute auzotarrek. Aurtengo nobedade nagusia da egubakoitzeko kantu afaria hurrengo zapatara, hilaren 15era, atzeratu dutela, eta afaria beharrezko bazkaria egingo dutela: "Azken urteetan jende gutxi egon izan da egubakoitzean eta hurrengo zapatara atzeratu dugu, proba modura. Ea jende gehiago hurbiltzea lortzen dugun...".

Gainera, urtero moduan, Arrasate Musikaleko txistulari bandak joko du etzi. Kontzertua amaitu eta gutxira hasiko da jaien bereizgarri den Gantzaga Saria proba. Txirindularitza igoerak 34 urte beteko ditu aurtentzen; herritik auzora igotzen azkarrena denak saria irabaziko du, urtebetez txapeldun izatearen ohorea.

EGITARAUA

AZAROAK 8, ZAPATUA

12:00 Meza nagusia eta Aretxabaletako koruaren emanaldia.

13:00 Triki-poteoa.

17:00 Mus txapelketa.

17:30 VII. patata-tortilla txapelketa eta umeendako jolasak eta puzgarriak.

19:30 Patata-tortilla txapelketako sari banaketa.

23:00 Dantzaldia DJarekin. Oheratu aurretik txokolate beroa.

AZAROAK 9, DOMEKA

11:00 Bailarako txistularien kontzertua.

12:30 34. Gantzaga Saria txirindularitza igoera.

13:00 Bermut dantza Aramaioko trikitilariekin.

17:00 Tute txapelketa.

AZAROAK 15, ZAPATUA

14:30 Kantu bazkaria.

Mosaiko erraldoiarekin bat egiteko azken aukera gaur, mahaia jarriko dugu-eta okindegi parean

Bihar Donostiako Zurriolan egingo den mosaiko erraldoian (11:00) parte hartzeko aukera dago oraindik. Izan ere, gaur mahaia jarriko dugu izena emateko; okindegi ondoan jarriko dugu, 19:00etatik 21:00etara. Kataluniako galdeketa bezperan eta Eskoziako erreferenduma pasata, gu ere erabakitzeko eskubidea noizbait egikaritzeko lanean ari garela adierazi gura dugu. Harremanetarako: 610 26 62 32.

KOMUNITATEA GOIENA
GURE ESKU DAGO | ARAMAIO

San Martin txapelketako azken jardunaldia gaur arratsaldean jokatu da; finalak, domeka goizean

Aramaioko Pilota Elkartek antolatuta, San Martin txapelketako azken jardunaldiko sei partidu jokatu dira gaur, 18:00etan hasita. Antolatzaileen arabera, 20:30 aldera arte pilotak ez du etenik izango. Domekan, berriz, benjamin, alebin eta infantil mailetakoko finalak jokatu dira –A eta B mailetan jokatu dira partiduak–. Lehen finala 10:30ean hasiko da eta 13:30ak arte iraungo dute pilota partiduek.

Iker Arriolabengoa | Pilates ikastaroko irakaslea

"Taldean egiten dugu lan, eta norberaren beharrei begira ere bai aldi berean"

Aurten ere abian da pilates taldea; martitzen eta eguenetan elkartzen dira, osoko bilkuren aretoan

J.B. | ARAMAIO

Aurten lehen aldiz hasi da Iker Arriolabengoa (Bilbo, 1992) gazte aramaiarra pilates eskolak ematen. "Kasualitatez" amaitu du udaletxeko osoko bilkuren aretoan 40 urtetik gorako 16 ikasleri ariketak zuzentzen, baina "gustura eta eroso" dabilela dio. Martitzen eta eguen iluntzeetan batzen dira.

Nola amaitu duzu pilates irakasle?

Kasualitatea izan da. Aitor Zabala izan da irakaslea orain arte, baina aurten jarraitzea ezinezkoa zitzaienez, Udaletik deitu zidaten, badakitelako pilatesarekin zerkusia duten ikasketak egin ditudala. Eta horixe, aukera moduan hartu dut. Izan ere, masterra egiten ari naiz eta ordutegia ondo



Iker Arriolabengoa. | I.A.

zetorkidan. Orain arte neska-mutikoeekin eta taldeko kirolean aritu izan naiz, horretan daukat esperientzia. Hauxe ezberdina da, eta aberasgarria.

Urrian hasi zineten, eta, beraz, saio gutxi izan dira, oraingo. Nola doaz?
Ondo. Oraingo, oinarriko ariketak egin ditugu. Orain, ikasle

bakoitza ezagutzen ari naiz, batez ere, bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak ezagutzen. Lasai-lasai gabiltza, gorputzaren jarrerak zuzentzen laguntzen diet, tonifikazioa eta malgutasuna lantzeko ariketak egiten ditugu... Gainera, gehienak aurreko urteetan egondakoak dira eta askok badakite zer egin behar den; izan ere, pilatesak jarraipena eta konstantzia eskatzen du.

Zergatik gomendatuko zenuke?

Giharrak tonifikatu eta orekatu, malgutasuna hobetu, bizkarrezurreko lesioak saihestu, gorputz-jarrerara onak hartzen ikasi –adin batetik aurrera jarrera txarrak nabarmendu egiten dira–, estresa txikitzen lagundu, gorputzaren kontzientzia hartu... Hainbat onura ditu. Norberarekin hobeto sentitzen laguntzen du, aktiboago egoten, energiarekin... Hori bai, pertsona bakoitza mundu bat da.

Eta horregatik ari zara ikasle bakoitzaren ezaugarriak ezagutzen, ala?
Bai. Taldean egiten dugu lan, baina norberaren beharrei begira ere bai, aldi berean. Ni ohituago nago umeekin lan egitera, modu aktiboagoan. Baina, finean, neska-mutikoeekin egiten ditudan hainbat ariketa helduen beharretara egokitzen ditut. Errendimendua hobetzea da helburua, eta horretarako konstantea izan behar da. Astean bi saio ondo dago.

Udaletxeko osoko bilkuren aretoan... moldatzen zarete?
Leku hotza da, baina zer dagoen ikusita... Kiroldegia hotzagoa da, eta ez dut uste leku zabalagorik dagoenik gertu eta erabilgarri. Toki zabala da, eta eskertu behar dago. Idealena litzateke handiago izatea, beroagoa, gomazko zoruarekin, eta material gehiago izatea... Baina orain eta horrela, moldatzen gara esango nuke.

ELGETA



Ana Gillegi, Oxel Erostarbe, Iban Retolatza eta Jose Mari Zubiaurre. | L.Z.

Oxel Erostarbe ez da berriz alkategai izango

Lantaldea erretiratu egingo da: "Hamabi urteren ostean gure zikloa amaitu da", adierazi dute

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Aralar-Independenteak lantaldea ez da 2015eko udal hauteskundeetara aurkeztuko, eta zortzi urteotan Elgetako alkate izan den Oxel Erostarbe ez da berriz hautagai izango. "Bere egunean egin genuen hausnarketak eman ditu bere fruituak eta hein handi batean gauzatu ditugu genituen asmoak", adierazi dute ohar bidez Oxel Erostarbek, Iban Retolatzak, Ana Gillegik eta Jose Mari Zubiaurrek.

2015eko maiatzean, taldeak hamabi urte beteko ditu Elgetako Udalean. Hiru agintaldi izan dira; bi, alkategai. "Urte hauetan bakoitzak duen onena eman dugu herriaren alde, eta lan-karga hori hasiak gara igartzeko", adierazi dute.

Hamabi urteotan herrigintzan jardun dutela eta iritzi ezberdinak izanda ere elkarlanean oinarritutako jarduna izan dela azal-

du dute. "Saiatu gara udaletxeko atea elgetarrei zabalitzen, saiatu gara herritarren ondoan egoten, garden jokatzeko eta herritarrek entzuten. Seguru elgetar guztiak ez dutela gure ahalegina horrela bizi izan, ez daudela konforme egindakoarekin edo gertu beharrean urrun sentituko gaituztela. Ez da hori izan gure asmoa".

2015eko hauteskundeak

Maiatzean udal hauteskundeak izango dira. Deialdi horrekin lotuta zerrenda herriko baten aldeko apustua egiten dute Erostarbek, Retolatzak, Gillegik eta Zubiaurrek. "Zerrenda herriko bat izango litzateke gure herri-rako onena, iritzi politiko desberdinak dituzten herritarrek osatutako zerrenda", adierazi dute. Eta eskerrak eman dizkiete urteotan bidelagun izan dituzten guztiei.

Gaztaina-erre jana egingo dute gaur, barikua, eskolako umeek eta erretiratuek

L.Z. | ELGETA

Herri Eskolako neska-mutikoen 15:00etan emango diote hasiera urteroko ospakizunari. Ikasgeletan landu dute gaztaina-erre janaren esanahia eta jatorria, eta zenbait bertso kantatu ostean dastatuko dituzte guraso elkar-teak Enrike Perezen laguntzarekin danbolinean prestatutako gaztaina gozoak.

Erretiratuek, Ozkarbin

Xalbadorpe erretiratuen elkarterko kideek, berriz, Ozkarbi elkar-tean egingo dute gaztaina-erre jana, 18:00etan. Azken urteotan kanpoan erreta ekarri ohi dituzte gaztainak Ozkarbira. Arratsalde-pasa egingo dute elkar-tean. Aditzera eman dutenez, bazkide guztiak daude ekitaldian parte hartzera gonbidatuta.

Txapelketari esker, domekan, primerako pintxoak euro baten

L.Z. | ELGETA

Galtzak bete lan ibiliko dira domekan, hilak 9, herriko ostalariak. 10:30etik aurrera ostaturatu ibiliko da epaimahai ofiziala pintxoak dastatzeko. Taberna bakoitzak bina pintxo aurkeztu beharko ditu, eta 12:30an guztiak egongo dira ikusgai herriko plazan. Egunean bertan jasoko dute epaimahai ofizialaren epaia. Sari

banaketa 14:00etan egingo dute. Txapela eramango diote irabazleari. Jainaga eta Narbaiza trititilariak girotuko dute sari banaketa.

Pintxoak euro baten

Lehiaketara aurkeztutako pintxoak euro bateko prezioan egongo dira domekan. Hurrengo bi domeketan bezeroek erabakiko dute publikoaren saria.



Jesus Mari Kalboetxeagak jaso du txapela azken urteotan. | L.Z.



Herriko iturburuak ezagutzen

Euria zen domekan, baina hamabost bat lagun elkartu ziren Udalak antolatutako irteera egiteko. Nerea Villaren gidaritzapean Egoarbitza, Goikomendia eta Aixola inguruko iturburuak eta karobiak ikusi zituzten. Taldeak Joxe Mari Zubierrementeria zuen zain Aixolan. Elgetarrak auzoko errotek izandako garrantzia, gelditzen diren aztarnak, auzoan egondako estraperloa... izan zituen hizpide.

LEINTZ GATZAGA

Ordenantza fiskalak eta beste, datorren astean

Osoko bilkura egingo du udalbatzarrak egunean, eta tasak izango dituzte hizpide, besteak beste

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Datorren egunean, azaroaren 13an, 08:30ean du udalbatzak hitzordua osoko bilkura egiteko. Eta mahai gainean izango dituzten gaien artean, aztergai izango

dute datorren urteko zergak edo tasak zertan geratuko diren.

Edozelan ere, eta azken ordukorik ezean, joan den hilabetean Eugenio Otsoa alkateak Goienari iragarritakoak aurrera egingo

du: datorren urteko tasak izoztu egingo dituzte.

"Jendearen egoera kontuan hartu dugu (krisi sakona...); bestetik, informazio gehienek esaten dute BPGa (Barne Produktu Gordina) ez dela igoko, zeroaren bueltan geratuko dela. Eta azkenik, pentsatzen dugu BEZa ere ez dela gehiago igoko (%21 baino gehiago, jakina). Hirurak batuta, eta aparteko zergarik edo tasarik ez baldin badator, pentsatzen dugu hobe izango dela ohiko tasak (IBIa...) ez izotzea", esplikatu du

alkateak izozte horren aldeko erabakia arrazoitzeko.

Salbuespen bat izango dute datorren urteko tasek, hori bai: zaborrei dagozkien zergetan, konposta egiten dutenek jasotzen dituzten hobariak tarifa bilakatu dira. Edozelan ere, hori gai tekniko da. Hau da, ez die aldataririk ekarriko herritarrei.

Kreditu aldaketa

Horrekin batera, bestelako diru kontuak ere aztergai izango ditu udalbatzak hurrengo bilkuran.

Urrian, 2014ko langabezia tasarik txarrera Elgetan

%7,56ko langabezia tasarekin hasi zen 2014a, baina hortik aurrera gora egin du, maiatzeko jaitsiera salbu. Uztailean, tasak %10eko muga gainditu zuen, eta urrian %11koa gainditu du —%11,07 da—. Eustat erakundeak emandako datuaren arabera, 60 elgetar daude langabeen zerrendan izena emanda.

Mahai-futbol txapelketa antolatu dute gaztelekutik

Azaroako zapatu goizetan jokatuko dute mahai-futbol txapelketa gaztelekuan, eta zabalik dago izen-ematea 6-40 urte bitarteko herritarrendako. Bi maila egingo dituzte: 6-12 urtekoena eta 12-40 urtekoena. Bikote bakoitzak euro bat ordainduko du izen-ematea.

OHARRAK

IPUINAK LIBURUTEGIAN

Gaur, barikua, hiru urtetik gorako umeendako ipuin kontalari saioa egingo dute, 17:20an, Udal Liburutegian.

BOLO TXAPELKETA

Zapatuan, 17:00etan, Euskadiko hiru txirlo txapelketako azken jardunaldia jokatuko dute Elgoibarren; tartean, Elgetako bolariak.

GLAUKOMA, GAZTETXEAN

Zapatuan, 23:00etan, Glaukoma eta Selektia Amunda izango dira Elgetako gaztetxean. Sarrera: hiru euro.

PILOTA TXAPELKETA

Gaur, barikua, jokatuko dira herri mailako pilota txapelketako beste bost norgehiagoka. 19:30ean hasiko da lehenengo.

GABONETAKO LOTERIA

Elgetako jeltzaleek jakinarazten dute azaroaren 18ra arte eska daitekeela Gabonetako loteria. Maria Jesus Lete eta Begoña Ardantza dira arduradunak.

Kasu horretan, 2014ko aurrekontuan kreditu aldaketa bat egiteko proposamena izango dute mahai gainean.

Zirkulazio arau berriak

Eta osoko bilkura horretan oraingoz eramango dituzten gaien artean, udalerrri barruko zirkulazioa arautzeko ordenantza ere orduantxe lantzeko asmoa dute. Laburbilduz, abiadura mugak eta aparkaleku guneak errespetatzen direla bermatu gura du udalbatzarrak ordenantza horrekin.

ESKU PILOTA

Domekan lau t'erdiko pilota partidu bikainak izango dira Eskoriatzan

- ▶ Xalak eta Retegi II.ak jokatuko dute partidu nagusia arratsaldeko bostetan
- ▶ Aurretik, Jaunarena-Rezusta/Altuna III.a-Barriola izango dira ikuskizuna berotzen

IMANOL BELOKI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak antolatutako pilota partiduak domekan jokatuko dira Joseba Iñurrategi udal pilotalekuan. Lau t'erdiko final-laurdenetako partidu bikainak gozatzeko aukera izango da. Izan ere, Xalak eta Retegi II.ak jokatuko dute lau t'erdiko final-laurdenetako buruz buruzkoa. 17:00etan izango da, eta, partidu nagusi horren aurretik, ikuskizuna berotzeko, Jaunarena-Rezusta eta Altuna III-Barriola izango dira eskuz binaka.

Oraindik ez du inork ziurtatuta finalerdietarako txartela, dena dago erabakitzeko. Retegik 11 tantoko aldeagatik irabazi beharko dio Xalari, eta, horrez gain, Irujoren porrotari itxaron beharko dio sailkatu nahi badu. Bestetik, Xalak, sailkatzeko, partidua irabazi beharko du eta gainontzeko emaitzei itxaron.

Sarrerak salgai daude

Sarrerak 25 eurotan daude salgai eguaztena ezkerre; Urrestilla tabernan, Inkernun eta Dorleta liburu-dendan eros daitezke aurrez. Txarteldegian erosi nahi dituenak, berriz, ordubete lehenago eros-teko aukera izango du frontoian bertan. Hitzordura gerturatu ezin duenak, bestalde, ETB1en zuzenean ikusteko aukera izango du.

Finalerdietara sartzeko final-laurdenetako ligaxkaren hirugarren jardunaldiko partiduak bi aste bukaeratan jokatuko dira.

Zapatuan, Oinatz Bengoetxea-Olaetxea Iruñean; aurrez esan bezala, Xala-Retegi II.a Eskoriatzan. Azaroaren 15ean, Irujo-Saralegi Iruñean eta azaroaren 16an Olaizola II.a-Ezkurdia Donostian. Esan beharra dago pilotari guztiek daukatela aukeraren bat finalerdietarako txartela lortzeko.

Bada, bi aste bukaeratan jokatuko dituzte partiduak, Irujoren eta Saralegiren arteko lehia LEPM-ko epaileak atzeratu duelako. Izan ere, Saralegik ezker eskuko hatz luzean min hartu zuen eta bi aste pilota ukitu gabe egoteko esan zion medikuak.

Pilota aukeraketa egunean

Domekan jokatuko den lau t'erdiko final-laurdenetako pilota aukeraketa atzo egin zuten Retegi II.ak eta Xalak. Bi pilotariak goizeko hamarretan hasi zituzten beroketa saioak eta pilota aukeraketa 11:30ean izan zen Joseba Iñurrategi udal pilotalekuan.



Xala eta Retegi Bi, Eskoriatzako Joseba Iñurrategi pilotalekuan atzoko pilota aukeraketa egin zutenean. | IMANOL BELOKI

ESANAK

"Final-laurdenetako partidu hau Eskoriatzan izatea ohore hutsa da guretako"

JOSEBA IÑURRATEGI | ESKORIATZAKO PILOTAKO ENTRENATZAILEA

"600 eserleku inguru daude harmailetan eta behean 130; ea dena betetzen den"

ESANAK

"Dena kontrari izan arren, ahal dudana egingo dut irabazteko"

JULEN RETEGI | PILOTARIA

"Ongi prestatu naiz, baina aurkari arriskutsua da"

YVES SALABERRI | PILOTARIA

SASKIBALOIA

Mondragon Unibertsitateak etxean jokatuko du Leioako Askartza Claret taldearen aurka

Denboraldia hasi besterik ez da egin, baina Josu Larreategiren mutilek garaipena eskuratu beharko dute poliki-poliki sailkapenean gora egiteko

I.B | ARRASATE

Arrasateko Ointxe elkarteko Mondragon Unibertsitate saskibaloitza taldeak Askartza Claret taldea hartuko du etxean, 18:00etan. Zapatuan izango da partidua, Arrasateko Iturripe kiroldegian, eta, etxekoan animoekin, gogor lehiatuko dira denboraldiko bigarren garaipena eskuratzeko asmoz.

Garaipen bakarra orain arte

Lehen jardunaldian 47-53 irabazi zuten etxetik kanpo Valladoliden aurka, denboraldiari hasiera bikaina emanda, baina ondoren-

go bi partiduak galdu egin zituzten: Centro de Estudios Mikeldiren aurka 99-102 lehenengo eta Natural Rioja Vintageren aurka 77-52 gero. Hala, bihar, Leioako Askartza Claret taldearen aurka laugarren jardunaldia jokatuko dute eta lehia gogorra izango da. Izan ere, sailkapenean MUkoak bederatzigarren postuan daude eta leioarrak, berriz, bi postu beherago daude, 11. postuan. Horregatik, biek ondo egin beharko dituzte etxeko lanak, erasoan zein defentsan abantaila hartu eta lehia irabazteko. Bi taldeek

garaipen bakarra lortu dute orain arte, baina aurkariak Igualekio Cantabria Estelaren aurka aurreko jardunaldian 72-71 irabazita datozenek, kontuz ibili beharko dute Larreategiren mutilek. Hala, konfiantzaz badatoz, partiduaren norabidea etxekoek gidatu, aurre hartu eta puntuak etxean gera daitezten.

Mailari eustea

EBA maila ez da erraza, baina gogotsu ari dira MUkoak aurten defentsan zein erasoan aurrerapenak egiten. Hala, mailari eus-



Josu Larreategi entrenatzailea, taldekideei azalpenak ematen. | GOIENA

teko helburuarekin partiduz partidu puntuak batzen joatea da euren asmoa. Nahiz eta denboraldia hasi besterik ez den egin, joko bizia eta kontraeraso azkarrak egiten ari dira, eta

hori da euren jokoaren ardatza. Hala, ea partidua hasi bezain laster ahulguneak antzematen dizkieten aurkarietara eta partiduaren jokoa zein den ondo erabakitzen duten.



Iazko Behobia-Donostia lasterketan parte-hartzaileak helmugara heltzen. | GOIENA

ATLETISMOA

Behobia-Donostia lasterketa ezagunak 50. aldia beteko du domeka honetan

IMANOL BELOKI | ARRASATE

Azaroaren 9an, domekan, izango da Fortuna Kirol Elkarteak antolatzen duen Behobia-Donostia lasterketa. Aurten, 50. aldiz jokatuko da eta, gehienez, 30.000 parte-hartzailek egingo dituzte Behobiatik Donostiarainoko (Bulebarra) hogeiki kilometroak.

Hainbat kategoriatoko korrikalariak izango dira: juniorrak, promesak, seniorrak, beteranoak eta ezinduak. Hala, 10:00etan irtengo dira korrikalariak, 09:40an

patinatzaileak eta 09:30ean gupildun aulkietakoak.

Esan beharra dago aurtengo lasterketan emakumeen parte-hartzea sekula baino handiagoa izango dela; izan ere, 6.000 emakume inguruk egingo dute hogeiki kilometroko ibilbidea.

Ibilbidean aldaketak

Behobiatik Donostiarainoko lasterketa hogeiki kilometrokoa izango da, baina aurten, portutik pasatu beharrean, Errenferiako

eta Pasai Antxoko erdigunetik pasatu beharko dute parte-hartzaileek. Horrez gain, Gaintzuriketako igoera ezkerreko aldeetik egingo dute. Aldaketa horiek direla-eta irteera 700 metro aurretik da, hogeiki kilometroko zehatzak izateko.

Lezora, Pasai Donibanera, Pasai San Pedrorra, Trintxerpera eta Bidebietara larrialdi zerbizuek sartu eta irteteko zailtasunak zituztela-eta egin dituzte aldaketak ibilbidean.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Touring-Antzuola

Zapatua, 16:30. Fanderia.

Aretxabaleta-Real Union

Domeka, 16:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Ordizia

Domeka, 16:30. Azkoagain.

Bergara-Hernani

Zapatua, 15:30. Agorosin.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Beasain-Aretxabaleta B

Zapatua, 15:30. Igartza.

Mondragon-Zestoa

Domeka, 16:30. Mojaitegi.

EMAKUMEZKOEN

ERREGIONALA

Arizmendi-Bergara

Zapatua, 17:45. Ibarra.

Mondragon-Ilintxa

Zapatua, 17:30. Mojaitegi.

GIZONEZKO GAZTEEN

OHOREZKO

Billabona-Aloña Mendi

Zapatua, 12:00. Arratzain.

Tolosa-Mondragon

Zapatua, 16:30. Berazubi.

Aretxabaleta-Aurrera

Zapatua, 16:00. Ibarra.

Elgoibar-Bergara

Zapatua, 12:00. Mintxeta.

GAZTEEN LEHEN MAILA

Segura Goierri-Aloña Mendi

Zapatua, 16:00. Alustiza.

Bergara-Aretxabaleta

Zapatua, 17:00. Ipintza.

Sorluze-Arizmendi

Zapatua, 10:00. Ezozia.

Eibartarrak-Antzuola

Zapatua, 13:30. Unbe.

Urki-Mondragon

Zapatua, 13:30. Unbe.

KADETEEN OHOREZKO

Bergara-Zumaia

Domeka, 11:30. Ipintza.

Aloña Mendi-Ordizia

Zapatua, 15:00. Azkoagain.

Arrasate-Zarautz

Zapatua, 15:30. Mojaitegi.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Sapuberri-Eskoriatza

Zapatua, 18:15. Landako.

GAZTEEN OHOREZKO MAILA

Eskoriatza-Berio Santutxu

Domeka, 12:00. Manuel Muñoz.

GIPIZKOAKO LIGA

Oiarzun-Aretxabaleta

Zapatua, 17:30. Elorsoro

Mondrate-Baobab

Zapatua, 17:30. Musakola.

ESKUBALOA

LEHEN NAZIONAL MAILA

Ford Mugarri-Uharte

Domeka, 12:00. Iturripe.

SENIOR GIZONEZKOAK

K2 Corazonistas-Bergara

Zapatua, 20:15. Colegio

Corazonistas.

KADETEAK,

EMAKUMEZKOAK

Asador Basusta Pulpo-Aloña

Mendi

Zapatua, 19:00. Lubaki.

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK

Bera Bera-Aloña Mendi

Zapatua, 18:00. Bidebieta.

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Mondragon

Unibertsitatea-Azkartz

Zapatua, 18:00. Iturripe.

SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA

Barrena Berri-Natra Oñati

Zapatua, 20:00. Barracon.

Andraitz-Sorluze Bergara

Zapatua, 16:00. Bikuña.

Orioko-Mondragon

Unibertsitatea

Zapatua, 16:00. Antonianos.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Kafes Aitona

Egubakoitza, 19:30.

Arizmendi-Almen ikastola.

KADETEAK, GIZONEZKOAK

Tabirako Baque-Mondragon

Unibertsitatea A

Zapatua, 10:00. Landako.

Easo 00-Sorluze Bergara

Domeka, 10:00. Altza.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA, SENIORRAK

Kanpazar Arrasate-Arratik

Domeka, 12:00. Mojaitegi.

ESKUPILOTA

EGUBAKOITZA

3 partidu

Egubakoitza, 19:00. OKE Ordizia.

Egubakoitza, 20:30. Uhartakape.

ZAPATUA

14 partidu; 7 Bergaran, 2

Oñati eta 5 Arrasaten

Zapatua, 16:00. Bergara.

Zapatua, 17:30. Zubikoa.

Zapatua, 17:30. Uhartakape.

DOMEKA

2 partidu Arrasaten

Domeka, 11:30. Uhartakape.

FUTBOLA



Antzuola erasoan, Touring-en aurka, aurreko denboraldian. | GOIENA

Ohorezko Erregionalekoak, bederatzigarren jardunaldiaren bila

Debagoieneko Ohorezko Erregional mailako talde guztiek etxean jokatuko dute, Antzuolak izan ezik

I.B | ARRASATE

Aste bukaera honetan Touring-Antzuola, Aretxabaleta-Real Union, Aloña Mendi-Ordizia eta Beraga-

ra-Hernani partiduak jokatuko dira. Zapatuan Eztalan izandako polemikaren ondoren, Aretxabaletak lehen postuan jarraitzen

du eta Antzuolak, berriz, azkenengoan. Hala ere, atzera begiratu barik, aurrera jarraitu eta hurrengo partiduei begira egon beharko dute bi taldeek. Aloña Mendi eta Bergara, berriz, puntu bakarrarekin bueltatu ziren biak etxera, 0-0 eginda. Sailkapenean erdialdean daude biak, arrisku handi barik.

Antzuolak, kanpoan

Azken postuan dago Antzuola, hiru punturekin, eta, jardunaldi honetan, lau postu aurretik dagoen Touring taldearen aurka jokatuko du. Zulutik ateratzeko hiru puntuak lortu beharko dituzte kosta ahala kosta.

Mondra, bide onetik

Bi garaipen jarraian eskuratuta, Zestoaren aurka jokatuko du Mondrak domekan, 16:30ean, Mojaitegin. Bi berdinketa eta bi garaipen eskuratu ditu azken jardunaldietan. Gainera, aurreko jardunaldian Sorluzeri 0-2 kanpoan irabazita, aste bukaera honetan etxean jokatuta, motibatuta egongo dira taldekideak zazpigarren postutik gorra igotzeko.

ATLETISMOA

Bergarako San Silvestre trail proba egingo da lehenengoz

I.B | BERGARA

Aurten lehenengoz, Bergarako San Silvestre traila egingo dute abenduaren 31n. 6,5 kilometroko bidea, Seminarioan hasita: Irala, Irizar eta Massterreka kaleetara eta handik goiko trenbiderantz. Trenbide zaharretik Bolurantz eta handik Arane eta Zabaleta baserrietarantz; Itxasmendiantz gero eta Angua gainetik Murinondorantz. Ondoren, berrir trenbide zaharretik erdialderantz, eta, herrigunetan zehar, Seminarioan amaituko da. 300 metroko desnibela duen lasterketak zatirik handiena mendiko bideetan egingo du. Izena azaroaren 15etik aurrera eman ahal izango da *Kirolprobak.com* webgunean.

ATLETISMOA

Kirol elkarteentzako oinarrizko prestakuntza

I.B | ESKORIAITZA

Kirol hastapeneko ikaste-irakaste prozesuen azterketa ize-narekin, kirol elkarteentzako oinarrizko prestakuntza ikastaroa antolatu du Debagoieneko Mankomunitateak. Ikastaroa Mondragon Unibertsitateak emango du, eta elebiduna izango da; gaztelaniaz eta euskaraz. Azaroaren 14an eta 21ean izango da, Ibarraundi museoan, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Doakoa izango da eta azaroren 12ra arte egongo da izena emateko epea zabalik. Ikastaroan parte hartu nahi duenak edo informazio gehiago lortu nahi duenak *kirolak@eskoriatza.net* era idatzi edo 943-71 53 28 telefonora deitu beharko du.

athlon
bizimodu
osasungarrien
sustapena

ZORTE ON PARTE-HARTZAILE GUZTIOI!

Zure osasuna da gure helburua!



Behobia - San Sebastián

ATHLON KOOP. E.
Kirol Medikuntza Zerbitzua
Loramendi, 3 Arrasate
Tel.: 943 712 604
kirolmedikuntza@athlon.es
www.athlon.es



Programazio berritua

Bertakoa eta sasoikoa, halakoa da Goiena telebista, eta berrituta dator, unean unekoak, bertatik bertara, herritarrekin, kaletik, kontatzeko gertu.



KULTURA



Erromako Kaperan nagusian abestu zuen Goikobaluk; Italiara egin zuten bidaia hartan, Venezian ere izan ziren. | GOIKOBALU

Goikobalu abesbatza: 25 urte han eta hemen kantuan

- ▶ 'Carmina Burana' obra taularatuko dute azaroaren 15an Amaian
- ▶ 25 urtean, jaioterrian ez ezik, atzerrian ere kantatu izan dute

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
1989ko abenduaren 23an egin zuen Goikobalu abesbatzak lehenengo kontzertua herrian. Harrezkero, Euskal Herriko eta Espainiako askotariko herri eta aretoetan kantatu du, eta baita atzerrian ere, 25 urteko ibilbidea duen abesbatzak. Helduen abesbatzak hainbat kume izan zituen geroago: 1994. urtean jaio zen Goikobalu Txiki, ondoren etorri ziren Goikobalu Gazte eta haur txikien musika tailerra.

Egunotan buru-belarri ari dira hastapenetako eta gaur egungo koruko kideak elkarrekin, azaroaren 15ean Amaia antzokian (20:00) abestuko duten Carl Orff konpositore alemaniarraren *Carmina Burana* obra entseatzeko. Sarrerak 18 eurotan eskura daitezke Amaia antzokiko leihatilan eta *on line* ere bai honako helbideetan: Arrasate-mondragon.net eta Ticket.kutxabank.es.

Herriko abesbatzak batuz

Arrasaten garai baten abesbatza asko izan ziren, baina hainbat arrazoiengatik desagertu egin ziren. Jesus Mari Artze SUDC elkarteak garai hartako presidentek, herriko kantu-zaletasuna eta tradizioa berreskuratzen

asmoz, desagertuta zeuden abesbatzako ordezkariak batu zituen orduan. "Parrokiako koruan, Danok abesbatzan eta Arrasate Musikalen bueltan genbiltzanak batu gintuen Artzek bilera hartan. Maiatzean hasi ginen entseatzeko eta abenduan egin genuen lehen kontzertua Ordizian", esan du Juanjo Valle, 25 urtean Goikobaluko kide izan denak.

80 lagunek osatzen zuten jaioberrira zen Goikobalu abesbatza. "Gaur egun moduan, emakumeak eta gizonezkoak geunden abesbatzan, baina, garai hartan, orain ez moduan, gizonezko gehiago ginen kantuan", dio Joaquin Etxebarriak, Goikobaluko kideak, eta zera gaineratu du: "Orduan ere, kantu-zaletasuna bultzatzea genuen helburu; horregatik, bada,

askotariko jatorri, estilo eta hizkuntzetan abestutako kantuak batzen genituen erreperatorioan".

Zuzendari donostiarra

Ahal zuten tokian entseatzeko zutela diote: "Abade-etxea izan zen gure lehenengo entsegu-lokala, gaur egun Udaltzaingoa dagoen eta garai baten Zerrajarenak ziren lokaletara joan >

Donejakue bidea kantuan eginda

Krisi ekonomikoak eraginda, zaila da kanpoan kantatzea; Juan Antonio Barriocanal, Goikobaluko presidentearen, ideia izan zen Donejakue bidea kantuan egitea.

2009an hasi ziren eta aurtengo maiatzean bukatu dute. 15 etapatan banatu zuten bidea, 15 kontzertu egiteko. Abesbatzakoek lotu zituzten kantuan egin gura zuten elizetako baimenak, eta euren poltsikotik ordaindu zituzten gastu guztiak. Esperientzia ikaragarria!



Santiagoako Katedraleko Mondragon kaperan abestu zuten. | JOAQUIN ECHEVARRIA

IÑAKI MAIDAGAN ZUZENDARIA

"Musikalki ez da obra zaila, hitzetan du zailtasun handiena"

Hamaikagarrenez kantatuko dute Arrasatekoek *Carmina Burana* obra.

Ze itxura hartzen diozu aste-bete faltan?

Gorputza hartzen doa. Hitz askoko obra da. Kantata profano bat da; aleman zaharrenean eta latinean idatzitakoa.

Musikalki, bestela, zelakoa?

Ez du zailtasun handirik. Hiru zatitan banatuta dago; guztira, 25 kantu dira. Lehenengoa eta azkena kantu bera da, obrako ezagunena.

Ondoezagutzen duzuen obra da; hamar aldiz eginda.

Urteurrena aitzakia, formatu txikiko zerbait egin nahi genuen, aurrekontu txikia genuen-eta, honako hau proposa iruditu zitzaigun. Azkeneko aldiz orain dela 15 urte egin genuen.

Formatuaz gainera, kideak ere ia orduko berak.

Bai; hala da. Arrasate Musikaleko perkusio orkestran,



JOSE ANTONIO VILLAR

pianoan eta bakarlarietan ere bai. Bi berriak dira: Cesar San Martin (baritonoa) eta Arturo Goikoetxea pianista. Eta orain 15 urteko taldekoak dira: Ainhoa Garmendia (sopranoa), David Azurtza (kontratenorea) eta Rakel Murgiondo pianista.

Etxekoez gainera, beste koru batzuetako kideak daude.

Tolosako eta Donostiako abesbatzakoak batu zaizkigu ekimenera, bai. Helduez gainera, Goikobaluko haurrak ere entzungo ditugu kantuan.

Ze osasun dauka egun Arrasateko helduen abesbatzak?

Azkeneko urteetan kide kopurua mantentzea lortu dugu; lasaitasuna ematen du horrek. San Andres auzoan abestuko dugu laster, eta baita Harreman elkartearentzako ere.

"Lasaitasuna ematen du kide kopuru egonkorrak"

> ginen gero. Ez ginen luzaroan egon bertan; handik Gazteluondo ikastolara joan ginen eta egun, Zerrajerako *Erlojuaren eraikinean* dugu etxea", diote abeslariak.

Sekulako giroa zegoen abesbatzako kideen artean, handia zen-eta Goikobalukoek zuten kanturako ilusioa eta ikasteko gogoia. Kanpotik etorritako zuzendaria izan zuten hastapenetan: Luis Ignacio Ruiz de Alegria *Jimi* donostiarra. Aurrez Eskoriatzako abesbatza zuzendu zuen, handik Arrasatera etorri zen gero. "Diziplina handia zegoen garai hartan; puntualtasunari garrantzi handia ematen zion zuzendaria, entsegua hasterakoan atea ixten zuen eta ez zuen atsedenera heldu bitartean zabaltzen. Berandu zetorrenak kanpoan itxaron behar izaten zuten. Astean birritan elkartzen ginen, gaur egun moduan, martitzen eta egue-netan", diote Juanjo del Vallek eta Joaquín Etxebarriak.

Luis Ignacio Ruiz de Alegria-ren lekukoa koruko kide zen Eugenio Etxebeste arrasatearra hartu zuen eta 1996ko urtarrilaz geroztik, Iñaki Maidagan da zuzendaria, hura ere abesbatzako kidea. Tartean, unean uneko kolaboratzaileak ere izan zirela diote: Javier Busto eta Jesus Mari Etxebarria, horien artean".

Atzerrira ere bai

Goikobalukoaren ahotsak mugaz bestalde ere heldu ziren. Kantuaren aitzakian kideek eta haien senideek eta lagunek hainbat

bidaiak kultural egin zituzten: Galesera, Argentinara, Italiara eta Andaluziara, besteak beste. Horietan guztietan, bertako bizilagunak ezagutzeko aukera izan zuten; gaur egun ere harremanetan jarraitzen dute. Galesera, New Castleneren bizi zen Gurutze Uribarrenen laguntzaz heldu ziren. Argentinara, berriz, euskal etxeekin elkarlanean joan ziren; birritan joan ziren.

Oroigarria ere ekarri zuten: "Ekarri genuen hango Ombu zuhaitza Santa Barbara azpiko ahateen lorategian dago. Argentinan bizi den Arrasateko familia bat hona bisitan etorri zenean landatu genuen".

Beste koru batzuekin elkarlana Betidanik izan dira Abesbatzen Federazioko kide, eta horregatik izan dute, besteak beste, harremana hainbat taldeekin. Donostiako Orfeoiarekin izan dute gertukoena eta Bilboko eta Iruñekoekin ere izan dira sarritan.

Debagoienean, Bergarakoekin izan dute harremanik estuena; horren erakusle, Lausardi Abesbatza Sinfonikoa. 1999ko emanaldian, Maidagan zuzendariak lanak izan zituen taldea sortzeko eta Bergarako Orfeoiko orduko zuzendariak, David Azurtzak, elkarrekin kantatzea proposatu zion. Horrela egin zuten eta 2000. urtean Lausardi sortu zuten gero. Disko bat grabatu zuten eta hainbat obra taularatu ere bai, Lausardi Abesbatza Sinfonikoaren bost urteko ibilbidean.



Oraingo eta lehenagoko Goikobaluko kideak batu ziren martitzeneko entseguan. | JOSE ANTONIO VILLAR



Hamaika aldiz kantatu dute Amaia antzokian; azaroaren 15ean areto berean izango dira. | GOIKOBALU

Originaltasuna, amodiozko gutunen lehiaketako gakoa

Lehiaketako epaimahaia literatura eta kultura alorreko pertsona ezagun talde batek osatuko du

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Aurten ere, Bergarako Jardun Euskara Elkartek antolatuta, amodiozko gutunen lehiaketa egingo da. 23. edizioa da eta 2000. urtean jaiotakoek edo zaharagoek parte hartzeko aukera izango dute, betiere, jatorrizko lanak izanda.

Lehiaketan parte hartzeko oinarri guztiak joan den asteleheneko *Goiena*-n daude, eta *Jardun.org* atarian ere badaude.

Dagoeneko irekita dago lanak aurkezteko epea eta 2015eko urtarrilaren 7an itxiko da. Sari banaketa, aldiz, San Valentin bezperan, otsailaren 13an izango da, kultura etxean, 19:00etan.

Galaren originaltasuna

Jardun-etik azaldu dutenez, gaiaren originaltasuna asko baloratuko da: azken urteetan jasotako gutunen artean oso gai bitxiak jaso dituzte. Ohikoena norbaitekiko maitasuna adieraztea da; beste askotan, zerbaitekiko maitasuna ere agertu izan dute gutunek. Tabakoarenganako maitasuna, adibidez.



lazo irabazleak, sari banaketan. | JARDUN EUSKARA ELKARTEA

Lau sari egongo dira: bi lan onenek 500 eta 250 euroko sariak jasoko dituzte, bergarar onenendako 150 euro izango dira eta 26 urtetik beherakoendako gutun onenak beste 150 euroko ditu.

Epaimahai berezia izango da: Maite Toledo, idazlea; Fran Urias, Hesian taldeko abeslaria; Urko Egaña, bertsolaria; eta iazko edizioaren irabazlea, Amaia Artola. Gazteen sarirako, aldiz, Bergarako ikastetxeetako ikasleak osatutako epaimahaia izango da.

Normalean oso erantzun ona jasotzen dutela esan dute Jardun elkarteak: Euskal Herriko leku askotatik jasotzen dituzte gutunak, baita kanpotik ere.

Kasualitatek ezer ez duen emanaldi berezia

'Ez da kasualitatea' bertso musikatu saioa egingo dute gaur Aretxabaletako Arkupe kultura etxean

KOMUNITATEA GOIENA | BEÑAT Z. AKIZU
LEKAIKOLA BERTSO ESKOLA | ARETXABALETAKO

Ezer ez du kasualitatek Lekai-xoka bertso-eskolak antolatu duen bertso musikatuaren emanaldiak. Ez da kasualitatea bertsolarietatik hiru emakumezko bertsolariak izatea. Bertsolariak eurak ere ez dituzte kasualitatez aukeratu bertso-eskolako kideek. Miren Amuritz, Jone Uria, Onintza Enbeita eta Beñat Gaztelumendi izango dira. Bakoi-tza izango da emanaldi gozagarria izateko osagarri.

Gai-jartzailea ere ez dute kasualitatez aukeratu: Amaia Agirre bertsolaria. Azken urteetan, bertsoetan ez ezik, saio emankorrenetako gai-jartzailea da, gai landu, berezi eta emankorrekin. Musikariak ere ez datoz kasualitatez, bertso musikatuaren emanaldia izanda: Gari-koitx Otamendi eta Iker Larroba. Hitzordu politerako behar diren osagaiak ditu *Ez da kasualitatea* bertso musikatuaren emanaldiak. Gaur, egubakoitza, izango da (19:00), Arkupe kultur etxeko Zarea aretoan, eta sarre-rak, lau eurotan.

Hainbat bertsolari emakumezko generoaren gainean egindako lanketak ekarritako proiektua da *Ez da kasualitatea* emanaldia. Bertso plazetan ohi ez bezala, bertsolari emakumezkoak dira gehiengo oholtzan, eta, azken urteetan zenbait bertso emanalditan zabaldu bezala, bertsolariak musikariak dituzte lagun. Gainerakoan, ohi bezala, bertsoak bat-batekoak dira eta gaiak askotarikoak, ohi ez bezalako saio bakan eta berezi batean.

Udalarekin elkarlanean

Lekai-xoka bertso-eskolak herriko erakunde eta elkarteekin elkarlanean jardutea du helburu; gaurkoa Udaleko Kultura Sailarekin abian duen elkarlanaren fruitua da.

Aretxabaletarako bertso emanaldi bat antolatzerakoan, bertso-eskolako kideek emanaldi berezi hori bideratu zuten; besteak beste, bertso-eskolak generoaren gaiarekiko duen kezkatik eta emanaldiok izaten duten arrakastagatik; ez kasualitatez.

'Geure kolkotik' diskoa aurkeztuko dute domekan

Euskal Herriko Trikitilarien Elkarteak argitaratu duen diskoan, Aritz Alustiza bergararrak parte hartu du

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Trikiti doinuak entzungo dira domekan Zabalotegi aretoan. *Geure kolkotik* bildumako bosgarren diskoa aurkeztuko dute, 17:30ean. Diskoa aurkeztuko duten lehenengo aldia izango da.

Geure kolkotik bildumaren helburua sorkuntza bultzatu eta abesti berriak ateratzea da. Euskal Herriko Trikiti Elkarteak bultzatu eta argitaratzen du bilduma.

Aritz Alustizaren hiru pieza

Disko berrian bost trikitilarik parte hartu dute; tartean, Aritz Alustiza bergararrak. Gainerakoak dira: Astiazaran II.a, Eneritz Bengoetxea, Iker Dorransoro eta Maitane Aiertza.

"Iaz neguan jaso nuen proposamena trikiti elkarteko Albertoren eskutik", azaldu du Alustizak. "Lehenengo aldia da horrelako formatu batean parte hartzen dudana. Proposamena jaso nuen erronka moduan hartu nuen. Hiru abesti sortu ditut, eta gustura geratu naiz. Uste dut nire estiloa bilatu dudala", gaineratu du. Orain arte talde formatuan ibili izan da Alustiza; horregatik, bateria edo gitarren laguntza barik aritzea erronka izan da. "Trikitia eta perkusioa bakarrik erabili ditugu abestietan, horien baldintzetako bat", esan du Alustizak.



Geure kolkotik 2014 diskoaren azala. | INFERNUKOHAUSPOA.COM

Denetariko doinuak

Neurri eta formak da Alustizaren lehenengo abestia. Trikiti bat da, baina "trikitia bezelako daukan neurriak apurtu egin ditut", dio bergararrak. Iratxe Ibarrek ipini dio letra abestiari, eta trikitiari panderoak eta kaxa flamenkoak laguntzen diote.

Bigarren pieza *Urrunera* da. "Reggae doinuak dituen abestia da. Kartzelan dagoen lagun bati eskaini diot, nire gogoetak dira", dio. Txalapartarekin nahastu du trikitia abesti honetan: "Erronka

izan da, batez ere soinuagatik; trikitiaren tonuko egurrak lortzea izan da erronka".

Hirugarren abestia kalejira bat da, *Bunuze*. "Kalejira erraz bat egin nahi nuen, aldaketa gabea", dio. Txapa gabeko panderoarekin lagundutako kalejira izango da.

Kontzerturako sarrerak 16:30ean jarriko dituzte salgai leihatilan, 4 euroren truke. Horrez gain, diskoa ohiko saltokietan eta *Trikitixa.net* atarian erosteko aukera egongo da.

Donostia 2016ko 'Mugalariak'-ek bost proiektu berri bultzatuko ditu

A. L. | DEBAGOIENA

Donostia 2016ko *Mugalariak* programaren bigarren deialdiak arte eszenikoen bost proiektu berri bultzatuko ditu: lehenengoan, Eliralaren *Satie-ka*, Dantzaz konpainiaren *Txoriak*, Itziar Eliasen *Eskutitzak*, Artedramaren *Etxe-koak* eta Rouge Elearen *Zuek* proiektuak hautatu dira.

Donostia 2016 Fundazioak eta Donostia Kulturak, Errobi Mankomunitatearekin elkarlanean, apirilean antolatu zuen *Mugalariak*-en lehen deialdiak: helburua zen sorkuntza artistikoa modu berritzaileen garatzeko egonaldiak eta sortzaileen eta herritarren arteko bitartekaritza-jarduerak sustatzea.

Sorkuntza sustatzea helburu

Deialdiaren helburu nagusia gaurko kultur sistemaren hiru ardatz nagusien arteko harreman-eredua eraldatzea zen: sortzailea, ekipamendua edo era-

kundea eta herritarren. Horretarako, sortzaileendako lurraldeko ekipamendua eskura jarri zaizkie, egonaldi artistikoetan sorkuntza artistikoko prozesuan har ditzaten. *Mugalariak*-en proposamena da herritarrekin batera sorkuntza prozesuak sustatzea, hezkuntza alorrean bereziki, Donostia 2016ren bitartekaritza taldearekin batera diseinatu eta gauzaturiko bitartekaritza artistikoko hainbat jardueraren bidez.

Bigarren deialdi honetan, Donostia 2016k eta Donostia Kulturak, Theatre des Chimeres-en kolaborazioarekin eta Aquitania-Euskadi Euroeskualdearen laguntzarekin, arte eszenikoen beste bost proiektu aukeratu eta lagunduko ditu: izan ere, proiektu horien sortze-prozesuak, edo zati batek, behintzat, 2014ko abendua eta 2015eko azaroa bitartean aurreikusita egon behar du.

Lehenengo edizioan bezala,

sortzaileen, ekipamenduen eta herritarren arteko harremanean, era berriak proposatzen dituzten proiektu eszenikoen aldeko apustu egingo da. Sortze-prozesu horren zati bat landuko du proiektu bakoitzak, bi ekipamendu kulturaletan, behintzat, lurraldeko sortzaileekin elkarlanean.

Bigarren deialdiko nobedadea

Hala, nobedade bat dakar bigarren deialdiak, modalitate berri bat: aurreko deialdian hautatuak izan ez ziren proiektuak *Sarea* sarean txertatutako lurraldeko antzokien esku utziko dira, egoitzetan horien sarrera sustatzeko asmoz.

Kasu horretan, proiektuek ez dute laguntza ekonomikorik jasoko, baina dietak eta ostatua ordainduko zaizkie. Bestalde, bitartekaritza jarduerak diseinatu eta burutzeko aholkularitza eskainiko zaie, bai eta 1.600 euroko (BEZa barne) ordainketa jardueraren parte-hartzeagatik.

Hori horrela, proiektuen proposamenok abenduaren 10era arte izango dute izen-ematea, *mugalariak@dss2016.eu* helbidera idatzita.



De cuerpo presente antzezlan. | GALDER PEREZ

Glu Glu-ren 'De cuerpo presente' dator Bergarara

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

Heriotza batek dakarren herentziak familia batengan sorrazten dituen haserrearen inguruko komedia ekarriko dute Glu Glu Produktioek Bergarara: *De cuerpo presente* da antzezlanaren izena; gaztelaniaz da eta Galder Perez da egilea. Emanaldia gaur izango da, Zabalotegi aretoan, 22:00etan.

Perez ez da obraren egilea bakarrik; izan ere, zuzendaritza eta aktore lanak ere egin ditu. Horrez gain, Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Mari Cruz Melgosa eta Ylenia Baglietto aktoreak dira protagonistak.

Komedia delikatua

Joan den zapatuan bi emanaldi egin zituzten, Gernikan, eta, Perezek adierazi duenez, jendea oso gustura geratu da emaitzarekin. Bestalde, obraren zailtasunak ere azpimarratu nahi izan ditu: "Oso gai delikatua da eta modu positiboan jorratu nahi izan dugu; azken baten, komedia bidez gai potoloak jorratzeak ikuspuntu baikor bat ahalbidetzen du".

Alde teknikoari dagokionez, erritmo azkarra du: gauza mordoa pasatzen dira aldi berean eta hainbat planorekin jokatzen da antzezlanean zehar.



2014ko azoka, jendez gainezka. | GOIENA

Autoekoizleei beste deialdi bat, Durangoko Azokan

A.E. | DURANGO

Sortzaile guztiek kulturaren plazan euren lekua izateko ahalginak egiten dabilta antolatzaileak. Horretarako, autoekoizleei beste deialdi bat egin diete: deialdi berria autoantolatetan oinarrituko da, azoka espazio berezita sortzaile eta elkarte bakoitzaren ahalmenaren eta inplikazio mailaren arabera moldatu ahal izateko.

Izena emateko epea zabalik

Ezin izango da edozein sorkuntza-lan erakutsi Azokan. Katalogoan, gehienez, bi autoekoizpen dituzten sortzaile edo elkar-

teak aurkeztu ahal izango dira; eta, gainera, produktuek Durangoko Azokaren araudia bete beharko dute bere osotasunean.

Interesa duten ekoizle zein elkarteek mezu bidez eman behar dute izena, *gerediaga@durangokoazoka.com* helbidera idatzita. Honako datu hauek adierazi beharko dituzte: izen-abizenak, aurkeztu nahi den autoekoizpena, kontakturako bideak (posta elektronikoa eta telefonoa) eta batzarrera joango den konfirmazioa. Izena ematen dutenen artean adostuko dute gunea nola kudeatu, eta kostua elkarbanatu egingo dute.



Erik Jimenez, musika sortzen duen txokoan.

Erik Jimenez | DJa

"Egunero teknologia berriak irteten direnez, gero eta interesgarriago bihurtzen da musika"

ANDONI MUXIKA | ARETXABALETA

Erik Jimenez edo Eriklive (bere izen artistikoa) DJ arrasatearra-
rendako, musika bere egunero-
kotasunaren zati bat da. Ahal
duenean, bere pasioa esplotatzen
du Aretxabaletako gaztetxean.
Aitortzen duenez, ez da erraza
musikatik bizi izatea; horregatik,
lanean ari da, baina gustatuko
litzaiokoe musika ogibide izatea
etorkizunean.

Nola bihurtu zinen DJ?

Ez dakit zehazki nire hasi nin-
tzen, baina lagun artean nengoe-
la beti entzuten genuen musika
mota hori, eta esango nuke horre-
la hasi nintzela. Musika gabe
ezin naiz bizi.

Gaur egun zaila da DJ izatea?

Bai. Honetaz bizi izatea oso zai-
la da. Nik zorte ona izan dut,

Andaluzian kontzertuak emateko
aukera eman didate eta. Baina,
ahala eta guztiz ere, lanean ari
naiz, eta aisialdian joaten naiz
musika jotzera.

**DJa izateko, musika asko entzun-
go duzu. Zeintzuk izango lirateke
zure musikangehien nabarmentzen
diren artistak?**

Niri gehien gustatzen zaidan
artistarengan oinarritzen naiz:
Michael Jackson. Hura izango
litzateke nire musikangehien
handien duena. Nire ustez, ez da
beharrezkoa musika estilo bere-
koa izatea. Hori bai, hau ez da
kontsumitzen dudana musika ba-
karrara, ia denetik entzuten dut: mu-
sika komertziala eta soula, besteak
beste. Garrantzitsua iruditzen
zait musika asko entzutea, nor-
beraren lana jantziago egoteko.

**Azkenaldian, musika estilo hori
modan dago. Zure ustez, zein da
arrazoia?**

Teknologia berriak. Horiekin
egiten dugu lan, eta, egunero
gauza berriak irteten direnez,
gero eta interesgarriago bihur-
tzen da musika; bai egiten dugu-
nendako, bai entzuleendako.
Ableton Live eta Traktor pro-
gramak erabiliz, aukera asko
ematen dituzte musika entzuleen
gustura moldatzeko.

**DJa izateko, zer da behar-beha-
rrezkoa?**

Gogo. Izan ere, ez da erraza.
Ordenagailua, musika tresnak,
bozgorailuak, eta abar behar-
rezkoak dira, eta horiek ez
dira merkeak. Horretaz gain,
praktikatzeko leku bat behar
da; izan ere, norberaren etxean

ezin da jo, zarata handiegia
ateratzen da eta. Beharrezko
beste gauza bat entzumena dela
uste dut; hori, noski, musika
gehiago entzuten lortzen da.

**Musika tradizionalagoekin kon-
paratuz, zure musika tresnak
berdinak dira. Ze aparailu era-
biltzen dituzu?**

Azken finean, musika tresna
berdinak erabiltzen ditugu.
Desberdintasuna efektuetan
dagoela esango nuke; modula-
zioetan, sartzen diren efektue-
tan... Adibidez, ahots edo baxu
batetik soinu desberdin bat
atera daiteke efektuen bitartez.

**Urteak daramazu kontzertuak
ematen; orain arte nolako izan
da zure esperientzia?**

Dudarik gabe, urteak pasa aha-
la, nire musika aldatzen joaten
da. Beste leku batzuetan ego-
teak, nolabait, begiak zabaltzen
dizkizu. Aurten, adibidez, hila-
bete egon naiz Andaluzian kon-
zertuak eskaintzen, eta datorren
urtean ere joateko asmoa dut,
baina bi hilabeterako. Han
gehienez entzuten dena chill out
estiloa da; izan ere, giro des-
berdina dago: hondartzetan
izaten dira kontzertuak, jendea
egotera joaten da... Hemen,
ordea, ez dago ohitura handirik
musika estilo hori entzuteko;
Eivissan, Cadizen... horrelako
lekuetan jendeak gehiago bizi-

tzen du musika. Gainera, dis-
kotekak eta ekitaldiak sortzen
dira horretarako. Bada, han
lortu dudana esperientziak, duda-
rik gabe, nire musika hobetu
du.

**Etorkizunean, gustatuko litzai-
zuke musika ogibide bihurtzea?**

Bai, duda barik. Oraingoz, Anda-
luzian arrakasta handiagoa dut
hemen baino, baina gustatuko
litzaidake hemen ere honetaz
bizi izateko aukera izatea. Musi-
kaz asko disfrutatzen dut, nire
lokalean doinu berriak sortzen
ditut, eta pozik nago.

PERTSONALA

Bizi izateko leku bat: Andaluzia.

DJ gustukoena: David August.

Pelikula gustukoena: *Blood
Diamond* (Edward Zwick, 2007).

Toki gustukoena: Fever, Bilboko
diskoteka bat.

Amets bat: Musika ogibide izatea.

Musika estilo gogokoena: Soula.

Janari gustukoena: Txokolata.

ANDONI MUXIKA

ASTEAGOIENAN



JAGOBA DOMINGO

Gorka Urbizuri
elkarrizketa gaur

Kulturriketak izeneko saioa estreinatuko dute gaur, egubakoitza. Larraitz Zeberio aurkez-tuta, askotariko arte edo kultura adierazpenetako sortzaileak elkarrizketatuko dituzte, eta gaur, Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizuren txanda izango da.

'Kulturriketak'
Egubakoitza, 22:00



EQUIPOS-TALENTO.COM

Xabier Bengoetxea
'Harira' saioan

Xabier Bengoetxea CNA taldeak erosi duen Fagor Etxetresnetako enpresa berriko presidentea izango da martitzenean *Harira* saioan (22:00). Enpresa berriaren Garagartzako eta Eskoriatzako lantokien gainean jardungo du, besteak beste.

'Harira'
Martitzena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 7

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ
13:00 Ikusi irratia
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Gipuzkoa Pedalka
17:30 Pausoan
18:15 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Ur eta lur
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Kulturriketak
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Amaia DJ
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

ZAPATUA, 8

10:00 Amaia DJ
10:30 Erreportajea
10:55 Zorion Agurrak
11:00 Debagoiena zuzenean
11:55 Astea iruditan
12:00 Gipuzkoa Pedalka
12:30 Kulturriketak
13:00 Onein
13:30 Idemtitateak
14:00 Amaia DJ
14:30 Harira
15:00 Debagoiena zuzenean
16:00 Astea iruditan
16:05 Osoko bilkura
16:30 Ikusi irratia
17:15 Ikusmira
18:30 Bertso saioa
19:00 Debagoiena zuzenean
19:55 Astea iruditan
20:00 Harira
20:30 Amaia DJ
21:00 Gipuzkoa Pedalka
21:30 Kulturriketak
22:00 Debagoiena zuzenean
22:55 Astea iruditan
23:00 HARIRA
23:30 Gipuzkoa Pedalka
00:00 Amaia DJ

DOMEKA, 9

10:00 Debagoiena zuzenean
10:55 Astea iruditan
11:00 Gipuzkoa Pedalka
11:30 Amaia DJ
12:00 Osoko bilkura
12:30 Idemtitateak
13:00 Debagoiena zuzenean
13:55 Astea iruditan
14:00 Kulturriketak
14:25 Zorion Agurrak
14:30 Onein
15:00 Erreportajea
15:30 Gipuzkoa Pedalka
16:00 Amaia DJ
16:30 Debagoiena zuzenean
17:25 Astea iruditan
17:30 Sasoi betean
18:00 Pausoan
18:30 Harira
19:00 Amaia DJ
19:30 Kulturriketak
20:00 Gipuzkoa Pedalka
20:30 Debagoiena zuzenean
21:25 Astea iruditan
21:30 Harira
22:00 Amaia DJ
22:30 Kulturriketak
23:00 Debagoiena zuzenean
23:55 Astea iruditan
00:00 Bertso saioa

ASTELEHENA, 10

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Pausoan
13:25 Zorion Agurrak
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Erreportajea
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Kulturriketak
17:30 Pausoan
18:00 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Kulturriketak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Kulturriketak
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

MARTITZENA, 11

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
13:00 Sasoi betean
13:25 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Amaia DJ
17:30 Bertso saioa
18:15 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Idemtitateak
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harira
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUAZTENA, 12

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harira
13:00 Euskal egitura
13:30 Bertso saioa
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Sasoi betean
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harmailatik
17:30 Kontzertua
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Harira
19:55 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Gipuzkoa Pedalka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harira
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUENA, 13

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Gipuzkoa Pedalka
13:00 Idemtitateak
13:30 Ur eta lur
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Bertso saioa
15:25 Zorion Agurrak
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harira
17:30 Erreportajea
18:00 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Sasoi betean
19:30 Gipuzkoa Pedalka
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gipuzkoa Pedalka
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Tenpora taldearen
kontzertua ikusteko
sarrerak zozketan

Kooltur Ostegunak egitasmoaren barruan, Tenpora taldea izango da eguean, gaztetxean, 22:00etan, kontzertua eskaintzen. Sarrerak zozketatuko dira Arrasate Irratian, eta, bertara joan nahi izanez gero, deitu 943-25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi irratia@goiena.com helbidera.

Asteko gainbegiratu
egingo da zapatu eta
domekan 10:00etan

Domekan egingo da Behobia-Donostia lasterketa eta bertan parte hartuko duen Endika Donnay korrikalariari egindako elkarrizketa entzun ahal izango da zapatuan eta domekan. Lasterketaren 50. urteurrena dela-eta egindako ikus-entzunezkoen berri ere emanngo dute Artaman taldekoek.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Egubakoitza, 7	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Zapatua, 8	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Domeka, 9	RUIZ	Nafarroa Etorbidea 1	943 79 14 09
Astelehena, 10	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea 38	943 77 16 30
Martitzena, 11	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea 1	943 79 15 15
Eguaztana, 12	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguena, 13	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea 1	943 79 22 26

BERGARA

Egubakoitza, 7	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Zapatua, 8	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 9	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 10	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 11	MOZOS	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztana, 12	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Eguena, 13	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87

OÑATI

Egubakoitza, 7	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Zapatua, 8	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 9	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 10	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 11	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztana, 12	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 13	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16


Farmazien eskuko telefonoetarako 2014 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.altitria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 16°
Min. 9°



Max. 14°
Min. 7°


ZAPATUA, 8

Egubakoitzean baino lainotuago egon arren, euria egiteari utziko dio zapatuan eta temperatura mantendu egingo da.

DOMEKA, 9

Domekan eguraldiak okerrera egingo du. Nahiz eta laino gutxi egon, euria egingo du eta temperatura jaitsiko da.

EUSKAL HERRIA



GAZTE INFORMAZIOA

BEKA

Ikasketa ez unibertsitarioak. Eusko Jaurlaritza. Beka orokorrak, hainbat mailatarako: HH, LH, DBH, Hasierako lanbide-prestakuntzako programak, Batxilergoa, erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketa, Musika eta Dantzako ikasketa oinarrikoak eta profesionalak, Arte Plastikokoak eta Diseinua Heziketa Zikloak, Kirol-ikasketak. Azken eguna: azaroak 29.

Zuzenketa-itzulpengintza.

Berria Egunkaria. Baldintzak: eskaintako praktika egiteko gaitasuna ematen duen goi edo erdi mailako unibertsitate titulatu baten jabe izatea, azken bost urtetan eskuratua. Epea: azaroak 10.

Garapen lankidetzaren arloan profesionalak espezializa-

zako 6 beka. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. Baldintzak: lizentziatura (lehenetsuna zuzenbide, ekonomia, kazetaritza eta soziologia). Azaroak 21.

LANA

Teknikaria. Erretererako Udala. Kultura Aniztasunerako, Garapenerako Lankidetzako eta Giza Eskubideetako azpisailerako teknikaria. Baldintzak: diplomatura, III. LH edo balio-kidea, formakuntza espezifikoa, euskararen 3. HE, frantsesaren ezagutza. Azken eguna izango da: azaroak 11.

Errenta teknikaria.

Irungo Udala. Baldintzak: Gizarte eta Lege Zientzien ezagutza alorreko unibertsitate gradu edo titulazio balio-kidea edukitzea. Azken eguna izango da: azaroak 14.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:

Arrasateko Gazte bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 94325 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 94371 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net





Beronika eta Kepa

Beronika Garai eta Kepa Ormaetxea zapatuan ezkonduko dira. "Egun zoragarria igaro dezazuela, eta eztei-bidaian oso ondo pasatu! Zorionak eta musu handi bat, familiakoen eta lagun guztien partetik!".

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

OROIGARRIA



Teodora Ugarte Orue



Garagartzan hil zen urriaren 30ean, 80 urte zituela.

*Gure Tea, gure tia Toita
Horrenbeste maite gaituenari
Horrenbeste maite zaitugungandik
Gure bihotzean betirako.*

Ugarte familiakoak.
Arrasaten (Garagartza), 2014ko azaroaren 7an.

OROIGARRIA

Miren Irazabal Urkaregi



*Katez inguratuta
zegoen gaixoa.
Hala ere, ageri zen
maitea, goxoa.*

*Udakeneko haizean
hegoak zabalduz
txoria aldendu zaigu
"aske naiz!" kantatuz.*

Zoaz ba lasai, laztana, musu handi bat, agur.



Aranzadi ikastola.
Bergaran, 2014ko azaroaren 7n.

ESKER ONA



Teodora Ugarte Orue



Garagartzan hil zen urriaren 30ean, 80 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.*

*Goxoa denok elkartzen ginenean
izaten zenuen irrifarra
denon nahia betetzeko
izaten zenuen beharra
eta edozein momenturi aurre egiteko
erakutsi diguzun indarra.*

*Zaila utzitako hutsunea
barrenean onartzea
zu bezalako pertsona ona berriz
erraza da oso maitatzea
ezinezkoa izango da ordea
zu sekula ahaztea.*

Arrasaten (Garagartza), 2014ko azaroaren 7an.

ESKER ONA



Maria Jesus Zabaleta Lamariano



Urriaren 30ean hil zen, 73 urte zituela.

*Maria Jesusen familiaren izenean, eskerrik beroenak,
azken egunotan, ondoan izan zaituztegun guzti-guztioi,
adierazi diguzuen babes eta gertutasunagatik, hiletara etorri
izanagatik eta gure samina zuena egin izanagatik.*
Mila esker.

Bergaran, 2014ko azaroaren 7an.

HILDAKOAK

Teodora Ugarte Orue. Arrasaten, urriaren 30ean. 80 urte.

Julia Perez Prieto. Arrasaten, urriaren 30ean. 92 urte.

M. Jesus Zabaleta Lamariano. Bergaran, urriaren 30ean. 73 urte.

Marisa Urzain Zuazu. Bergaran, urriaren 30ean. 73 urte.

Miren Irazabal Urkaregi. Bergaran, urriaren 30ean. 30 urte.

M. Esther Lavandeira Tojo. Arrasaten, urriaren 31n. 80 urte.

Roberto Aiastui Arregi. Oñatin, urriaren 31n. 67 urte.

Jose Migel Biain Guridi. Oñatin, azaroaren 1ean. 48 urte.

Abilio Garcia Hernandez. Arrasaten, azaroaren 2an. 88 urte.

ESKER ONA

Jenaro Aizpeurrutia Etxeberria



Oñatin hil zen 2014ko urriaren 26an, 79 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.*

*Ondra-meza zapatuan izango da, azaroaren 8an,
19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.*

Oñatin, 2014ko azaroaren 7an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek
eskatzen duen errespetu,
arreta eta ardura handienarekin,
nire asmoa da familiari ahalik eta
traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu:
Ez onartu besterik gabe
zure aseguru-konpainiak
esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*



**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.**



LOREAK

ARRASATE 'Itsaspeko bihotzak'

Genero berdintasunaren gaia euskarazko haur literaturaren bitartez lantzeko aukera. Galtzagorri elkartearen eskutik.

Azaroaren 15era arte, Kultureteko klaustroan.

ARRASATE Sugeak protagonista

Suge eta sugegorriak: beraien ospe txarraren biktimak delako erakusketa ikusgai. Azaroaren 10ean zabalduko dute.

Azaroaren 15era arte, Harresi aretoa.

OÑATI Mendi astea

Oñatiko XI. Mendia eta Kirola argazki lehiaketara aurkeztutako lanik onenak ikusgai. Azaroaren 10ean zabalduko dute.

Azaroaren 29ra arte, kultura etxean, 18:30ean.

ANTZERKIA**OÑATI 'Novedades en Villa Titiritaina'**

Ikusi-Makusi erretiratuen taldekoek antzezlanaren estreinatuko dute Pake Lekuko kultura astearen barruan. Erretiratuendako emanaldia izango da.

Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 17:30ean.

BERGARA 'De cuerpo presente'

Hil-kutxan egon eta inguruko txutxu-mutxuak entzuten dituen hildakoaren istorioak kontatzen

dituzte. Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Galder Perez eta Ylenia Baglietto oholatza gainean.

Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan.

UMEAK**ELGETA Ipuinen ordua, umeendako**

Umeendako ipuin kontaketa saioa, euskaraz.

Gaur, egubakoitza, liburutegian, 17:20ean.

ESKORIATZA Jolasak

Askotariko jolasak egingo dituzte umeendako: *Lau izkina*, *Sagua eta katua*, *Pin-pan-pun* eta *Liburu magikoa*, besteak beste.

Gaur, egubakoitza, ludotekan, 18:00etan.

BERGARA Poxpolo Eta Konpainia

Osintxuko Herri Batzarrak *Azaroa gaztañatan* ekimena hasiko du aste bukaeran, umeendako pailazo emanaldiarekin.

Etzi, domeka, Osintxuko frontoian, 17:30ean.

ESKORIATZA Wii-arekin jolasean

Neska-mutikoei Wii-arekin jolasteko aukera izango dute.

Etzi, domeka, gaztelekuan, 18:00etan.

ESKORIATZA Umeentzako bingoa

Zenbaki eta irudi bidez hiztegia lantzeko helburuaz, bingo jokoak egingo dute umeekin.

Azaroaren 12an, ludotekan, 18:00etan.

OÑATI Musikegunak 2014

Antonino Ibarrondoren omezezko Musikegunak hasteko, Felix Ibarrondoren erreperitorioa oinarri hartuta konzertua egingo dute Fernando Latorre baritono bizkaitarrak eta Ensemble Sinkro taldeak. Alfonso Gartzia de la Torre izango da zuzendaria eta Pello Zabalak egingo ditu aurkezle lanak.

Etzi, domeka, Santa Anan, 19:00etan.



ESPACIOSINKRO.COM

BERTSOLARITZA**ARETXABALETA Bertso musikatuak**

Ez da kasualitatea bertso musikatuaren emanaldi berezia egingo dute. Miren Amuritz, Beñat Gaztelumendi, Onintza Enbeita eta Jone Uria egongo dira bertsoan oholatza gainean, eta Amaia Agirre izango da gai-jartzailea. Sarrerak, lau euro.

Gaur, egubakoitza, Zariaian, 19:00etan.

LITERATURA**ARETXABALETA 'Ipuin lotsatiak' ipuin kontaketa**

Odei Arregik *Ipuin lotsatiak* delako kontaketa saioa egingo du neska-mutikoendako.

Bihar, zapatua, liburutegian, 11:30ean.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**BERGARA '11 bidaiak, 11 liburu'**

11 bidaiak, 11 liburu delako ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Jon Arretxe bidaiari eta idazleak. Afrikan eta Asian bizi izandako esperientziak kontatuko ditu Arretxek, bertan egindako argazkiak erakutsita.

Azaroaren 12an, Irizar jauregian, 19:00etan.

LEHIAKETAK**OÑATI Film laburren V. rallya**

08:00etan lehiaketa aurkeztuko dute eta parte-hartzaileek 19:00ak arte izango dute lanak aurkezteko epea. 21:30ean lan guztien proiektzioa egingo dute Santa Anan, eta jarraian, sari banaketa ekitaldia.

Bihar, zapatua, Oñatiko kaleetan, egun osoan.

ELGETA VII. pintxo lehiaketa

Azaroaren hiru domekatan -9an, 16an eta 23an- euro baten truke eskainiko dituzte tabernariak VII. lehiaketara aurkeztutako pintxoak.

Etzi, domeka, tabernetan, 10:30ean.

HITZALDIAK**ESKORIATZA Krisiari buruz berbetan**

Etxeko kontsumoan aurrezteko egin beharrekoen gaineko hitzaldia egingo dute Eider Roak eta Gotzon Beitiak. Euskaraz eta gazteleraz.

Azaroaren 10ean, Ibarraundin, 18:30ean.

ARRASATE 'Diario Co latino'

egunkari zuzendariaren hitzaldia El Salvadorko *Diario Co latino* egunkari kritikoko zuzendaria Arrasaten izango da datorren

astearen Mende bat baino historia luzeagoa duen egunkariaren zuzendari Francisco Valentziak hitzaldia egingo du.

Azaroaren 11n, Irati tabernan, 19:30ean.

BERGARA Lokarriren hitzaldia

Paul Riosen berba egingo du Lokarriren asmoen gainean.

Azaroaren 12an, pleno aretoan, 19:00etan.

BESTELAKOAK**BERGARA 'Kafe konpon'**

Berrerabilpenaren filosofia zabalteko helburuarekin, *Kafe konpon* egitasmoaren beste saio bat egingo dute. Kafe goxo baten aitzakian etxetik eroandako traste zaharrak konpontzen eta berrerabiltzen ahaleginduko dira.

Azaroaren 12an, San Joxepen, 16:00etan.

BERGARA Ardo eta txakolin dastatzea

Osintxuko Herri Batzarrak, *Azaroa gaztañatan* ekimenaren barruan, ardo eta txakolin dastatzeak egingo ditu. Mikel Garizabalak erakutsiko du nola egiten den dastatze bat eta zer izan behar den kontuan ardoa eta txakolina probatzeko orduan. Ikastaroan parte hartu gura dutenek hiru euro ordaindu beharko dute.

Azaroaren 12an, Osintxuko plazan, 19:30ean.

SAIO BERRIA

Gipuzkoa Pedalka

Gipuzkoan, bizikletaz eta bizikletagatik

Julen Iriondok aurkeztuta

▶ Eguaztena, 22:00

BABESLEA:

GOIENA TELEBISTA

Bertakoa eta sasoikoa



goiena

2014-11-07

BUKATZEKO

Arrasatetik Berlinera, une historikoan

- ▶ Azaroaren 9an, etzi, beteko dira 25 urte Berlin banatzen zuen harresiaren erorketa gertatu zenetik
- ▶ Gertakari historikotik hilabete batzuetara egin zuen Jose Ramon Elortzak Berlinera bere familiarekin

MIREN ARREGI | ARRASATE

Etzi beteko dira 25 urte, 28 urtez Ekialdeko Berlin eta Mendebaldeko Berlin banatu zituen 45 kilometroko harresiaren erorketa gertatu zenetik –Gerra Hotzaren sinbolo adierazgarrienetakoa–. 1989ko azaroaren 9a zen Alemaniako Errepublikak Demokratikoak Errepublika Federalerako pasabidea baimenduta zegoela esan zuenean.

Berlinen, 1990ean

XX. mendeko gertakari historiko garrantzitsu hark ikusmina eta zeresana eragin zituen nazioartean eta hemen ere, asko izan ziren Berlingo testuinguru sozial eta politikoak erakarritakoak. Harresiaren erorketa gertatu eta hilabete batzuetara, 1990eko abuztuan, egin zuen Berlinera Arrasateko familia batek. "Lau bat egun eman go genituen han", dio Jose Ramon Elortzak, bidaiaz galdetuta. Betiko gogoan gelditzen diren bidaia horietako bat izan zen. II. Mundu Gerraren ostean aliatuen esku gelditu zen Mendebaldeko Berlinen eta Sobietar Batasunaren Ekialdeko Berlinen arteko desberdintasunak agerikoak ziren: "Hilabete batzuk pasatu baziren ere, oraindik ere polizia errusiarra zegoen Ekialdeko Berlinen.



Jose Ramon Elortza eta haren seme Denis Elortza Berlingo harresiaren zati bat hartzen. | JOSE RAMON ELORTZA

Jokoz kanpo erabat", dio Jose Ramon Elortzak. Eta gaineratu du: "II. Mundu Gerra ezkerreko ezkerreko gabe zegoen Ekialdeko Alemanian. Sekulako kontrastea zen Mendebaldetik Ekialdera igarotzea. Autoak zaharrak ziren,

eta gauza bera gertatzen zen etxekin ere. Aldaketa hark atentzio handia eman zigun; zer esanik ez kontrol-gune eta dorreek".

Gerora ere egokitu izan zaio Elortzari Berlinera joatea, han ikasten egon zen-eta haren seme

zaharrena: "Handik urte batzuetara joan nintzen bigarrenez Berlinera, eta orduan, garabien hiria iruditu zitzaidan. Dena zegoen obretan. 1990ean oraindik kontrol dorreen hiria zena garabien hiria izatera pasatua zen", erantsi du.

AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE




Batean kale bestean bale

Maic-en itxierak Bergarako kaleetako bazterrak astindu ditu berriz ere. Ez da posible Bergara industria-gintzan izen handikoa izatetik azken urteotako desindustrializazio egoera honetara iritsi izana. Bizi kalitatea mantendu nahi badugu industriak herri osoan sortzen duen aberastu-suna behar beharrezkoa dugu eta guztiok egin behar dugu horren aldeko apustua. Bergarako agintariek lehentasun bezala izan beharko lukete industria erakartzea, mantentzen laguntzea eta enpresari-kin lan egitea baina horretarako sinistu egin behar da publiko eta pribatuaren arteko kolaborazioa dela egin behar den apustua. Hau slogan bat baillitza esan ez, egin egin behar da. Candyren itxiera kanpoko enpresariak hartutako erabakiaren ondorioa dugu, deslokalizazioaren ondorioa. Aste honetan egin behar denaren eredu garbia izan dugu. Lazpiur enpresak 100 urte bete ditu eta beronen nagusi diren enpresariaren filosofia da gure herriak aurrera egiteko behar duena: industria da gure ekonomiaren motor nagusia eta bertan erabaki, bertan sortu, internazionalizazioaren alde egin eta Euskal Herriaren industriaren katean ezinbesteko kate-maila garelako sentitzea da Bergararen etorkizuna.



BAINUGELAK ETA MANPARAK



gelatzo s.l.

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI

Tel.: 943 71 63 22 - Faxe: 943 78 15 51